

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Eztarrian, brotxak kargatuta

Gaur hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia; Villabonako Olaederra kiroldegian egingo da lehenbiziko saioa, 17:30ean

«Finalean zuzenean egoteak» ez du kezkatzen Maialen Lujanbio txapelduna

Beñat Zamalloa Akizu Villabona

Brotxak kargatuta dituzte bertsoariak Bertsolari Txapelketa Nagusiaren atarian. Goiztiarrenei gaur arratsaldean egokituko zaie eztarriarekin ahalik eta finena margotzen ibili beharra, Villabonako Olaederra kiroldegian; berantiarrena, ostera, Maialen Lujanbio txapelduna izango da: zuzenean mihiserik zabalenean eta zirrargarrienean marraztea irabazita, abenduaren 15ean jardungo du, Barakaldoko BECeke finalean.

Zuzenean finalean kantatze hori du «berezia» Lujanbioarentzat aurtengo txapelketak, baina, «bere alde onak eta txarrak» izanda, ez du horrek kezkatzen txapelduna:

«Hori hala da; BECen kantatzeko zorzea izango dut».

Lujanbioarekin batera, Amets Arzallus da txapela irabazteko faborito nagusia. Azken txapelketa buruz burukoari ez dio begiratzeko, ordea, eta, izatekotan, «ilusio hori kargatzeko pila baten gisa» begiratzeko dio. Ez du «intenzio markaturik» txapelketa honetarako: «Nekarren bidean ahalik eta gehiena sakontzen eta ni izaten saiatzea; izan naizenaren arabera eta izan nahi dudana horren arabera».

Abendua «urruti samar» ikusten du Lujanbio oraindik, eta «lanketa estuagoa» hastear du. Ez du lanketa berezirik egingo finalean zuzenean izango delako; «alferrik da», haren irudiko: «Ba-



koitza saiatuko da bere saiora punturik onenean iristen, eta, gainera, hori nola egiten den jakin gabe».

«Lehiarako momentu desegokian» harrapatu zuen Igor Elortza azken txapelketak. Aurreko bietan finalista izan zenak kanporaketatik hasi beharko du aurtengo. Izan ere, iazko Bizkaiko Txapelketan lortu behar izan zuen Euskal Herriko arako aukera. «Mentalizatu» beharra izan du, Unai Iturriaga «hainbat batailatuko laguna» eta biak «bi ikuskeratan» daudelako: «Espero dut berdintzea, baina kanporaketan dagoen jendearekin egon, hor zaudela jakin, eta ez dago besterik». Txapelketarekin duen

«arantza» atera nahi du, aspalditik duen gogoia da hori, eta «gogotsu» dago.

Aitor Sarriegi 2009an lehenengo finalista izan zen, eta oraingotan finalaurrekoetan sartuko da lehian, bere buruari «erakutsi beharrekoa erakutsita». Finalista izan zenez, Txapelketa Nagusirako sailkatzeko aukeraren beha-

↓ Amasa-Villabonako kanporaketako bertsolariak



IKER ZUBELDIA

- **Jaloterra.** Zegama.
- **Jaioturtea.** 1981.
- **Ibilbidea.** Hirugarren Bertsolari Txapelketa Nagusia du. Aurreko txapelketan finalaurrekoetako lehen itzulirako sailkatu zen. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan finalista izandakoa da. Bertsoera bizikoa eta umoretsukoa da.



ODEI BARROSO

- **Jaioterra.** Urruña.
- **Jaioturtea.** 1988.
- **Ibilbidea.** Bigarren aldiz du Bertsolari Txapelketa Nagusian Barrosok. Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroako Txapelketan, buruz burukoa jokatu du azken bi txapelketatan. Bertsoera sakonekoa eta kantaera hauskorrekoa da.



ALAIIA MARTIN

- **Jaioterra.** Oiartzun.
- **Jaioturtea.** 1987.
- **Ibilbidea.** Lehen aldiz sailkatu da Bertsolari Txapelketa Nagusirako. Azkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hirugarren egin zuen. Azken urteetan nabarmendu da. Askotariko erreferentziak egoki ekartzen ditu bertsoaldietara.



FREDI PAIA

- **Jaioterra.** Algorta.
- **Jaioturtea.** 1981.
- **Ibilbidea.** Laugarren Bertsolari Txapelketa Nagusia du. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan hainbatetan izan da finalista. Azkeneko Bizkaiko txapelketan entzuleak bereganatu zituen. Entzuleengana iristeko gaitasuna du.



JON MARTIN

- **Jaloterra.** Oiartzun.
- **Jaioturtea.** 1981.
- **Ibilbidea.** Hirugarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan finalista izan da hirutan. Bertsoerako molde berria saiatu izan du, eta baliabide poetikoak bertsoeratu ohi ditu.



NEREA ELUSTONDO

- **Jaioterra.** Legazpi.
- **Jaioturtea.** 1981.
- **Ibilbidea.** Bigarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. 2001eko txapelketan finalaurrekoetarako sailkatu zen lehen aldiz parte hartu zuenean. Hainbat sariketa irabazitakoa ere bada. Bertsolari erregularra da.

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Txapelketan parte hartuko duten bertsolariak Villabonan elkartu ziren ostegunean. IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS



rrik gabe hartu zuen parte Gipuzkoakoan, eta, herrialdekoan, «exijentzia maila handiagoa» izan zela uste du. «Ez dakit neure burua berrestera joan nintzen, baina mamu gehien ikusi nituen momentua hura izan zen», aitortu du. Finalurreko «bete bat» eginda bigarren bueltarako sailkatu nahi luke.

Txapelketan parte hartu ahal izateko adina gainditu berrikan ariko da Maddi Sarasua. «Pixka bat kokatzera» joan zen ostegunean Villabonan egin zen aurkezpen festara. «Gauza urrun bat, amets bat» da txapelketa, Sarasuarentzat. Jon Maia txapelketa adindunenarekin jardun zen hizketan. Txiki-txikitatik, ber-

tsoa ezagutu zuenetik, beretzat «bertsolari izarrak» izan direla dio, eta «oraindik ere bai». Ez daukala ezer galtzeko aholkatu dio Maiak albotik, ondo egiten duen guztia hor geldituko dela.

Adindunena izateaz batera, gehien aritu denen artean ere badago Maia. «Txapelketak pilatuz joateak aurrekoetan egindako hutsetan ez erortzeko aukera ematen dizu», dio zumaiarrak bere alde duen zerbait aipatuta. Azkenekoan oso zentratuta eta goitik ibili zen. Haatik, formulak errepikatu gabe, «lan berriak eginda» dator txapelketara: «Garatzen jarraitzeko egin beharrekoa egiten jardun dut».

Olatuaren gainean

«Ni aurreko txapelketara iritsi nintzen nora sartzen nintzen ez nekiela, eta uste baino hobeto atara zitzaidan, eta ia-ia olatuaren gainean egon nintzen», zioen Miren Amurizak. Finaletik bi postutara gelditu zen lehen parte hartzean, 19 urte zituela. Odei Barrosoarentzat justu kontrakoa izan zen lehen esperientzia hura 21 urterekin: «Nire bertsotarako esperientzia gogorrenetakoa edo gaizkien bizi izan dudanetakoa izan zen».

Ilusioz eta gogotsu daude biak. Esperientzia txar hartatik «anitz ikasita» dator txapelketa honetara Barroso: «Dezente ikasi dut esperientzia horretatik, eta, aurten, heldu naiz orain dela lau urtekoa gaindituta eta gogoz eta ilusioz». Orain dela lau urteko gogo hari eusten dio, Amurizak. «Ni orduan bezain gogotsu nago, eta espero dut lau urteotan bizitako denak, bai bertsotan, baita bizitzan bizi izan dudanak ere, lagunduko di-

dala ekarpen politen bat egiten».

Ez da gauza bera 20 urterekin txapelketan aritzea eta egun aritzea, Iratxe Ibarrarentzat: «Txapelketari nik ez diot ikusten horrenbesteko premiari oraintxe, lehia horrek jada ez nau horrenbeste erakartzen». Ez da sentipen bera, baina «gauza handia» da, hala ere, Oihane Perearentzat: «Txapelketa da plaza bat jende kopuruagatik eta tentsio puntuagatik



Nekarren bidean, ahalik eta gehiena sakontzeko eta ni izaten saiatzeko intentzioa dut»

AMETS ARZALLUS
Bertsolaria

«Espero dut lau urteotan bizi izandakoak lagunduko didala ekarpen politik egiten; gogotsu nago»

MIREN AMURIZA
Bertsolaria

motibatzen zaituena plazan baino gehiago ematera». Neurria hartua diote txapelketari Ibarrak eta Pereak, eta bertsozaleek ere euren gogotsu zer espero dezaketen badakitela irizten diote biek. «Aurreko bi urteetan egokitu zait ez jakitea nora nindoan, eta, nire ustez, aurten badakit nor naizen

eta nora noan, eta konfiantza pixka bat badaukat inguruko jendearekin edo bertsozaleekin», dio Pereak. Entzuleek euren bertsoaldiren bat oroitzea nahiko lukete biek, Ibarrak eta Pereak. «Hori baino pixkatxo bat gehiago», osatu du Pereak.

Txapelketarako sailkatzeko ibilbiderik bitxienetakoa egin du Eneko Fernandezek. 2011n hasi zen bertsotan, 34 urterekin, eta aurten Nafarroako txapelketan laugarren postua erdietsita sailkatu da txapelketarako. Txapelketa prestatzeko «esperientzia gabe» harrapatu du, «berez, sorpresa bat» izan delako bharentzat.

Txapelketa aurreikusteko arketeta eginda, «bertsozale dezente ondo» ari direla sumatzen du Amurizak. «Uste dut gero eta gaitzagoa dela bertsolariontzat finalera heltzea. Bestela esanda: gero eta maila altuagoa dago kanporaketetatik», nabarmendu du Elortzak. Pereak, ostera, heldu ikusten du txapelketa, beste garai batzuetan ez bezala, eta, hari bereetik, adin tarte estuan ikusten ditu parte hartzaileak Maiak. Gaztetasuna eta maila lotu ditu Ibarrak, «nahikoa ibilitako bertsolari gazte asko» daudela ondorioztatuta.

Lautan txapeldu izandako Andoni Egañarik gabe «lehen txapelketa» izango dela ere gaineratu du Maiak.

Lehen saioa egingo da gaur, jakin gabe txapelketak zer dakarren berri

Lehenengo kanporaketa jokatu da gaur Amasa-Villabonan, sarrera guztiak amaituta daudela

B. Zamalloa Villabona

Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak berriatik zerekar lezakeen ikusminez daude bertsolariak. Gaur arratsaldean jokatu da lehen kanporaketa Villabonako Olaederra kiroldegian. Iker Zubeldia, Odei Barroso, Alaia Martin, Fredi Paia, Jon Martin eta Nerea Elustondori egokituko zaie txapelketaren bidea zabaltzea.

Eurak izango dira gaiak, doinuak, puntuak eta giroa proba-

tzen lehenengoak. «Zozketa egiten dugunean, ez dugu ez lehenengo ez azkenekoa tokatzea nahi izaten», azaldu du Jon Martinek. Puntuen langa «nahiko garbi» izaten delako azkenekoan, eta ez dakigulako nola puntuatuko gaituzten lehenengoan». Elustondorentzat, berriz, berdin dio noiz den: «Nire esperientzia pertsonalagatik, inoiz ez da data on batean egokitzen». Alaia Martinentzat, bestalde, noiznahi egokitu ere, bertsotan egiten dutenak balio du; «ez dut pentsatzen hainbesteko eragina daukanik».

Ez dute jakingo zein motatako gaiak jokatu zaizkien eta gaiekiko zein jarrera eskatuko zaien, baina, aldi berean, «presio eta aurreiritzi gutxiagorekin» joango da saiora Alaia Martin. Gaiak jar-

tzen ibiltzen den lantaldearekiko konfiantza ere agertu du Alaia Martinek. Txapelketaren aurrean aurreikuspenak egiten, «obsesionatu eta gaixotu» egiten direla aitortu du Jon Martinek: «Normalean kiniela guzti-guztiak alferrikakoak izaten dira». Elustondok nahiago du saio aurretik gogoeta handirik ez egitea saioak elkarren artean «oso desberdinak» ere izan litezkeelako.

Plaza bete-betea

Hasiere batean, Villabonako Behar-zana pilotalekuan jokatzekoa zen lehen finalurrekoa, baina, sarreren eskariaren ondorioz, Olaederra kiroldegira aldatu dute saioa. Herenegun jakinarazi zuten sarrerak amaiturik zirela, ordurako. Plaza bete-betea izango da.

berria ere hitzaren ofizioan

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIAN

14 saio
zozketa

Zozketan parte hartzeko informazioa
eta BERRIaren materiala salgai atarian

Asteko zozketaren sariak:

FINALA
BEC sarrera

• BECeko finalerako sarrera

• BERRIaren harpidetza. Aukeran paperekoa edo PDFa

• BERRIaren 10. urteurreneko material sorta

• Euskal Herriko Plazaren eskutik Solagüen ardo sorta

Finaleko saria:

• Asteko zozketen produktu sorta osoa

+ Tableta

Nahi duzun neurri eta doinuak, izan zaitez

berrialaguna
www.berria.info/berrialaguna



hamarnaka
berriak

berria

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia >

Jon Martin > Bertsolaria

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehendabiziko kanporaketa irabazi zuen joan den igandean Jon Martinek. Hala ere, ez du «saiorik onena» egindako sentipenik, ez zuelako «goitik beherako» bertsoaldirik egin.

«Forma aldatzen badugu, edukia aldatuko dugu uneren batean»

Beñat Zamalloa Akizu Donostia

Amonak asmatu zien pronostikoa Jon Martin (Oiartzun, 1981) eta Alaia Martini. Hark herenegun Villabonan jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen kanporaketan bi biloba izanik, bihotza erdibitua zuen. «Baina biok lehen geratzea posible da?», galdetuz zien bazkalorduan. Ezetz erantzun zion bilobak. «Biok lehen geratzen gertuena hauze da: bata bestearengandik puntu batera». Saioa, oro har, «gorabeheratsua» izan zela iruditzen zaio.

Saio gorabeheratsua izan zela diozu, baina, zure kasuan, nahiko orekatua izan zen, ezta?

Hori esan zidaten. Uste dut Alaia eta biok saio orekatua egin genuela; batez ere, ez ginela erori. Baina nik ez nuen nire saiorki onena egin, ez zen goitik beherako bertsoaldirik. Egia da gustura gelditu ez nintzen horietan ez nintzela erori, eta hori izan zen, agian, diferentzia besteeikiko.

Gaietan ezerk harritu zintuen?

Bai harritu ninduela puntu erantzunetan jartzeak errima mota bat. Alaiari *«odan»*, «modan», tokatu zitzaion; «*odan»* errimatzen

duten oso hitz gutxi daude. Eskerak Alaia makina bat dela errimatzen, eta kristorena bota zuen. Niri bakarkakoa ere ez zitzaidan bereziki gustatu. Iruditu zitzaidan gai itxiagoak proposatu nahi zituztela, baina niri iruditu zitzaidan itxia baino gehiago, estua. Nik gai itxiagoak edo zabalagoak jarriko nituzke. Gustu kontuak dira.

Gai dramatikoaren zalea izanik, kartzelan dramatikotik jo zenuen.

Drama baino gehiago niri gustatzen zait bertso mota lirikoago bat, bertsolari gehienei baino gehiago. Bertsolari gehienei esatera zuzen samarrak gustatzen zaizkie, eta ni lirikotasunean ere gustura sentitzen naiz.

Arrebaren azkenaldiko nabarmen-tzea azken Gipuzkoako txapelketari lotuta dago?

Txapelketak izarrak sortzen ditu. Gipuzkoako txapelketan Aitorrek [Sarriegi], jakina, garrantzia hartu zuen, Beñatek [Gaztelumendi] garrantzia hartu zuen, eta Alaia garrantzia hartu zuen. Hortik aurrera, Iñaki Apalategik eta Aginek [Lapurur] kristoren txapelketa egin zuten, eta ez zen pasatu. Orduan, txapelketaren sustapen eta belaunaldien arteko transmisio



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Eutsiz, behetik gora eta behetik gora eta behera

Jon Martinek irabazi du lehenengo kanporaketa, Villabonan, Alaia Martinek baino puntu bat gehiago eskuratuta

Beñat Zamalloa Akizu Villabona

Ariketaz ariketa eutsi zion Jon Martinek hasieran ezarritako mailari, eta, hala, Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen kanporaketa irabazi zuen igandean, Villabonan. Lehen bertsoan eman zuen bere estilo poetikotik lehen

zertzelada. Nerea Elustondorekin osatu beharreko ofizioan, soldata jaiste ala langileak kalera-tzea erabaki behar zuten enpresa bateko langileak ziren. Elustondo lehen bertsoan soldata jaistearen alde agertu eta gero, «Zurekin ados egongo nintzen / baldin eta ez baneki / erdi ittoan dabilen hura / itto egiten dela beti», erantzun zion Martinek. Kartzelan jo zuen berriz ere goia. Lehen finalurrekoan kantatuko du.

Behetik gora egin zuen Alaia Martinek: gaiak ihes egin zion Odei Barrosorekin kantatutako zortziko handian, baina handik

aurrera gorantz egin zuen. Jon Zalduak lehen puntua emandako ariketako lehen bertsoan errimarekin estutu zuenean bere onenetik atera zuen. «Sukaldaritzu dugu / aspaldian modan», jarri zion Zalduak, eta «baina nik ez dut jartzen / askotan aproban. / Tortilla irteten zait / saltxitxaren forman. / Saio on bat sukaldatu / nahi dut Villabonan», bota zuen Alaia Martinek. Datozen saioak goitik ez badoaz, aurrera egingo du.

Elustondok idejak akats handirik gabe azaldu zituen saioaren gehienean, eta ideietan zer edo zer apalagotik, baina mailari eu-

↓ Saillapena

1. Jon Martin	654
2. Alaia Martin	653
3. Nerea Elustondo	639,5
4. Odei Barroso	632
5. Fredi Paia	631,5
6. Iker Zubeldia	607,5

HURRENGO SAIOKOAK

Agin Laburu
Onintza Enbeita
Jone Uria
Arkaitz Estiballes
Beñat Ugartetxea
Eneko Fernandez

tsi zion saio osoan. Lehen puntua emandakoan ez zuten horrenbeste estutu gaiari eta errimari dago kienez, eta aukera baliatu zuen gora egiteko.

Barrosok ere behetik gorako bidea egin zuen, baina Alaia Martini baino gehiago kostatu zitzaion goranzko bidean jartzea. Bere neurriko txikietan atera zuen onenetik: hamarrek txikian eta kartzelan, berak aukeratuta, poto egin arren. Elustondorekin herentzian jasotako amonaren bixiekin zer egin erabaki behar izan zuen, hamarrek txikian. Saltzearen alde zuen jarrera gai-

34 » Getxoartek 47 artista gazteren lanak erakutsiko ditu gaurtik hilaren amaiera arte

35 » Bilboko Barrea hasi da, Robert Crumb komikigile eta ilustratzaileari eskainia aurtan

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

horretan ez dakit txapelketak oso funtzio garrantzi-tsua betetzen duen. Gero, jaialdietara joan eta ondo kantatu behar da.

Eta horieregin du?

Publikoarekin ondo komunikatzen da. Ni publikoaren zati batekin oso ondo komunikatzen naiz, baina beste batekin ez naiz hain ondo komunikatzen. Alaiak, agian, irismen handiagoa dauka. Teknikoki dauzka gauza batzuk, beste inork egin ezin litzakeenak. Alaiak bertsoan ikaragarri egiten du.

Zeren bila aritu zara dezimatzeko bertsolaritara ekartzea proposatzerakoan?

Nik uste errima desberdinak tartekatzearen eta memoria egitearen ondorioz sor litekeela bertsoera bat orain ez dagoena. Lehen aipatzen nuzun lirikotasuna ematen dio. Niri ematen dizkit tresna batzuk, eta nik uste gehiago ulertzen direla ariketa mental eta estetiko bat egiten ari zarenean, eta ez kontaketa bat. Nik uste dut forma aldatzen badugu edukia aldatuko dela uneren batean. Finalera sartzeko antza duen bat izan zintezkeela esan zenuen duela lau urte. Zeren antza duzula orain esango zenuke?

Duela lau urte beharbada konfiantza handiagoz nengoen nire aukeretan. Ez dut uste nire lekua finalean dagoenik. Hori bai, lehenengo buelta bukatuko banu aukera edukita, belaunek dar-dar egingo lidakete, zeren niretzat amets bat betetzea litzateke.

Zerbait probatukoduzu?

Bakarka estutuko dut. Gaiak uzten baldin badit eta gaia azkar pentsatzen baldin badut, saiaturko naiz pixka bat gehiago estutzen eta pixka bat gehiago arriskatzen. Agian ez deziman, baina dezima antza daukan doinuren batean, edo funtzio berdina betetzen duen zerbaitean edo motz gehiago dituenen. Bai, aldaketa bat eskatzen dit gorpuzak.

tik Barrosok. Honela bukatu zuen lehen bertsoa: «Aspaldian etxean / miserian gara / saldu nahiko nituzke / bitxi hoiek, hara / urrea alperrik da / ogirik ez bada».

Fredi Paiak eta Iker Zubeldiak zortziko handian ohiko gaiari erren estiloan garapen berezia eman zioten. Lehen ariketatik aurrera, berriz, gorabeheratsuago jardun ziren; kartzelan, batez ere. Zubeldiak bi potu ere egin zituen bidean.

Olaederra kiroldegian bero handia pasatu zuten 970 entzulek, eta Zubeldiak beretik atera zuen ikasgaia: «Hala ere zerbait ikasi degu / sanmigela asteburuan / oilasko batek ze sentitzen dun / mikroondasan barruan».

Konexio arazoak



Analisa
Josu Goikoetxea

Etxetik ikusi behar izan nuen Villabonako saioa. Ez zen nahi nuena, baina hartara, behintzat, probatu ahal izango nuen streaming-aren bitartez nola bizi duen zaleak bertso saio bat.

Piztu nuen ordenagailua, piztu nuen router-a, sartu nintzen bertsoa.com-en, klikatu nuen leihoa. Lehenengo irudi etenetan ikusi ahal izan nuen jendea bere burua haizatzten, berotuta. Garagardo bat hartu nuen hozkailutik. Ondoren, nire lineak konexioa galdu zuen. Ai ama.

Hasierako agurrak galdu nituen, eta zortziko handiko lehen bertsoak. Fredi eta Ikerren lanarekin berreskuratu nuen konexioa. Ondo ari zirela ematen zuen. Handik aurrera, konexioa, errealizazioa, dena ondo... gauza bat izan ezik. Izan ere, elementu batek huts egiten baitzuen konexioa betea izan zedin. Neu nintzen elementu hori. Ez nuen konektatzea lortu.

Oso kartel erakargarria zen Villabonakoa, sei bertsolariek erakutsia dute plazan —lekuko nauzue— kanporaketak gainditu eta finalurrekoetan aritzeko gaitasuna. Uste dut igandean Jon Martinek soilik izan zuela saio osoari eusteko hauspoa, oso erregular aritu baitzen, distira une batzuekin, kartzelan adibidez —bide batez, azken «putakume» hori nola epaitu behar da betaurreko moreetatik begiratuz?—.

Niri neuri Alaia gustatu zitzaidan igandean gehien, bakarkako lanera arte behintzat. Hor uste dut ez zuela asmatu ideja konplexu bat bertsoetara ekartzekoan.

Nerea Elustondo bertsolari bikaina da, baina kontzentrazio arazo bat edo beste tarteko, ez ninduen ase, puntu erantzuntan eta kartzelan izan ezik. Oso egokia izan zen bigarren bertsoko galderari hirugarrenean eman zion erantzuna.

Odei Barrosok —nola gogorazten didan bere kantaerak Amets Arzallusena!— hamarreko txikian eta kartzelan jo zuen goia, baina bertsoaldi akasgabe

bat falta izan zitzaion nire aburuz. Oso polita kartzelan atera zuen neurri-doinua.

Bizkaiko finala altzarazi zuen Fredi Paia indartsu hura faltan bota nuen igandean —nola desfondatu zen kartzelan!—.

Iker Zubeldia ikaragarri gus-tatzen zaidan bertsolaria da; gainera, hasieran zeukan txispa eta zirtorako joera eskergarriari teknika eta betelan landu-goa gehitu dio azken urteotan. Hala ere, oraindik epai-irizpide-ek zigortzen dituzten zenbait joera ditu. Irizpideak aldatzen ez badira, berak findu beharko ditu alderdiok. Gainera, potu egin zuen. Ez dago epaileei ezer egotzerik.

Gaiak txukunak iruditu zitzaizkidan oro har, agian zenbait puntu epelegiak izan ziren bertsolariak zartzako batez erantzun ahal izateko, bertso eskolei eta zinemaldiari buruzkoak, kasu. Kartzelako gai ireki —irekiki— horiei buruz, nahikoa esan dut lehenago ere. Baina nire iritzia da, eta kitto.

Inpresio horiek izan nituen igandeko saioa entzutean. Ez ninduen ase.

Txapelketa Nagusiak dimentsio handia hartu du. Gaur egun, lehenengo kanporaketari eskatzen diogu duela hamabost urte finalurre bati eskatzen genion maila, tentsio, gozamen... Uste dut bertsozaleok (denok? batzuek?) lasaitu eta txapelketaz, batez ere, gozatu egin behar dugula.

Ea datozen saioetarako nire buruko router-ak konexio ego-kia atxikitzen duen.

Hilberria

Fermin Mihura Lekuko emailea

Joan den igande gauetan zendu zen Fermin Mihura, eritasun dorpe baten ondorekin. Azkainen (Lapurdi) sortua zen, 1946an.

Zaletasunetik egin zen bertsolari Mihura. Aita bertsozalea bertsolarientzuz segituz hasi zen zaletzen gaztetan, bertsolarien liburuak irakurri eta baita gogoz ikasteko joera hartu zuela. 70eko hamarkadako azken urteetako Eskualtzaleen Biltzarretako batean saria irabazi zuen Xalbadoren *Odolaren mintzoa* liburutik buruz ikasi bertso gehien hark zituelako zuzenean kantatu.

Eta azken urte hauetan, berriz, bereziki erretretan sartu zenetik, ofizioz autoen piezen saltzaile izan zela, Internet zuen iturri nagusi. Eta bertatik ezker eta eskuin eman bertso saioak begiratzen aritzen zen, eta gustuak zituen irudi, errima eta neurtitzak gogoz atxikitzen. Jean-Louis Hariñordoki *Laka* bertsolari eta adiskideak zehazturik, ikerlari ere bazen.

1982an egin zuen bere lehen plaza, Lakak bultzatua hain zuzen. Laka bera eta Txomin Ezponda izan zituen kantu lagun zenbait. Bere bertsogintzan Martín, Xalbadoren eta Jon Lopategi izan zituen eredu. Bertsoak idazten zituen ere *Herria* aste-karirako, Fermin izenpetuz. Beti Lakaren erranetan, gizon «umila eta isila» izateaz gain, ikaragarriko memoria zuen.

1980an Bertsularien Lagunak elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Izan ere, Lakak esplikaturik, orduan bertsoak ez zuela ezagutzarik batere Ipar Euskal



Herrian gairi, beste zenbait lagunekin erronka gisa hartu zuten ezagutza horren alde egitea. Baretik, saioak gehitu nahian, eta, bestetik, transmisioa bultzatuz. Nonbait, Xalbadoren eta Mattinen belaunaldiaren lekuko izatek, halako desertu bateko zeharkatze egoera bat bizirik, belaunaldi berriaren loraldientzako lekuko emaile egin zen Mihura, beste zenbaitzuk bezala.

Elkartearen hastapeneko garai haietan, bi libururen idazketan lagundu zuen. Bata Lino Akesoloren *Zahar hitz, zuhur hitz* (Eusko Ikaskuntza, 1985) eta bestea *Bertsularien artea* (Euskal Kultur Erakundea, 1998).

Lapurdikoko bertso txapelketan parte hartu zuen 1987an; Nafarroakoan, zazpi aldiz orotara. Txapelketa Nagusian epaile izan zen 1987an.

Frango gustukoak zituen baita artzain-txakur txapelketak ere, eta horien aurkezle gisa eza-gutzen zuten anitzek, bertso-tzorduez baliatzen zen bertso batzuen kantatzeko.

Ehorzketa Azkainen iraganen da, bihar, urriak 2, 15:00etan.

•NORA ARBELBIDE

berrialagun eta **berrialagun** harpidedunei udazkena lasaiago hartzen lagundu nahi dizuegu

SPA zirkuitua edo bainuetxea **%20 merkeago***

Eskaintza gustuko baduzu, sartu xirimir **ibox.com** atarian, eta egin eskaria

*Eskaintzaz baliatzeko promozio kodea: **berrialaguna**
Eskaintza baliagarria irailaren 24tik urriaren 3ra.



ximiribox

berria
hamarnaka
kontaketeok gara

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Estiballesek uko egin dio parte hartzeari

Eneko Abasolo 'Abarkas' ariko da Bizkaiko txapelkunaren orde. Abasoloren aurretik, hiruk baztertu dute parte hartzeko aukera

Bilbon Herrera-ren aldeko manifestazioan kantatuko du Estiballesek, arratsaldean

Beñat Zamalloa Aktzu

Azken orduan, Bertsolari Txapelketan parte hartzeko zuen eskubideari uko egin dio Arkaitz Estiballes Bizkaiko Bertsolari txapelkunak. Gaur, arratsaldean Markina-Xemeinen (Bizkaia) jokatuko den bigarren kanporaketan kantatzea egokitzen zitzaion. BERRIA-k jakin duenez, arratsaldean Herrera-ren aldeko manifestazioan kantatuko du Bilbon.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek atzo arratsaldean jakinarazi zuen Estiballesek orduan aurkeztu zuela parte ez hartzeko idatzia, eta Estiballesen orde Eneko Abasolo *Abarkas* ariko dela.

Abasolo azken Bizkaiko txapelketan 14. postuan sailkatu zenez, haren aurretik sailkatuta zeuden Ibon Ajuriak, Peio Ormazabalek eta Joseba Artzak parte hartzeko aukera baztertu dute aurrez.



Arkaitz Estiballes. M.RAMIREZ / ARP

Horrela bada, Abasolok, Agin Rezolak, Onintza Enbeitak, Beñat Ugartetxeak, Eneko Fernandezek eta Jone Uriak jokatuko dute bigarren finalurrekoa Udal Pilotalekuan (17:30).



Txapelketa nagusian hamabi epaile ari dira saio guztiak puntuatzen. Horietatik

Berbaz bat-batean emana zenbakietara pasatu behar izaten dute epaileek bertsolari txapelketetan. Bat-bateko eta bertsoz bertsoko lana da epaileena ere.

Berben matematika

Beñat Zamalloa Aktzu

Da matematika, baina ez da matematika». Epaileen lanaz ari da Nerea Bruño epailea. «Pasatu behar duzu bat-batekotasun bat zenbaki batzuetara. Oso zaila da denok zenbaki berarekin asmatzea», erantsi du. Epaileen lana subjektiboa da, eta hala «izan behar du», Jurgi Fuentes epailearen ustez: «Bestela, epaile bakarra nahikoa litzateke».

Zenbait aspektu bateratu ere egiten dituzte prestaketetan. «Agian, zuk zigortzen duzu zerbait, baina ohartzen zara beste batek askoz gehiago zigortzen

duela hori», azaldu du Bruñok. «Ikusten baduzu gehienek huts mota hori asko zigortzen dutela, zuk ere zigortzen duzu, nahiz eta pentsatu ez zenukeela hainbeste zigortuko», jarraitu du. Batzuek hizkuntza «beste batzuek baino askoz gehiago» zigortzen dute, adibidez. Epaileen emaitzetan, «Alde handiak» izatea ez da ona lehen Txapelketa Nagusia duen Bruñorentzat.

«Asko zigortzen da denbora; zigortzen da, adibidez, ofizioko lana denean, bestearen lana oztopena edo bakoitza bere kasa joatea...». Gaiari lotuta gaineratu du Fuentesek ere: «Gaitik kanpo ibiltzea, bertso batean gauza bat

↓ **Markina-Xemeingo saioa**



BEÑAT UGARTETXEA

- **Jaloterria.** Mallabla.
- **Jaloturtea.** 1971.
- **Ibilbidea.** Lehen aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Bizkaiko finalista izan zen duela bi txapelketa. Ahots apalezko kantaerarekin umore biziko erantzunen bila aritzen da. Lehen puntua emandakoetan nabarmendu izan da.



AGIN LABURU

- **Jaloterria.** Astigarraga.
- **Jaloturtea.** 1985.
- **Ibilbidea.** Lehen aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Azken Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean kantatu zuen, finalurrekoretan goitik kantatuta. Abila da gaiek planteatuko egoerei alde komikoa topatzen.



JONE URIA

- **Jaloterria.** Algorta.
- **Jaloturtea.** 1990.
- **Ibilbidea.** Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalera iritsi da azken bi aldietan. Aurreko txapelketan lehen kanporaketa irabazi egin zuen. Bertsoera zorrotzeko bertsolaria da.



ONINTZA ENBEITAK

- **Jaloterria.** Muxika.
- **Jaloturtea.** 1979.
- **Ibilbidea.** Hirugarren Bertsolari Txapelketa Nagusia du. 2006. urtetik Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalista da. Umoretik zein seriotik emoziozko bertsoera du. Bakarkako lanetan lortu izan ditu emaitzarik onenak.



ENEKO FERNANDEZ

- **Jaloterria.** Lesaka.
- **Jaloturtea.** 1977.
- **Ibilbidea.** Bertso ibilbide laburrena eta bitxiarekin duen bertsolaria da. Duela bi urte hasi zen bertsoetan. Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehen aldiz hartu zuen parte urte honen hasieran, eta bakarkako bikain bat eginda laugarren sailkatu zen.



ENEKO ABASOLO

- **Jaloterria.** Iurreta.
- **Jaloturtea.** 1976.
- **Ibilbidea.** Arkaitz Estiballesek azken orduan hutsik utzitako lekuan kantatuko du. Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalista izan zen 2010. urtean. Bakarkako seriotik egin izan ditu txapelketatan bere lanik esanguratsuenak.

Bertsolari Txapelketa Nagusia →



tsotan entzun ez duzun bertsolari bati baino». Komunikazio ekin-tzan bertsolariaren «komunikazio gaitasunak» ere eragiten duela zehaztu du Fuentesek.

Epalleen «sentsibilitatea»

«Nahiz eta teknikoki bertsoa modu batekoa izan, eta denok teknikoki bertso hori egokia dela jakin, sentsibilitate bat baduzu gai jakin baten inguruan, joera izan daiteke gorago ala beherago epaitzeko», Bruñoren berbetan. Hori dela eta, epaile taldean parekidetasuna izatea «oso garrantzitsua» delakoan da. Txapelketa honetan hamabi epailetatik hiru dira emakumezkoak. «Emakume batek hobeto uler lezake beste emakume bertsolari batek esaten duena, eta, agian, gizon batek ez du berdin ulertzen». Bide horretan, bigarren pausoa «kalitatearen alde» egin beharko litzatekeela uste du Enbeitak: «Epaile diren emakume horiek sentsibilitate minimo bat izan beharko lukete generoaren inguruan». Guztiak bat datoz sentsibilitateak ez duela emakumeen gaia bakarrik izan behar.

Publikoaren eta epaileen emaitza bera ez izatea logikotzat dute, Fuentesek ez beste guztiak. Fuentesek dio epailea «neurri batean entzulea» denez, ez duela zertan desberdina izan. Gainontzekoek diote, oster, epaileek bertsoz bertso epaitzen dutela, baina entzuleek sentipenen arabera epaitzen dutela. Enbeitaren ustez, kritikatu egin behar dira batzuetan, «futboleko epaileak» kritikatzin diren legez. Hala ere, hau ere badio: «Horretan, oso gutxitan dauka publikoak arrazoia».

hiru dira emakumeak. GARI GARAIALDE / BERTSOZALE ELKARTEA

esan eta hurrengoan kontrakoa esatea, edo belarrira min egiten duten hizkuntzaren akatsak...». Horiek potoaren pareko jarri dituzte, eta potoa huts larrizat jo du Bruñok. Potoak «garrantzia eduki behar du, bertsoa testu erri-matua» delako, Fuentesen berbetan, baina, ez dio irizten «beste huts batzuek baino larriago» izan

«akaso» ez dela egiten: «Saritu behar da, askotan saritzen dena baino gehiago».

Saritzen dena «zigortzen ez den hori» dela argitu du Bruñok: «Euskara txukuna izatea, azkartasuna erantzuteko momentuan, gaiari atxikitzea, gai horri erreferentzia zuzenak egitea, gidoitik ez irtetea, besteari erantzutea, errimaren aberastasuna oso inportantea da...». Horiez gainera, «originala izatea» aipatu du Fuentesek. Erregularitasuna txapelketan aurrera egiteko «abantaila» deritza Bruñok.

Enbeitak zein Uriak aztertuta dituzte epai irizpideak. Uriak aurtengo txapelketakoak ez, baina aurreko Bizkaiko txapelketan begiratu zituen. «Obsesionatu gabe» egiten die kasu irizpideei Enbeitak. «Denbora, errimak eta hizkuntza zuzentasuna» izaten ditu kontuan, batez ere. Ideiaren-gatik «gehiago sakrifkatzen» omen da plazan txapelketan baino, Uriaren irudiko: «Plazan beste lizentzia batzuk errazago hartzen dituzu: bai errimak, bai hankaluzek eta hankamotzak egiterakoan...». Dena den, «bertso hobek ateratzen dira askotan».

Bertso bertsuak izanagatik ere, nork kantatzen duen arabera puntuaketa desberdina izatea «gerta litekeelakoan» dago Bru-

ño, txapelketa honetan «gehien-gehienak» ezagunak izan arren: «Gerta daiteke. Adibidez, bertsolari bat ezagunagoa denez eta zuk

haren bertsoera ezagutzen duzunez, agian, gertukoagoa edo etxe-koagoa egiten zaizu, eta, agian, hobeto ulertzen diozu inoiz ber-

“

Emakume batek hobeto uler lezake beste emakume bertsolari batek esaten duena»

NEREA BRUÑO
Epailea

«Ideiaren-gatik gehiago sakrifkatzen gara plazan, eta bertso hobek ateratzen dira askotan»

JONE URIA
Bertsolaria

beharko lukeenik. Bizpahiru puntu kentzen dizkio potoak bertsoari. Gaur, Markina-Xemeingo kanporaketan kantatuko du Jone Uriak, eta, harentzat, «egia da huts teknikoek bahetzeko balio dutela txapelketetan».

Gaur ariko da Onintza Enbeitak ere. «Asko» zigortzen den iruditzen zaio Enbeitari, baina saritu

Jakin 197

uztaila-abuztua
2013

Jarduera armatuaren amaiera. ETaren erabakirako arrazoiak

MIKEL SARATXO / JULEN ZABALO

Postmodernitatea erlijiosoa ote da? José María Mardonesen ikuspuntua

LUZIO URIARTE

Aulki-jokoa, Uxue Alberdik zahartzaroko xarma erakutsi zigunekoa

IRAITZ URKULO

EGUNEN GURPILEAN

HAIZEA BARCENILLA
INAKI IRAZABALBEITIA
GOIZALDE LANDABASO
LIONEL JOLY
JOSU LARRINAGA

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20018 DONOSTIA - Tel.: 943 218092 - Faxa: 943 218207 - jakin@jakingunea.com - www.jakingunea.com

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Bertsoldiaren abiapuntua izaten dute bertsolariek gaia. Abiapuntu beretik abiatzen dira, batzuetan; aurkakoetatik, beste batzuetan; eta abiapuntu banatatik ere bai. Irekiegia eta estuegia.

Abiapuntua eta heldulekua

Beñat Zamalloa Aktzu Villabona

Ezin aurrez ziur jakin. «Askotan gertatzen da pentsatzea gai txar bat dela, eta, gero, askotan ideia onenak etortzen zaizkizu», kontatu du esperientzia Iban Urdangarinek. Gaur arituko da estreinako Bertsolari Txapelketa Nagusian: Hendaiaiko kanporaketan kantatuko du. Bertsolariei bakarrik ez, gai-jartzaileei ere gertatu izan zaie usteak ustel ateratzea. «Harritu egin zaitezke egun batean hain-hain konbentzitura edo taldean hainbesteko arrakasta eduki ez duen gai bat ipinita», Maite Berriozabalen esperientzian. «Askotan gertatzen dena da bertsolari batentzat zaila den gaia beste batentzat ez izatea», osatu du Saroi Jauregi kideak albotik.

Bertsolariaren jarrerak badu eraginik gaiak eman lezakeenean, Erika Lagomaren ustez: «Aulkitik edozer entzuteko prest jaikitzen bazara, aterabidea errazago

topatzen da, beti ere, baina joaten bazara ea zer gai tokatzen zaizun, entzuten duzun lehenengo hitza ez bazaizu gustatzen eta muturra okertzen baduzu, horretatik lan egitea oso zaila da».

Faseka prestatzen dituzte gaiak, eta egokitzen diren astean berraztertzen dituzte asteburuko saioaren aurretik. Oreka bila jarduten dira. «Oreka bilatu behar dugu saioan zehar, saio osoak ere oreka bat eduki behar du, eta ez saio batek bakarrik, faseko saio guztiek ere bai», azaldu du Jauregik. Faseko gaiak elkarren parean jartzen dituzte, eta itxura antzekoa hartzen badiete egiten dute aurrera.

Gaien izaeran gizarteak ezezik, gai-jartzaile taldea osatzen dutenek ere eragina dute, Alaitz Recondoren arabera. «Azkenean diferentzia da taldea osatzen dugunak ere zer garen edo zertan parte hartzen dugun. Ekartzen ditugun gaiak ere anitzetan izaten dira gure ingurukoak», argitu du. Bikoteen ahotik ala askotariko

senidetzan jarri izan dituzte bertsolariak gehien gai-jartzaileek. «Denok badugu kuadrilla edo baditugu aita-ama, baditugu anai-arrebak, baditugu lankideak... Normala da hori dena gaietan ateratzea», logikotzat jo du Recondok. Berriozabalek beste arrazoi bat ere topatu dio, eta adibidearekin jantzi du: «Bikote batean, berez, segun egoera zein den, egoera erraza izan liteke bietan defendatzea papera edo gauza berriak esatea, baina ez dakit, imajinatzen dut, kartzelero eta preso baten arteko elkarrizketa bat egoeraren arabera...». Desorekatua dela esanez lagundu dio Jauregik. «Oso originala litzateke, oso sorpresan harrapatzea bertsolaria, baina ea zer esaten dizun kartzelazainare roletik kantatu behar duenak...», bukatu du argudiatzea Berriozabalek.

Gai originalak, batez ere bertsolariak sorpresan harrapa ditzatekeenak, saihestea komeni delakoan da Jauregi. Txapelketa dela gogoratu du Berriozabalek,



Bertsolari Txapelketa Nagusiko gai-jartzaileak bilera, Villabonan. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

eta jokatzeko dena ez dela ondo ala txarto irtetea: «Hor pertsona batzuek behar pilo bat egin dute, eta guk horren erantzukizuna eduki behar dugu; tokatzen zaigu».

Irekia, baina estua

«Bakarka irekiago jartzen ditugu normalean sei bertsolari dauzkagulako kantatzen; gai estua jarriz gero, publikoarentzat sei istorio

antzeko entzuteko arriskua dagokelako». Hori saihestu nahi dute gai-jartzaileek kartzelan, Jauregiren hitzetan. Saihesten saiatuta ere, ez dute bermatzen bertsolariek norabide beretik joko ez dutenik. Lehen kanporaketan genero indarkeriaren gaia hartu zuten lau bertsolarik, eta, bigarrean, kartzela ala zaharren egoitzan kokatu zuten salbues-

↓ Hendaiaiko saioko bertsolariak. Gaur (17:30)



AMAIA AGIRRE

- **Jaioturtea:** 1977.
- **Sorlekua:** Villabona.
- **Ibilbidea:** Hirugarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako azken txapelketan, finalurrekoetaraino ailegatu zen. Ofizioetan, elkarrizketan kideari erantzunez egin ohi ditu lanik onenak.



FELIX ZUBIA

- **Jaioturtea:** 1974.
- **Sorlekua:** Zarautz.
- **Ibilbidea:** Lehen aldia du Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako txapelketan, entzuleak bereganatzea lortu zuen lan bizietako eztenekin, eta ofizioetan zein bakarka entzuleak ezustean hartu zituen final-laurdenetan.



IBAN URDANGARIN

- **Jaioturtea:** 1985.
- **Sorlekua:** Ataun.
- **Ibilbidea:** Estraineko aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Umorezalea da, eta ofizioetan jarduten da erosoan. Kantaera kartsukoa da, eta ahotsez laguntzen ditu ofizioetako umore kolpeak.



IÑAKI APALATEGI

- **Jaioturtea:** 1982.
- **Sorlekua:** Beasain.
- **Ibilbidea:** Lehen aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian. Azken Gipuzkoako txapelketan finalista izan zen. Arrazoibide bereziko bakarkakoan nabarmendu zen bertsaldia, gorputz adierazpenez lagunduta.



IÑAKI ZELAIA

- **Jaioturtea:** 1973.
- **Sorlekua:** Hernani.
- **Ibilbidea:** Beteranoa da txapelketan; bosgarren aldia du. Txapelketetan agertzen den plaza gutxi-ko bertsolaria da. Eroso sumatzen da txapelketan. Aurrekoan, finalurrekoetara iritsi zen. Bertsolari erregularra da.



JULIO SOTO

- **Jaioturtea:** 1987.
- **Sorlekua:** Gorriti.
- **Ibilbidea:** Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Nafarroako Bertsolari Txapelketa izana da birritan. Estilo eta kantaera bereziko bertsolaria da. Bertsoa asko lantzen duen goranzko bertsolaria da.

34» Mikel Laboa katedrak lehen jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako

35» Lou Topetek 'Esnatu dira' lehen diskoa aurkeztuko du, gaur, Viktoria Eugeniako Klubean

Bertsolari Txapelketa Nagusia →



pen bakarrarekin. «Gero askotan ipintzen duzun gaia ipintzen duzula, lehengoan ere gertatu zen Markina-Xemeingo saioan, lehenengo hirurek norabide berean hartu zuten», jarri du adibidea Berriozabalek. Urdangarinen irudiko badira gai batzuk beti errepikatzen direnak eta jendearengana «oso erraz» iristen direnak. Gai irekia izateak badu

zailtasunik berarentzat: «Oso argi eduki behar duzu zein gairi kantatu nahi diozun, eta segundo batean pentsatu behar duzu».

«Oso umoreko» bertsolaria da Urdangarin, baina «oso-oso zaila» zaio umorea kartzelan. «Badago aukera, baina oso zaila da. Oso zaila da bertsotan umore ona egitea. Jendearekin komunikatu behar zara, jendearengana

ailegatu, eta bertso triste batzuekin edo gai triste batekin erraza go ailegaten da jendearengana. Umore ona egiten baldin baduzu ailegaten zara, baina umore ona egitea oso zaila da», garatu du.

Arriskua ere ikusten diote bai bertsolariek eta bai gai-jartzaileek ere kartzelako gai irekiei. «Gai irekiekin preparatuta eramandako bertso batzuk ere sar ditzake-

zu», ikusten dio arriskua, gai irekiekin «oso-oso gaizki» moldatzen den Urdangarinek. Hargatik, pixka-pixka bat «estuxeagoak» jarriko lituzke kartzelako gaiak. Etxeko bertso sorta kantatzeko aukera ematen ez duten gaiak jartzen ahalegintzen dira, helduleku bat edo zerbait derrigor aipatu beharrekoa dutenak, Berriozabalek eta Jauregik diotenez. Baina arrisku hori lehendik badago Jauregirentzat: «Hori pasa liteke gai estu bat jarrita ere: bertsolariak bertso eskolan bakarka entrenatzen ari dira gai mordo batekin, eta guk gaiak gizartetik, errealitatetik eta gure ingurutik sortzen ditugu. Gai estu-estua jar dezakezu, eta gerta liteke bertsolari horrek aste horretan bertso eskolan gai horri berari kantatu izana». Erantzunik ekarri ez duten galderak sortu zaizkio segidan: «Gainera, zer da etxetik ekarritako bertsoa kantatzea? Zenbat bukaera eta zenbat hitz-joko ez dira lehendik landutakoak?».

Gai-jartzaileek aipatutakoarekin bat datoz Lagomarentzako gai egokiak izan daitezkeenak: «Bidea libre uzten dizkizuten gaiak. Helduleku bat ematen dizutenak, baina zer errana ematen dizutenak. Norbere bizitzatik hurbilen daudenak, helduleku anitz dituzunak. Fikzioa baldin badira ere, marraztu ditzakezun rolak, ez oso arrotzak izatea». Urdangarinek, oster, gaia entzun ahala jakiten du gai bat egokia duen ala ez: «Gaia entzun eta orduantxe etortzen bazait ideia segida bat. Hiru bertsoko edo lau bertsoko saioa bada, lau

idea etorri behar zaizkizu istant horretan. Ideiei tiraka hasten baldin bazara, asunto txarra».

Nor beretik ala nahi duenetik
Azken txapelketatan hasitako bideari jarraituz, bertsolari bakoi-tzari dagokion sexuan ematen diete gaiak. «Pixkanaka-pixkanaka sartu dugu, eta saiatu gara aurretik ere emakume eta gizon bereizketan horretan bertsolarien sexuarekin bat zetorrena planteatzen: 'anai-arrebak zarete', 'ahizpak zarete' edo 'anaiak zarete'. Horrelako aukerak bertsolariekin bat datorrena jarri, nola eta ez dion gaiari zerbait ekartzen», erantzun du Jauregik. Gai-jartzaileak aukera guztiak izaten ditu irakurri beharreko gaian unean moldatuta eman dezan. Bidea jarraitu dute bikoteen roletan ere: «Garai batean andre-gizonak ziren; gaur egunean, ez baldin bada behar markatzea, bikotea esaten dugu, eta bertsolariek erabakiko dute andra-gizonak diren, bi emakumezko diren, bi gizonzko diren...».

Gai-jartzaileek gaiak jartzeaz gainera, txapelketako saioak aurkezten dituzte. «Ongi» prestatu beharreko lana da. «Aurkezlea azkenean da bai jendearekin, bai entzulearekin bidea dena. Bertsolariek zugaran dute konfiantza guztia. Kontrola eraman behar duzu. Gauza anitz daude hor azpian kontrolatu behar dituzunak, ongi egin behar dituzunak, ez direnak ikusten, baina baten batek huts egiten badu, agian, ikusten direnak», azaldu du Rekondok. Aurkezleak tenplea izatea eskertzen du Lagomak.

↓ Altsasuko saioko bertsolariak. Bihar (17:30)



BENITO GAZTELU

■ **Jaioturtea.** 1987.
■ **Sorlekua:** Donostia.
■ **Ibilbidea.** Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako txapelketan birritan izan da txapeldunorde; lehengoan, lehen txapelketa zuela. Egin beharreko guztietan aritzen da goitik.



ERIKA LAGOMA

■ **Jaioturtea.** 1981.
■ **Sorlekua:** Lesaka.
■ **Ibilbidea.** Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Azkeneko Nafarroako Bertsolari Txapelketan, hirugarren egin da iritsi da txapelketa honetara. Ofizioetan, indartsu aritu zen arrazoi-ketan finalean.



JEXUX MARI IRAZU

■ **Jaioturtea.** 1972.
■ **Sorlekua:** Larraul.
■ **Ibilbidea.** Bertsolari Txapelketa Nagusiko betteranoetakoa da. Birritan izan da finalista, 1997an eta 2001ean. 2005ean, finalaurrekoetara iritsi zen, eta, aurrekoan, kanporaketetara. Bertsoera biziko bertsolaria da.



OIHANE PEREA

■ **Jaioturtea.** 1977.
■ **Sorlekua:** Gasteiz.
■ **Ibilbidea.** Hirugarren aldiz sailkatu da Bertsolari Txapelketa Nagusirako. Arabako egungo txapelduna da, eta hainbatetan txapela jantzi du aurrez. Bertsoera freskodun bertsolaria da, bai ideiaz, bai kantaeraz.



UNAI AGIRRE

■ **Jaioturtea.** 1975.
■ **Sorlekua:** Hernani.
■ **Ibilbidea.** Laugarren aldia du Txapelketa Nagusian. Finalaurrekoetara ailegatu da azken txapelketatan. Azkeneko Gipuzkoako txapelketatan finalista izan da. Ofizio bizietan, jardun izan da emankorren.



XABIER SILVEIRA

■ **Jaioturtea.** 1976.
■ **Sorlekua:** Lesaka.
■ **Ibilbidea.** Laugarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Nafarroako Bertsolari txapelduna izan da hainbat urtez, eta gaur egun ere bera da txapelduna. Ideia originaldun bertsolaria da.

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Beñat Gaztelumendi ◉ Bertsolaria

Altsasuko kanporaketaren biharamunean «asetasun» sentipenarekin esnatu zen Beñat Gaztelumendi. «Behetik gorako» saioan, kartzelako bakarkakoak eman zion sentipen hori.

«Ez dut uste Altsasukoa baino askoz saio hobea egiteko gai naizenik»

Beñat Zamalloa Akizu Donostia

Finalurrekoetan Altsasuko kartzelakoaren zerbait utziko balu, «gustura» legoke Beñat Gaztelumendi (Donostia, 1987). Gustatu egiten zaizkio bakarkakoak, dena bere esku izaten duelako. Lau urte igaro eta gero, ez zuen *Habane-ra*-n kantatu: «Kartzelan, doinuaren motibazio hori baneukan».

Herenegungo saioko zein sentipenekin esnatu zara gaur?

Nik uste dut behetik gorako saioa egin nuela. Hasieran, zortziko handian, egia da lehenengo bertsoa ondo joan zela. Gero pixka bat eustea tokatu zen, eta zortziko txikiko hirugarren bertsoan edo, ni sentitu nintzen. Hortik aurrera, bai, gora egin nuen, eta bakarkakoarekin oso gustura gelditu nintzen. Ematen du jendea ere horrekin gelditu dela, eta gaur [atzo] badaukat asetasun sentipen hori atzo [herenegun] jez neukana.

Ofiziotan lanak izan zenituen?

Bai. Txapelketak berez dauka arrisku hori. Beti saiatzen gara ahal den bertsorik onena bota-

tzen, baina, esaten denean baino gehiago, teknikoki ez erortzen saiatzen gara. Askotan bertsoak daukan jantzi horrek barruko edukiari eragiten dio. Nire kasuan hori gertatzen da, ideiak eta hain freskoak ez izatea. Uste dut pixkanaka askatuz joan nintzela, baina banuen lehorre sentipen bat.

Nola kokatu zenuen zeure burua saioaren izaera berezian?


Niri gustatu egiten zaizkit horrelako erronkak. Bai, ikusten nuen saioan oilar dezente zeudela eta edozeinek irabazteko moduko saio bat zela. Niri gustatu egiten zait berez maila ona daukan saio horretan neure burua ikustea eta sentitzea ea gai naizen besteen pare ibiltzeko. Ofiziotan Agirre bat kolpe dezenteko bertsolaria da, Irazu ere bai, Silveira ere bai, Oihane Pereak ere kolpe handia dauka... eta hor neure burua ikustea gustatu zitzaidan. Uste dut niri mesede egiten didala saioak berak eskakizun handia edukitzeak.

Zel in jarrerarekin hartu duzu txapelketa?

Askotan gelditzen gara txapelketaren parafernalia guztian, eta ahazten zaigu, adibidez, atzoko [herenegungo] saioa Altsasun zela, Altsasu Nafarroan dagoela, Nafarroan egoera konkretu bat dagoela, bertso eskolen mugimendu sendo bat dagoela txapelketaren atzetik, euskalgintzarentzat ere ez direla seguru asko urterik onenak, eta uste dut guk, bertsolariok, badaukagula arduraz horretaz kontziente izateko. Saiatu behar dugu txapelketa hartzen aukera baten moduan mundu horri guztiari mezu positiboa bidaltzen saiatzeko edo, behintzat, txapelketa ospakizun gisa hartzen duen jende horri ospakizun bat emateko.

Nerbioak kontrolatzea omenda zure bertutetariko bat, zure arabera...

Nik txapelketetan izan dudana bertuterik handiena da ez erortzen jakin dudala, agian. Ez naiz ofiziotan bereziki kolpe handikoa, eta txapelketako saioa fondo karrera baten moduan hartzen dut, nahiz eta bertso gutxi izan. Pazientzia hori edukitzen ja-



kin dut. Nik uste dut Altsasuko saioan hori izan zela sekretua, eta beste saio batzuetan ere bai...

Zel in garaitan dago ilunbeko txahal hura?

Nik uste dut Ilunbeko txahal hura oso gaztea zela, beldurrik ez zeukala, eta, agian, ez zela oso kontziente bere egoeraz, eta ez zela kontziente zenbat jende lan egiten zuen bera zegoen oholta hori egon zedin. Uste dut dezente aldatu naizela ordutik. Eusten diet horrelako gauza batzuei, baina bidean esperientzia irabazi dut, eta non nagoen jakitea. Eta galdu dut orduko lotsagabekeria hura. Alde batetik, ohore bat da Ilunbeko txahala izatea noizbait, eta horraino iristea, baina karga bat ere bada neurri batean jende-

ak espero duelako horri erantzun behar diozula.

Zenbateraino jabetzen zara txapelketan egin dezakezunaz?

Jendeari iruditzen zaio behin kanporaketa bat irabazi duzulako edo bakarkako bat nahiko borobila atera zaizulako ez dakit noraino iritsi behar duzula. Uste dut jendeak uste duen lekuetaraino ezin naizela iritsi. 18 urte daukazumean, urtetik urtera, asko hobetzen duzu bertsoetan. Behin urte batzuk pasatu direnean, muga batzuk ere agertzen dira. Nire mugak nahiko gertu sentitzen ditut. Altsasuko saioan badaude gauza batzuk hobetu nahiko nituzkeenak, baina ez dut uste hori baino askoz saio hobea egiteko gai naizenik.

Entxufatuta



Analisisa
Josu Goikoetxea

Zer gozamen, zer berotasun, zer sei bertsolari herenegun Altsasuko Burunda pilotalekuan. Zer alde etxeko pantailako hoztasunetik, aulki estu deserosoko dardarizora. Bertsoaz erabat gozatzeko, lekuan izan behar da, #horihalada.

Sei bertsolari onena ematen, gorabeheratsu, baina gozaraz-

ten. Seiek utzi zuten domekan ale ederrik —batez ere bakarkakoetan—, eta entzuleak haiek hartzeko saskia prest zuen, eskuzabal, bertso on bakoitzeko txalo zaparrada botaz.

Orain, testu hau pixka bat dibertigarri bihurtzeko, esan dezadan ez nagoela ados epaimahaia- ren ebartziarekin. Uste dut puntu gehiegi pilatu zituela Gaztelumendik, edo gutxiegi gainerakoek. Kontuak argitzeko: asko maite dut Beñaten bertsokera, eta igandean baino askoz hobeto kantatzen entzun dut. Beraz, ez dut uste goia jo duenik txapelketa honetan. Gero, nik neuk zalantza dut kartzelakoan, nahiz eta bertso bikainak izan, gaitik kanpora

ez ote zen ibili lehen bi bertsoetan. Oker nago, beharbada, eta astia izan dudana arren, ez ditut bertsoak berriz entzun, nahita.

Askok gustatu zitzaidan Oihane Pereak saio osoan zehar erakutsi zuen jarrera, bertso oso txukunak emanez eta —ez dut paternalista izan nahi, baina— Arabaren ordezkaritza bikaina eginez.

Erika Lagomak jauzi handia egin du azken urtean: duela urte batzuk txapelketa uztera bultzatu zuen trago txar batek; herenegun, puntu erantzumetan izan zuen bertigoa gaudituz, bera izan zen onena hamarrekotik, nire koadernoan, behintzat. Eta gero bakarkako zoragarria ondu zuen.

Silveirak saioa ale onenetakoa utzi zituen: zortziko txikiko bigarrena eta lehen puntu erantzuna, baina nago bi bertso horiek handi egiten dituzten tasunak be-

ra izan zelako, nire ustez, saio osoan zehar gaitik harago joaten auzartu zen bertsolari bakarra. Gozamena zen hura entzutea.

Eta horri lotuta apunte txiki bat, nire ez dena, saioaren zati batean ondoan izan nuen pertsonarena baino: onberegi aritu ziren bertsoaldi askotan bertsolariak (supermerkatukoan, auto-karabakoan...); errealitatean gatazkatsuak lirakeen gaietan, gatazkatik ihesi ibili ziren bertsolariak askotan. Gizakiaren miseria erakustea ere bada bertsolariaren egitekoa; ezin da beti arartekotzan ibili.

Gaiak, onak, eta aipatzekoa aurkezlearen lana. Oso egoki eta bertsolariari patxada igorri Iker Iriarte. Zorionak.

Eta epaileei, eskerrak. Testua pixka bat dibertigarriagoa egin, besterik ez nuen nahi.

Udaberriaren udazkena

Kritika

Musika
Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa

Zuzendaria: Andrey Boreyko.
Piano jotzailea: Judith Jauregi.
Egitaraua: P. Sorozabalen *Bi euskal apunte*, Ludwig Van Beethovenen *Pianorako Igo Kontzertua* eta Igor Stravinskiren *Udaberriaren Sagaratzea*
Lekua: Donostiako Kursaal auditorioa.
Eguna: Urriak 12

Arkatz Mendoza

Igor Stravinskyren *Udaberriaren Sagaratzea* lehen ehun urteak bete ditu. 1913an musika zaletuak astindu zituen obra erraldoiak udazkenaren ur tanta malkoak gaineratu zituen Euskadiko Orkestra Sinfonikoren interpretazioan. Kontzertu birako bost interpretazioetatik azkena entzun nuen; udaberriaren udazkena, indarra, intentsitatea eta gogoak baretu eta desegin dai-

tezkeen horietakoa. Andrey Boreiko zuzendari errusiarraren gidaritzapean maila txukunean aritzen da orkestra beti, zurrun, tenk, imajinarioaren arriskuetatik at. Harizko instrumentuen zartada bakoitza eta haize egurraren bakar lanak zoragarri hasi ziren, fagotaren lehen kantuari zentzua ematearren. Sostengu onean aritu zen erritmo bultzada, betiere ziztakari, ausart, zirikatzaile. Halere *Udaberriaren* kolore basatiak, argiaren distiraitsuak eta biziguraren oinaze arinak diluituz joan ziren, udazkenaren epeltasuna gorritasunerantz abiatuz. Hasierako nahiak, bizitasunak eta erritmoak desagertzen hasi ziren, obra honen iraupen luzea orkestrari zama pisutsua eragingaraziz.

Judith Jauregik gozamina sorrarazi nahi izan zuen entzulearengan

Udaberriaren Sagaratzearen benetako omenaldia Judith Jauregiren ilusio eta alaitasunean erdibideratu zen. Donostiarrak lehen aldiz gozatu zuen Kursaal auditoriumaren handitasunaz, eta Ludwig van Beethovenen interpretazioan gozamina sorrarazi nahi izan zuen entzulearengan. Desioa, gogoa, emateak dakarren barne poztasuna biziki islatu zen bere interpretazioan. Batzuetan soinua handi baten arriskuekin, besteetan orkestraren elkar entzunaren dotoretzian murgilduta, Boreikorekin batera Beethoven arin bat planteatu zuen. Hunkigarritasunaren ardatz ikusezinak *Largo* pasarteetan faltan bota arren, algara, eta udaberri erdi piztu baten lehen printzen irri lotsatiak entzungai izan ziren eskainitako Beethovenen obran. Denboraldia udaberria eta udazkenaren arteko urtze joan hasi du Euskadiko Orkestrak, hurrengo emanaldietan zein urtaro gailenduko den irrika tentsioa mantenduz.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Kartzelan goraino eginez, Gaztelumendi eta beste hiru

Gaztelumendik irabazi zuen herenegun laugarren kanporaketa, Altsasun, Irazu, Silveira eta Agirrerren aurretik

B. Zamalloa Akizu Altsasu

Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusian entzun den bertsoaldirik bikainena egin zuen Beñat Gaztelumendik, herenegun, Altsasuko kanporaketan. Teknikoki zuzen, baina ofiziotan mezuan eta erantzunetan hamarreko txikira arte luzitu gabe iri-

tsi zen kartzelara. Jexus Mari Irazuk ere kartzelan egin zuen gora, eta txapelketako bigarren lanik puntuatuena izan zen berea. Bigarren sailkatu zen, eta dagoneko finalurrekoetarako sailkatuta dago. Xabier Silveira ere lan berean jardun zen finen, nahiz eta aurreko ariketetan asmatu zuen une batzuetan. Unai Agirre izan zen bai ofiziotan, bai kartzelan beretik, kantaeratik eta erantzunetatik utziz joan zena; batzuetan, gorago, eta beste batzuetan, beherago. Hirugarren eta laugarren sailkatu ziren Silveira eta Agirre, hurrenez hurren, laugarren kanporaketan. Oraindik segurua ez den arren, falta diren bi kanporaketak oso goitik ez badoaz, Silveira eta Agirre ere finalurrekoetan izango dira.

Erika Lagomaren eta Oihane Perearen kasuan, ez zuten kartzelan gora egin, eta saioan zehar ere beheragotik jardun ziren, oro har. Lagomak hamarrek txikia izan zuen salbuespena, eta onenetik erakutsi zuen Agirrerekin maitaleen ahotik egin zuen ofizioan. Gaztelumendirekin batera, lanik onena egin zuen. Pereak betsokeira freskoa banatu zuen Burunda pilotalekuko 825 bertsozaleren artean. Tartean, kolpe batzuk ere bota zituen ofiziotan.

↓ Sailkapena

1. Beñat Gaztelumendi	695,5
2. Jexus Mari Irazu	666,4
3. Xabier Silveira	652,5
4. Unai Agirre	650,5
5. Erika Lagoma	622,5
6. Oihane Perea	602

HURRENGO SAIOAK

Alnoha Agirreazaldegi
Beñat Lizaso
Igor Elortza
Iñigo Mantzisor 'Mantxi'
Jokin Uranga
Oihana Bartra



2013/09/29	KANTINA: LEKUNBERRI. 20:00etan.
2013/10/10	KAFE ANTZOKIA: BILBO. 21:30ean.
2013/10/11	MARABILLI: ONDARROA. 22:30ean.
2013/10/17	GAZTETXEA: ARRASATE. 22:00etan
2013/10/31	MATADEIXE: AZKOITIA. 23:00etan.
2013/11/14	-AUDITORIOA: BARANAIN. 19:00ean.

www.bidertzean.com

berrialaguna EDO BERRIALAGUN HARPIDEDUNA BAZARA z20 MERKEAGO IZANGO DUZU SARRERA. LEIHATILAN BERRIALAGUN/HARPIDEDUN TXARTELA ERAKUTSI BEHARKO DA

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

↓ Legazpiko saioko bertsolariak (gaur, 17:30)



AINHOA AGIRREAZALDEGI

- **Jaioturtea:** 1978.
- **Sorlekua:** Elgeta.
- **Ibilbidea:** Hirugarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Gai bakoitzeko pertsonaien barne munduaren ikuspegitik ikuspegi bereziko bertsoaldiak garatu ohi ditu.



IGOR ELORTZA

- **Jaioturtea:** 1975.
- **Sorlekua:** Durango.
- **Ibilbidea:** Seigarrena du. Birritan izana da finalista. Aurreko txapelketan ez zuen finalera heltzea lortu. Bakarka, bertsolari finenetakoa da.



JOKIN URANGA

- **Jaioturtea:** 1980.
- **Sorlekua:** Azpeitia.
- **Ibilbidea:** Bigarrenaz kantatuko du Txapelketa Nagusian. Aurreko aldian finalaren atarian sailkatu zen. Zaleak pitzen dituen bertsolaria da.



BEÑAT LIZASO

- **Jaioturtea:** 1982.
- **Sorlekua:** Azpeitia.
- **Ibilbidea:** Lehenengoz kantatuko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Ofiziotan egin izan ditu lanik onenak. Lan horietan erantzutera joanda, asmatzen duen bertsolaria da.



IÑIGO MANTZIZIDOR, 'MANTXI'

- **Jaioturtea:** 1977.
- **Sorlekua:** Zarautz.
- **Ibilbidea:** Hirugarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako azken txapelketan bakarka egin zuen lanik onena.



OIHANA BARTRA

- **Jaioturtea:** 1984.
- **Sorlekua:** Bilbo.
- **Ibilbidea:** Bigarrenaz sailkatu da Bertsolari Txapelketa Nagusirako. Ideia freskoekin eta ofiziotan erantzunez, gorantz egin zuen Bizkaiko azkenekoan.

Bertsolariek txapelketako ariketak lantzen dituzte taldetan elkarturik. Kantatu eta kantatutakoaren gaineko hausnarketak egin ohi dituzte, talde bakoitzak bere erara.

Simulazioak

Beñat Zamalloa Akizu

Simulazioa eta disimulazioa terminoak bereizi izan ditu Andoni Eganak bertsolariek txapelketarako egiten duten prestaketan. *Disimulazioa* nork bere barruko mekanismoak lantzeari deitzen dio, eta *simulazioa* egoera simulatzeari. Taldean simulatu ohi dute bertsolariek. Hurbiltasunaren arabera eratu ohi dituzte horretarako taldeak gaur Legazpin azkenaurreko kanporaketan jardungo diren bertsolariek, alegia Ainhoa Agirreazaldegik, Iñigo Mantzizidor *Mantxi*-k, Jokin Urangak, Beñat Lizasok eta Oihana Bartrak.

Udaz geroztik, Agirreazaldegik eta Mantxi batera entrenatzen aritu dira Felix Zubiarekin, Zarautzen (Gipuzkoa). «Momentu honetan, hirurok hiru urtetik beharako umeen gurasoak gara, eta, horrelakoetan, hurbiltasun geografikoa funtsezkoa da», argitu du Agirreazaldegik. Hasieratik Aitor Urbietak eta azkenaldietan Pello Esnal ere lagun izan dituzte. «Kanpoko ikuspegi batetik begiratzeko» gonbidatu zituzten,

eta, Urbietaren kasuan, «lauko-tea osatzeko» ere bai.

«Lanetik irtendakoan» elkartu izan da Uranga Jon Martin, Iñaki Apalategi eta Arkaitz Oiartzabal *Xamoa*-rekin, Oiartzunen (Gipuzkoa). Maiatzean hasi ziren elkartzen. Azpeitian dabilenean, berriz, Lizasorekin entrenatu izan da birritan-edo. Nola «oso bertsoera desberdina» duten, «elkarrengandik ikasteko» balio izan diela dio Lizasok. «Estilo ezberdinetatik elikatzen baldin bagara, gero, norbere estiloa ahaztu gabe, geure burua elikatu egiten dugu. Zeuretzat inportanteak diren gauzak hartuz joatea ona da beti», dio Urangak.

Lizasok hurbiltasuna, herrian ez ezik, etxean ere aurkitu du. Sebastian Lizaso aitak lagunduko ziola esan zion, eta entrenatzaile izan du. «Ez dit barkatzen ezta hitz bat ere», azaldu du semeak, baina ez da iritzi berekoa aita: «Beti egoten dira bi ikuspuntu. Ni saiatu naiz nire ikuspuntua ematen». Urangarekin batez ere «arazo handirik» ez duten ofizialak landu ditu, eta aitarekin lehen puntua emandakoak eta bakarkakoak. Lan handiagoa eman dio

aitarekin landutakoak. Bakarkakoetarako «ideiak, arrazoiak, arrazoiak eta arrazoiak» landu ditu aitarekin gehienbat. Esperientziak asko lagundu dio Sebastian Lizasori semea laguntzeko orduan. Emaitzei begira eman dio bere ikuspuntua. Horretarako, gaurko «bertso egitura» nola dagoen ikusi du, eta «gutxi gorabehera zer eginda lortzen diren emaitzak».

Bartrak Bertsolari Txapelketa Nagusi honetarako ez du inor gertu eduki; hala, Mallabian elkartu izan da Beñat Ugartetxearekin eta Miren Amurizarekin. Txapelketako «onena» entrenamendua izaten da Bartrarentzat: «Taldekotik entrenamendu horrek ekarpen pertsonal handiagoa egiten ditaskotan, gainontzekoak baino».

Ez dute ez idatzizko lanketarik, ezta hausnarketa handirik egiten Mallabian; «batez ere, kantatu». Kantatu ostean, elkarri ekarpenak egiteko orduan, alde teknikoari begiratuta baino gehiago, «ikuspegi subjektibotik eta gustuetan oinarrituta» egiten dituzte: «'Jarrera aldetik oso astiro kantatu duzu', edo 'oso arin', 'kantatu astiroago', 'jarrera positiboa».



Ainhoa Agirreazaldegik; Iñigo Mantzizidor, *Mantxi*; Pello Esnal; Felix Zubia eta Aitor Urbietak Zarautzen entrenatzen

32 Vinicius de Moraes, Brasilgo ikur nagusietakoa, gaurko egunez jaio zen duela 100 urte

34 Patxi Ezkietaren margo eta marrazkiak bildu dituzte erakusketa batean Uharte zentroan

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

goarekin joan', edo 'Miren, aska ezazu ilea, eta ez izan hain zuzena beti'...».

Hausnarketari tarte zabalagoa eskaintzen diote Zarautzen. «Horrek laguntzen du azkenean. Bestela, jardun eta jardun... Ez badugu egindakoa aztertzen, alferrik ari gara», dio Mantxik. Norberak egiten duenaz askotan ez direla ohartzen ere badio: «Norbera ez da konturatzen arrazoi batzuetan, neurri jakin batzuetan edo doinu jakin batzuetan ez duela on-

“

Besteengandik zeuretzat inportanteak diren gauzak hartuz joatea ona da beti»

JOKIN URANGA
Bertsolaria

«Batzuetan, norberak ez du jakiten zer den ondo egiten duena, zer azpimarratuko lukeen»

AINHOA AGIRREAZALDEGI
Bertsolaria

gi funtzionatzen; edo, alderantziz, funtzionatzen duela». Horregatik, «ondo egindakoak» ere azpimarratzen dizkiote elkarri. «Batzuetan, norberak ez du jakiten zer egin duen ondo, zer azpimarratuko lukeen», azaldu du Agirreazaldegik. Bestela ere egiten dute; «'hi, ez ezak horrelakorik egin', 'hanka sartu duk', edo dena delakoa» esanda, Mantxiren hitzetan. Egindakoaren inguruan bakarrik ez, egin litekeenaren inguruko ekarpenak ere egiten dituzte. Pare bat adibide elkarri ditu

Agirreazaldegik: «Hartu ez diren bide posible batzuk edo hitz joko batzuk... Askotan bakoitzak bere ohiturazko tresnak jartzen ditu martxan, eta batzuetan gai bati beste ikuspuntu batetik, beste leku batetik begiratzea edo beste ariketa tekniko bat proposatzea oso osagarria izaten da», Agirreazaldegiren ustetan.

Lehen, «itsu-itsuan» bakarkakoetan zentratuta zebilen Mantxi, eta taldeak alde horretatik egin dio ekarpen nabarmenena: «Nik neure buruarekin bakarkakoarekin daukat kezka, eta taldean esaten didate bakarkakoan uste baino hobeto moldatzen naizela, zentratzeko gehiago ofizioetan, hor joateko pixkanaka lurra jaten». Doinu batekin «batere ondo» ez zebilela-eta, taldeak «garbi» esan zion doinua aldatzeko. Horiek aipatu ditu Mantxik taldeak aurrean egindako ekarpen nabarmenen artean: «Horrelako gauza txikiak, baina azkenean ez direnak hain txikiak».

Elkar kutsatzu, «zorlonez»

Batera entrenatzeak elkar osatzeko balio diela uste dute. «Askotan besteen joerak ikusten dituzu, besteen trikimailuak, besteen errimak, elkar asko kutsatzen dugu, zorlonez», dio Bartrak. Besteengandik «gauza onak» hartzea beti ona izaten da Urangaren iritziz. Agirreazaldegik dio elkar kutsatzen dutela, baina ez du uste «uniformizatzen» direnik; alderantziz, elkar osatu egiten dutela uste du. Hori bakarkakoetan «asko» ikusten du, eta entrenamenduko taldeko bertsolarien jorenen bidez garatu du argudioa: «Felix egoerak deskribatzen nahiko artista izaten da normalean; Mantxik, askotan, mugimenduak deskribatzen ditu; eta nik, askotan, istorioak osatzen ditut».

Gogoa eta exijentzia dira, hurrenez hurren, Lizasori bere entrenamenduko taldekideengandik kutsatu zaizkionak: «Jokinekin entrenatzean, bera gogoarekin entrenatzen ikusita, animatu egiten zara. Aita ikusten duzu hainbeste exijitzen, eta zuk ere zeure buruari gehiago exijitzen diozu».

Urteetan hainbat lan probatu dituzte Zarautzen, Mantxik azaldu duenez. «Bakarkakorako, adibidez, lehen eskema bat egin zitekeenik ere niri ez zitzaidan burutik pasatzen; gaur egun, bakarka egiteko hainbat eskema daude. Ofizioka lehen beti zen albokoa nola harrapatuko, eta, orain, konturatzen gara erantzuteaz gain elkarriketa egin behar dela». Horiek «egitearen poderioz» ikasi dituzte, edo «elkartu eta hitz egitearen poderioz».

Entrenamenduetan horretan sakontzen saiatzen dira.



Mikel Markez Indar bat dabil hor bere disko berriaren ale bat erakusten. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Mikel Markezen indarra

‘Indar bat dabil hor’ diskoan, besteak beste, Josu Zabalen eta Xabier Amurizaren kolaborazioak izan ditu

Kristina Martin Donostia

«Disko argitsua da, mezu baiko- rrez bete». Hala definitu du Mikel Markez kantariak (Errenteria, 1971) bere hamargarren lana. Markezen berezko marka du diskoak, haren ahotsak eta gitarrak haren zigilua utzi dute, baina kolaborazioek kolore zertzeladak eman dizkiote.

Xabier Amurizak eta Uxue Alberdik bertsolaritzaren ukitua jarri dute, Josu Zabalak Hertzainak taldearen soinua eta Aire Ahizpek Pirinioetako kantagintzaren estiloa. Benito Lertxundik, Alaitz Telletxeak eta Andrea Bidartek, ostera, haien ahotsak. Horiek denak Markezen irabigailuan sartu, eta *Indar bat dabil hor* izenburuko diskoa izan da emaitza.

Kolaboratzaile horiekin batera, ohiko taldekideak izan ditu lagun Mikel Markezek: Arkaitz Miner (biolina, mandolina eta gitarra), Amaiur Cajaraville (kontrabaxua) eta Satxa Soriazua (pianoa eta teklatura).

Hamabi kantuz osatuta dago diskoa, «hamabi istorio, hamabi joera», kantariaren hitzetan. Bi izan ezik, beste guztiak sormen lan berriak dira. *No time for love*, esaterako, jatorriz Jack Warshaw folk kantari estatubatuarrena da. Errenteriako kantariak diskoaren aurkezpenean azaldu zenez, «Warshawren kantua hitz

egiten du munduko poliziek eta armadek goizeko ordu txikietan, jendea lotan dagoenean, etxeko ateak jo, horiek bota eta jendea eramateko duten ohituraz. Hori duela ehun urte eta gaur egun ere gertatzen da, hemen eta munduko leku gehienetan». Warshawk 1977an konposatu zuen kantua- ren hitzak Xabier Amurizak euskaratu zituen, eta Hertzainak taldeak Euskal Herrian ezaguna bihurtu zuen, *Ez dute uzten maitatzen gauean* moldaketari esker.

Diskoaren bigarren bertsioa *Erresumarik zabalena* da. «Harkaitz Canoren poema, Itziar Iruetagoienak musikatu zuena. Lubaki bandak maketa batean

“

90eko hamarkadako musikariok dena baliatzen genuen gure kantugintza aberasteko»

MIKEL MARKEZ
Kantaria

argitaratu zuen, eta han gelditu zen. Beti izan dut haren moldaketa egiteko gogoa, eta disko hone- tan egin dut», esan zuen.

Aipagarria da diskoak «opari bat» eskaintzen duela: *Konplize ditut eta* kantua- ren moldaketa (13. kantua). «Aire Ahizpekin kantatzen dudana abesti horretarako musika konponketak egin nituen, baina konturatu nintzen gitarra soilarekin basatiagoa zela». Xalbadarren hiru biloba horiekin bezala, kolaborazio gehienak berez sortu zitzaizkion Markezi. «Aire Ahizpekin, adibidez, kantatu izan dut hainbat jaialditan, baina hau disko bate-

an isla duen lehenengo kolaborazioa da», adierazi zuen. «Josu Zabalarekin askotan egoten naiz, Amurizarekin ere bai, Benitorekin... zer esanik ez. Harreman naturalaren ondorioa izan da».

Diskoari izena ematen dion esaldia Amurizaren bertso sorta batetik hartua da. «Herrien bizi- raupenari buruz ari da. Euskal Herriak mendeetan iraun du, inguruko inperioen azpian, mendi artean ezkutatuta, eta bada hor nonbait indar bat aurre- ra jarraitzen laguntzen diona. Herriaren indarra, kulturarena, hizkuntzarena... herria ez-hilkor egiten duen indarra», esan zuen.

Markez bere sormen prozesuaz mintzatu zen. «80ko hamarkada- ko musika talde gehienek aurre- ko tradizioa ukatu nahi zutela zirudien. 90eko hamarkadako musikariok, berriz, denak balio zigun: Ez Dok Amairu, Latinoamerikako kantua edo Cicatriz... Dena baliatzen genuen gure kan- tugintza aberasteko».

Korrante unibertsala

Anjel Valdes Elkar diskoetxe- ko kideak ere uste du Markezen lanak hainbat korrante batzen dituela. «Euskal tradizioak du pisurik handiena: iparraldeko musikaren eta bertsogintzaren eragina oso nabarmena da. Baina korrante unibertsaleko alde emozionalenak ere isla du, hala nola Jorge Cafrunek, Silvio Rodrigue- zek, Victor Jarak eta Trianak».

Herriz herriko ibilbidea hasi aurretik, diskoan beren arrastoa utzi duten kolaboratzaileekin emanaldi berezia egingo du Mikel Markezek abenduaren 1ean, 19:00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean.



dira. LEIRE VENTAS / UROLAKOSTAKO HITZA

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Arabako Errioxan, Oionen, jokatuko da gaur azken kanporaketa, eta Zuberoan, Maulen, izango da azken finalaurrekoa. Euskara urri den guneetan izango dira txapelketako saiorik esanguratsuenak.

«Intentzio osoz», bertan

Beñat Zamalloa Akizu

Intentzio osoz hautatutako herriak izango zirela Bertsolari Txapelketa hartuko zutenak argitu zuen aurkezpenean Jokin Castaños txapelketaren arduradunak. Herria «intentzio osoz» hautatuta jokatuko da, beraz, azken kanporaketa Arabako Errioxan, Oionen. «Jendea ilusionatuta» dago bertan, Iker Olabarrieta Oiongo Txandrio bertso eskolako kidearen arabera. Bertso eskola inguruko jendea ez ezik, ikastoleetako kideak ere «zer datorren galdezka» ari dira: «Ez daukate oso argi, nik uste dut ez dela oso kontziente jendea datorrenarekin, baina interes eta jakin-min handia dago». Bertsoa

edo txapelketa zer den ezagutzeko aukera ekarriko dielakoan da Arantxa Sobrino ere. Bera ere Txandrio bertso eskolako kidea da. Horrekin batera, «Euskal Herriak eskualde bat» ezagutzeko aukera ere izango duela dio. «Oion euskararen mapan kokatzeko aukera emango dio txapelketak», uste du, halaber, Manex Agirre Arabako bertsolariak. Arratsaldean ariko da azken kanporaketan.

«Intentzio osoz» jokatuko da Maulen azken finalaurrekoa ere. «Sinbolo polita» da Eneritz Zabaleta Lapurdiko bertsolariarentzat: «Ekartzen ahal dio foku bat euskarari eta bertsolaritzari». Irudipena du Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean «kontzietzia txikia» dagoelako azken fi-



nalaurrekoa Maulen izatearen ondorioez. Zuberoan galdera dute zenbat zuberotar joango den saioa ikustera. «Pixka bat beldurra ematen digu ez ote den izanen kanpotik ekarria kanpoko jendearentzat», agertu du beldurra Joanes Etxeberria Zuberoako bertsolariak. Bertsozaleak kanpotik etorri arren, «asko pozten» du bi

mila pertsona ibiliko direlako Mauleko kaleetan, eta zuberotarrek «sekula baino gehiago» entzungo dutela euskara kalean. «Ni asko pozten nau jendea ohar dadin ez dela hamar bat eroren gauza bertso munduarena, dela egiazki Euskal Herria eta Zuberoa ukitzen duen zerbait, eta gure kulturaren parte den zerbait»,

erantsi du. Horri lotuta, «sinbologiaz harago, inarrosaldi txiki bab» emango diola esanaz bukatu du Zabaletak.


Espainia, bost kilometrotara «Oion, adibidez, Logroñotik bost kilometrotara dago, eta badakigu erdalgunen potentzia dela, baina horrek ez du kentzen euskaldun

↓ Oiongo saioko bertsolariak (gaur, 17:30)



ENERITZ ZABALETA

- **Jaioturtea:** 1984.
- **Sorlekua:** Baiona.
- **Ibilbidea:** Lehenengoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko txapelketatan finalista izan da. Bakarkakoetan eta gai serioetan osatu izan ditu bertsoaldirik berezienak.



ETXAHUN LEKUE

- **Jaioturtea:** 1979.
- **Sorlekua:** Larrabetzu.
- **Ibilbidea:** Hirugarren aldian du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Hainbatetan iritsi da Bizkaiko finalera. Txapelkunorde ere izan zen behin. Bertsolari orekatua da, eta mailari eutsi izan dio ariketaz ariketa.



IRATXE IBARRA

- **Jaioturtea:** 1974.
- **Sorlekua:** Markina-Xemein.
- **Ibilbidea:** Bosgarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusiko kanporaketetan. Bizkaiko finalista izan da hainbatetan. Bakarkakoetan egin izan ditu bertsoaldirik osoenak txapelketatan.



MADDI SARASUA

- **Jaioturtea:** 1995.
- **Sorlekua:** Itsasu.
- **Ibilbidea:** Bertsolari Txapelketa Nagusian gazteena da Maddi Sarasua. Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko azken txapelketako finalean ariko da guztietan freskotatuz kantatuta, sorpresa eman zuen.



MANEX AGIRRE

- **Jaioturtea:** 1982.
- **Sorlekua:** Aramaio.
- **Ibilbidea:** Estreinakoz ariko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Arabako txapelketa izan zen duela bi txapelketa, eta egungo txapelkunordea da. Azken txapelketan, umorezko ofizioetan egin zituen lanik onenak.



MIREN AMURIZA

- **Jaioturtea:** 1990.
- **Sorlekua:** Berriz.
- **Ibilbidea:** Bigarrenez kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Lehen aldian finaletik hurbil sailkatu zen. Bizkaiko finalista izana da birritan. Ofiziotan zein bakarkakoetan kantatu izan du goitik txapelketatan.

Salo didaktikoa egin zuten Oionen, bertsoa eta txapelketa azaltzeko. TXANDRIO BERTSO-ESKOLA



komunitatea bere esparrua apurka-apurka irabaziz joatea», azaldu du egoera Olabarrietak. Tesuinguru horretan, bertsolari izateko «nolabaiteko beharra» izan dute. Eskualdean 25 urtetik beherako gehienek euskara ikasi zutela ohartu ziren, baina euskarak kalean ere presente egoteko beharra zuela. «Horrek behartu gintuen bertso eskolan geundeno pauso hori ematera, euskara plazara atera beharrak», jarraitu du Bilbotik Oionera joandako Olabarrietak. Bide horretan, Oionen bertsozaletasuna euskarentzako «leho berri» gisan irudikatu du Sobrinok. Leho berri horrek euskara «gehiago entzutea» eta jendea erabiltzera «pixka bat xaxatzea» eskaini dio, Olabarrietak azaldu duenez. Araban euskaltzaleak «atomizatuta» egonda, bertsozaletasuna «euskaltzaleentzako topagunea» dela dio Agirrek, euskarari lotutako gainontzeko ekintza kulturalak bezala.

Lapurdin bertsolarietarekiko ikuspegia aldatuz doala sumatzen dute Zabaletak eta Maddi Sarasuak. «Lehen, kolegioan nengonean, nik sentitzen nuen gazteen artean bertsoa ez zegoela hain ongi ikusita, zaharren gauza zela, baina orain gazte gehiago sartzearekin bat bertsoak hartu duela dimentsio polit eta erakargarri bat», azaldu du Sarasuak. Hori adierazi aurretik esan ere egin du, ordea: «askok ez dutela ezagutzen

esango nuke». Halaber, «Baiona inguruan eta kostaldean» ikusten du «ezagupen falta handia» Zabaletak. Iritzi bertsoakoak dira biak euskaldunei dagokienez ere. «Euskara berpizteko aukera bat bezala» ikus dezaketela dio Sarasuak, eta «espazio berri bat» ireki diela Zabaletak.



Uste dut oso garrantzitsua dela euskarak dakarren gozamina plazaratzea»

JOANES ETXEBERRIA
Bertsolaria

«Erdalgune potentea izateak ez du kentzen euskaldunok esparruak apurka irabaziz joatea»

IKER OLABARRIETA
Oiongo Txandrio bertso-eskolako kidea

Zuberoan «euskal giro bat» ere badela uste du Etxeberriak, ez dela «dena erdara». «Zuberoako berezitasuna edo, hobeiki erranda, baserri munduaren berezitasuna da euskara etxaldeetan edo baserrietan egoten dela eta gutxitan plazaratzen dela». Bertsoaren bidez euskara plazara eramatea eta erakutsi izana jotzen du puntu inportanteentzat.

Bertsogintzak eman dienaz galdetuta, antzera erantzun dute Etxeberria, Sarasua, Zabaleta eta Agirre bertsolariak. «Aukera

handiagoa euskara erabiltzen ala euskara maitatzen zuten jendearekin harremana edukitzeko, eta inguru euskaldun bat sortzeko aukera eman didala esango nuke», erantzun du Sarasuak, esaterako. Iparraldean euskarazko aisialdia «oso-oso gauza arraroa» dela aipatu du Zabaletak. Etxeberriak euskaraz gozatzeari, «gozazteko parada» erantsi dio: «Tesuinguru honetan, uste dut oso garrantzitsua dela euskarak ekartzen duen gozamina plazaratzea». Aramaioarra izanagatik, Gasteizen bertsoaletu zen Agirre, eta euskarak osasun onik ez daukan lekuak ezagutzeko aukera «oso polit eta herrikoia» ekarri dio.

Arabian, «euskarak osasun onik ez daukan lekuetara» joatean, bi kezka izaten dituzte: «Beti daukagu kezka plaza batera joatean zenbat jende egongo den, eta, plaza irekia denean, ea zenbat jende ulertzen duen euskaraz». Oionen «errespetatzea» lortzen ari dira, nahiz eta ulertu ez, Sobrinok kontatu duenez. Euskara ikasleekin, bertsoak entzundakoan ulermena lantzea dute helburu, eta euskaldunekin, gozatzea.

Pedagogiaren beharra

«Ezagutza eta ohitura falta» antzematen ditu Zabaletak Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Behean. Aintzat hartzen dute bertsoan egiteko orduan. «Dakizunean jendeak ez duela bertso saioak antolatzeke ohiturarik, edo bertso afari bat nola egiten den ohiturarik ez duelarik, baldintzatzen zaitu bertsoan ari zarenean. Pedagogia egin behar duzu, esan behar duzu nola pasatzen den, nola diren denborak... eta bertsoan ere saiatu behar zara erraz sartzen diren bertsoak egiten». Entzuleen hiru jarrera bereizi ditu Etxeberriak. «Bitxikeria» gisa ikustea da horietako bat: «Baina, gehienetan, jende horrek euskara bera ikusten du bitxikeria gisa edo ez du ikusi nahi hizkuntza praktiko gisa». «Harridura» da jarreretako beste bat: «Ikustea gazte batzuk euskaraz kantatzearekin gozatzeko harridura handi bat». Hirugarrena «euskaldun eta euskaltzaleen plazera» da.

«Bidearen hasiera delako» ez dio bertsozaletasunaren hedapenari muga aurkitzen Etxeberriak. «Belaunaldi berrietan gain behe-bera doa euskara, eta horrek eragin zuzena izango du bertsolarietaren hedapenean», aurkitu dio muga Zabaletak. Araban, muga garbia «ezagutza datuetan» aurkitu du Agirrek, nahiz xede taldeetat duten gazteengan mugarik ez aurkitu. Oionen, aldiz, euskararen mailak sortzen duen beldurra, ikastera kanpora doazen gazteak, eta gazteek euskarak «bizimodu naturalean» esparrurik ez izatea dute oztopo.



Julen Zabalok ETAk 2011n hartutako erabakia aztertu du. J. HERNANZ / ARP.

‘Jakín’ aldizkariak hiru artikulu bildu ditu 197. alean

Gatazka politikoa, postmodernitatea eta erlijioa, eta Uxue Alberdiren eleberria ditu hizpide

Eredakzioa Iruñea

Kalean da *Jakín* aldizkariaren 197. alea. Ez du gai nagusirik jorratzen; beraz, hiru artikulu osatzen dute *Gaiak* saila. ETak bere jardueraren armatu behin betiko uzteko arrazoiak, postmodernitatearen eta erlijioaren arteko harremanak eta Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (Elkar 2009) eleberria dira gaiak, eta Mikel Saratxok, Julen Zabalok, Luzio Uriarte eta Iraitz Urkulok landu dituzte.

ETak 2011n hartutako erabakia aztertu dute Saratxok eta Zabalok. Erabakia hartzeko aipa daitezkeen kanpoko eta barruko arrazoiak aurkeztu dituzte, ETak

jorratutako bi negoziazio ildoak azaldu dituzte, eta azkeneko urteetan estrategia horien inguruan erakunde armatuak egindako go-goetak agertu dituzte. Uriartek, berriz, erlijioaren eta postmodernitatearen artean dauden harremanak jorratu ditu. Horretarako, Jose Maria Mardones soziologo eta teologoak egindako ikerketatik abiatu da.

Bestalde, Alberdik 2009an Elkar argitaletxearekin kaleratutako liburuaz mintzatu da Urkulo. Liburuan aztertzen diren hainbat gaien analisis sakondu du: norbanakoaren memoria eta historia kolektiboa, haurtzaroko oihartzunak, 36ko gerraren zauri irekia, eta gizon eta emakumeen arteko harremanak zahartzaroen, besteak beste. Azkenik, *Egunen gurgila* sailean azken hilabeteetako berrien iruzkin «labur» eta «biziak» daude, Barcenillak, Iratzabalbeitiak, Landabasok, Jolyk eta Larrinagak idatzirik.

Hitzak. Hika Teatroaren antzezlan berria. Hitzak, hitzak besterik ez. Hitzez eragindako tratu txarrei buruzko istorioa.

Klara Badiola, Itziar Ituño, Ane Pikaza eta Jabí Barandiaran, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

Azpeitiko Soreasu Aretoan, azararen 1ean arratsaldeko 21:30etan.

berria

donostia

«Tentsioa» eta «lehiakideen maila» jo dituzte bertsolariek kanporaketako saioak «irregularrak» izateko arrazoitzat.

«Urte guztietako sentipena»

Beñat Zamalloa Akizu

Duela lau urtekoen antzekoak izan dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketak aurtan ere. Hala ebatzi du aurreko txapelketako kanporaketa guztiak entzun zituen Agin Laburuk. «Urte guztietako sentipena» du: «Ez dira saio bete-beteak izaten; lehertzen diren saioak ez dira izaten normalean lehen fasean». Txapelketa bera dela «gazi-go-zoa», dio Oihane Pereak, eta berekin dakartzala «mahi eta ezina», «arrakasta», «gehiagizko tentsioa»... eta hori guztia ere «nabartzen» dela ondorioztatu du.

Beste behin zera geratu da «garbi» da Julio Sotoren irudiko: «Euskal Herrikoak badu pisu eta tentsio berezi bat, eta bertsolarioro orokorrean lehendabiziko fase honetan asko kostatzen zaigu gurea ematea». Sentipen antzekoa du Felix Zubiak ere, eta ez daki «nerbioengatik ala ardurengatik» izan den. «Askok ez arriskatzeko erabakia ere hartu du», erantsi dio. «Salto egiteko beldur pixka bat» egon dela iruditzen zaio.

Lehen fasean «ez erortzeari» garrantzia ematea hurrengo fase-rako sailkatzearekin lotu du Sotok. Denena omen da hurrengo fasera igarotzeko «ilusioa», Sotoren ustez. «Zorionez edo zoritxarrez, hainbeste markatzen duen txapelketa batean lehendabiziko fasean kalera joatea kolpe gogor samarra izan litekeen üste horrekin abiatzen gara, eta horrek eramatzen gaitu urduritzera, tentsionatzen eta baita aseguratzen ere, agian», garatu du Sotok zergatia. Tentsioa plazek ere eragiten dute Nerea Elustondoren arabera: «Hor, salbuespen batzuk kenduta, ez gara plaza asko egiten ditugun bertsolariak. Bi-hiru

kenduta kartel bakoitzean, ez gara publiko askoren aurrean ikaragarri aritutako jendea».

Jexux Mari Irazuk ere irregulartzat jo ditu kanporaketak. Labururen ustez, «mailak» eragiten du hori, Sotok aipatu dituen pisu eta tentsioek baino gehiago. «Ohiz kanpokoak edo orain sartuko dira. Horiek beste maila bat daukate. Orduan, ofiziotan eurekin egiteak dakarrena eta eurek bakarka egiten duten ekarpena nik uste lehen fase honetan ez da goela, eta hori nabartzen dela», iruditzen zaio Labururi. «Bertsolari onak» izanagatik, kanporaketak ez direla «baterre homogeneousak» izaten esango luke Laburuk. Elustondok ez du sumatu inor ezinean, eta hori, entzule gisa, «batez ere», ona dela uste du. Kanporaketak direla azpimarratu du: «Jendeak espero du kanporaketetan BECeko maila egotea, eta kanporaketak dira».

Mailaren gainera, giroak eman die arreta Elustondori eta Miren Amurizari. Kanporaketen balorazio «oso ona» egitera darma giroak Amuriza, jende «pila bat» egon delako eta entzulea «oso emana» egon delako. «Publikoaren aldetik Villabonan sentituen jendea txalo jotzeko gogotsu, eta Legazpiko saioan ere pixka bat asmatuz gero bertsolariak, lehertu egiten zen frontoia»; sumatu zituen «bertso gosez» bertsozaleak bi saiootan Elustondok.

Penaz eta gustura, parean

«Zertarako ukatu?» bere buruari galdetuta, erantzunarekin egiten dio aurre «penaz» den Amurizak. «Zuk gauza baten aldeko apustua egiten duzunean, saiatzen zarenean eta lantzen duzunean hori, eta momentua datorrenean ez duzunean ematen zeuk esperotako emaitza, norbere buruaz apur bat



haserre, eta gero, penatuta», sentitzen da Amuriza. Aurrera egiteko faboritoetakoa zen, baina sailkatu gabekoen artean lehen postuan gelditu zen aurrera egin ezinik. Amurizak ez bezala, kanporaketetan puntu gehien bildu zuen Laburuk «oso lan ontzat» joko luke berak egindakoa, «kostako zaidana errepikatzea». «Egoera une oro kontrolatu» zuen eta «gozatu» zuen sentipenarekin da.

Aurreko txapelketan bete ez zuen helburua bete zuen Irazuk. «Aurrera pasatzea» zuen lehen helburua, eta ahal zela «saio txukun bat» eginda. «Lasai, mentalizatuta eta lana eginda joan nintzen, txapelketarako prest, eta saioarekin gustura gelditu nintzen, egia esan», azaldu du. Betiko gisara «zer hobetua» ikusi arren, «gustura» da egindakoa. Zer hobetua sortzen dio «gehia-



Kalera joatea kolpe gogor samarra izan litekeen ustearekin abiatzeak urduritu egiten gaitu»

JULIO SOTO
Bertsolaria

«Jendeak espero du kanporaketetan BECeko maila egotea, eta kanporaketak dira»

NEREA ELUSTONDO
Bertsolaria

«Espero dut entrenatzeak balio izatea orain plazetarako, ez badit balio txapelketarako»

MIREN AMURIZA
Bertsolaria

go» egin nahia Sotori. Aurrera pasatu zelako «kolore argi» horren aurrean jartzen ditu kolore ilunak: «Nire lana positiboki balioztatzen dut, baina badakit gehiago egin dezakedala, eta aurrerantzean zerbait gehiago lortu nahi badut, gehiago egin beharko dudala». Aukera «aprobetxatu ez izanaren» sentipena du alde ilunean Elustondok. «Ez nuela erabat lurreratu atera nintzen Villabonatik», dio.

Penaz da Zubia ere, baina, bere kasuan, berriz kantatu ezin izanak sortzen dio pena. «Ez pasatu ez naizelako, plaza hori egingo ez dudalako baizik», argitu du. Txapelketa lan berriak edo bestela egiten ez dituzten gauzak egiteko «erronka» izaten du Zubiak. «Horren barruan gustura erakutsi nuelako nire bertsokera zein zen edo zein izan litekeen, erregula-

33» Jexuxmai Lopetegik jazz eta swing ukituak gehitu dizkio rockari 'Errekan gora' diskoan

34» Internet sarea zabaltzearekin batera, izaera berriak bereganatu dituzte idazle anonimoeak

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Erika Lagoma eta Jexux Mari Irazu, eserita, Altsasuko kanporaketan.

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



rren ez jardun arren», agertu da gustura Zubia. Bere «aletxo» ekarri duelakoan dago Perea: «Gozatu ere egin dut horren parte izanda, eta kokatzen dut neure burua, gogotsu, bertsolari gisa aurrera egiteko». Txapelketarako bere burua «ondo kokatzeko» ariketa eginda igo zen Altsasuko oholtzara: nor zen, zertan ari zen eta zer eman zezakeen edo noraino, eta «gozatu».

«Esan nahi du bertsolari batzuk koska bat goragotik ala askeago ibili direla», ikusten du sailkapenari begiratuta Sotok. Zubia eta Labururentzat «koska bat goraxeko daudenak» ala «bereiz litezkeenak» eta, gero, «talde handi bat» ala «bigarren mailan gaude» daude, hurrenez hurren. Beñat Gaztelumendi, Irazu, Igor Elortza eta Xabier Silveira bereizi ditu Laburuk.

Bakarkakoen artean, alde

«Beharbada kartzelakotik kartzelakora alde bazegoen», irizten dio Perek. Bertsolaria jartzen zuen «tesituran» igarri du alde. Hala, «kartzelako gai batzuk errazago edo naturalago egiteko modukoak, eta beste batzuk egoera bihurrituagoak» iruditu zaizkio. Bihurrituagoak aurkitu ditu kartzelako gai batzuk Irazuk ere: «Bakarkakoe-tan egon dira, lehenengo irakurraldian behintzat, zailtasunak». Bertsolariak jende asko poztu zutenaren ahotik jardun ziren Legazpikoa «ez zen hain erraza», Irazuren ustez. «Lor zenezakeen guztia lortu duzu, baina jendeak ez dizu begirune handirik», zioen. Hendaikoak ere bazeukala «bere korapiloa» uste du: «Pauso asko dira bat-batean egiteko». Euren «nobleagoa» iruditu zitzaion. «Gaia ateratzen duzun bakoitzean, gaiak aldatzen du», egokitu zitzaion Altsasun. Kar-



Larunbatean jokatu da lehen finalurrekoa, Gernika-Lumon. J. RUIZ / ARP

tzelako gaiek «halako konnotazio negatiboa» eduki izana egin zaio deigarri Amurizari. «Kartzelan ematen du askotan kristoren dramak kantatu beharra dagoela, baina nik uste dut entzuleek eta bertsolariek eskertuko zutela besterik», azaldu du Amurizak.

Zortziko handiko abiapuntu bereko gaiekin elkarrizketak ez dituztela «ondo lantzen asmatu» sumatu du Zubiak. «Kosta egin zaigu postura bat hartzen, eta kosta egin zaigu ondo borobiltzen gai horiek», jarraitu du.

Amurizak aitortu du «inbidia galanta» pasatuko duela datozen faseetan kideak kantuan ikusita, baina bertsolaritza «hori baino gehiago» dela uste du. «Gogotsu nago plazarako, eta espero dut entrenatutako denak, txapelketarako balioko ez badit, balioko didala orain plazararako», azaldu du Amurizak. Hesiaren beste aldean «kokatzea eta gozatzea» egokitzen zaio Perekari. «Beti egin dugun bezala, horretan ez dago

nobedade handirik», gaineratu du umorez. Bertsolari gisa, «animatuta» dago aurrera jarraitzeko, eta buruan aurtengoa azken txapelketa izatea zuen arren, «beharbada», aukera beste behin edukiz gero «gustura» hartuko luke.

«Puntuazioei dagokienez, ahal baldin bada, ez gelditzea 50 puntu atzetik, baina helburua izango da zerbait uztea eta gogoratzeko moduko zerbait egitea», du finalurrekoetarako helburua Laburuk. Kontua «oso estu» egongo dela aurreikusten du Irazuk, eta, hori jakinik, «lasai joaten» ahaleginduko da. «Bertan egotea» nahiko luke Elustondok. «Oholtzan egotea, momentua gozatu eta publikoarekin ea gozatzen dugun momenturen batean behintzat», alegia. «Beldur eta mamu» guztiak uxatuta finalurrekoetan «ez dago besterik» Sotorentzat: «Arriskatu, ahal duzun guztia ematen saiatu eta gozatu».



Koldo Mitxelena Kulturunera hurbildu zaituen arrazoia edozein dela ere,

20 urte hauek zurekin ospatu nahi ditugu

Azarorako programazio berezia: kmk.gipuzkoakultura.net

20
urte

KMI
Kulturuna

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Bertsolari Txapelketa Nagusia →



Desiratutako unearren aurrean

2009ko finalean aritu ziren bertsolarietatik sei sartuko dira finalaurrekoetan. Maialen Lujanbio txapelduna zuzenean sartuko da finalean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Amets Arzallus izango da finalista izandakoetatik lehena finalaurrekoetan kantatzen; Gernika-Lumon ariko da gaur

Unai Iturriaga bihar hasiko da lehia Tolosan egingo den finalaurrekoan

Beñat Zamalloa Akizu

Eguna noiz iritsiko daude Bertsolari Txapelketa Nagusia finalaurrekoen lehen itzulian hasiko diren bertsolariak. Sei dira, guztiak 2009ko txapelketan finalean aritu zirenak: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Eguna baino gehiago, unea noiz iritsiko daude Arzallus eta Iturriaga, eguna gainera baitute: arratsaldean, Gernika-Lumoko finalaurrekoan kantatuko du egungo txapelduordeak, eta bihar, Tolosan, berriz, Iturriagak. Azken egunotan «tximeletatxo batzuk sabelean bueltak» nabaritu ditu Iturriagak: «Joan behar dugunez, datorrela lehenbailehen eta ea zer pasatzen den». «Gorputzaldi aldakorra» izan du aste osoan


Arzallusek, baina azken egunotan «lasaixeago» dago: «Onartzen duenean zure gorputzeko korapilo horrek korapiloa askatu beste erremediorik ez duela, lasai hartzen dut, gogoz».

Datorren asteburuan dute finalaurrekoa Maiak, Sarriegik, Colinak eta Mendiluzek. «Gogotsu eta eguna iristeko desiratzen» dago Colina. Aldarte berean eta bere «momentuaren» zain Maia. Tartekoa da «normal samar» aurkitzen den Mendiluzerena. Eta bestelakoa aurten lehen aldiz finalaurrekoetatik hasiko den Sarriegirena. Txapelketan sartzea «kostatzen» ari zaio Sarriegiri. Kanporaketa gehienak entzun zituen, baina «pixka bat» egon ez balitz bezala, «distantzia bategitik».

Bertsoan du motibazioa Mendiluzek. Bertsoak mugitzen eta

motibatzen du. «Gero, beste guztia inguruko baldintzak dira». Izan ere, motibazio berbera du txapelketarako eta bestelako saioetarako. Barruko «bataila pertsonalak» ditu motibazio Arzallusek: «Txapelketa har liteke lagunen arteko lehia moduan, baina, batez ere, zeure baitako lehia bat bezala hartzen baldin baduzu, zeure barruan zure bertsokeraren bila eta zure argi horien bila ibiltzean, bidea ez da sekula bukatzen». Txapelketa bera motibagarri zaio Maiari. «Berezko motibazioa» edukitzen du, eta txapelketazalea dela aitortu du. «Saltsa hau gustuko dut», esan du.

Egin nahi duena argi duela iritsi da txapelketara Colina: «Zer egin nahi ez nuen garbi neukan denbora atzean utzi, eta zer egin nahi dudana garbi daukadan bola-



Bertso jaialdia HONDARRIBIA

Itsasur Elkarteak
Azaroak 30, larunbata
21:00etan

Arzallus Egoa
Aitor Iturriaga

Itsasur Elkarteak

Itsasur Elkarteak

Itsasur Elkarteak

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

↓ Finalurrekoak

GERNIKA-LUMO

- **Bertsolariak.** Amets Arzallus, Jone Uria, Jokin Uranga, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Jon Martin.
- **Lekua.** Jai-Alai pilotalekua.
- **Noiz.** Gaur, 17:30ean.

TOLOSA

- **Bertsolariak.** Unai Iturriaga, Igor Elortza, Etxahun Lekue, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi*.
- **Lekua.** Usabal kiroldegia.
- **Noiz.** Bihar, 17:30ean.

ere bai, baina gertatuko ez balitz ez dela «ezer pasatzen» iritzi dio. Aurreko Bertsolari Txapelketa Nagusian «da-ia kanpoan» gelditu zen, eta aukera hori «da-ia janda» zeukan. «Geure buruari erakutsi diogu onenerako gutxitan garela gai eta txarrenerako gai garela oso erraz», azaldu du. Colinak ere txapelketan «ahal bezain aurrera» egin nahi du, baina ez du bere burua aseko lortzen duen puntuazioaren arabera. «Betiko indarguneei» beste bertute batzuk erantsi nahi dizkie Colinak. Horieta batzuk zerrendatu ditu: «Ertz gehiagoko pertsonaia, sentimendu eta iritziak agertzea, sinesgarritasunetik kantatzea, aldiro jarrera egokiena neureganatzea...». Hori da bere buruarekiko duen egin tratu.

Bertsoa da Maiaren asmoa ere. Txapelketatik txapelketara bere bertsokerari ezaugarriak gehituz eta ikasiz joan dela iritzi dio zumaia, eta bere egiteko modua erakustea da helburu. «Hortaz konturatzen zara jartzen dizkizuten *sanbenitoetan*: lehenengo txapelketan zinen poeta; bigarrenan zinen oso politikoa; hirugarrenean oso barregarria... Ikusiko dugu oraingoan zer garen, baina horiek denak bata besteari gehituz joatea da nire lanketa», adierazi du.

Sarriegik eta Maiak, biek aipa-

tu dute txapelketan saio oso bat egiteko nahia. «Orain arte uste dut Euskal Herriko txapelketa batean ez dudala lortu hasi eta buka saio oso bat egitea, eta gustatuko litzaidake honetan behintzat hori egitea», adierazi du Sarriegik. «Hori egin da, beste zazpi bertsolari hobe baldin badaude, mingainari koska egin eta etxera, eta, ez baldin badaude, hobeto».

Finalerako «ilusio handia» du Arzallusek. Maiz adierazi izan du prestaketa bide luzeko delako. Eta batez ere «pentsamendua eta norberaren gaien aurrean nola kokatu» lantzen ditu prestaketa. «Bertsoak baditu, nolabait, honoa eta azala. Bere hondoko sakonera hori nik uste dut etengabe gertatzen den zerbait dela eta ez duzula bi astetan zeure begiratu lantzen», azaldu ditu hondorenak. Azalarenak aipatu ditu ondoren: «Bertsotan neurtuta, errimatuta eta kantatuta egin behar da, eta orduan, azala edo forma eman behar zaio zure pentsamendu eta zure sentimenduen putzu horri».

«Gertatuko den ala ez beste kontu bat da, baina gertatzea nahi dudana gerta dadin nire eskuetan dagoena egiten ari naiz eta egingo dut», aitortu du Colinak. «Ez naiz gertatu nahi dudana gerta dadin zain egongo», gehitu du.

Klabe lehiakorrean

Maiaren arabera, «oso lehiakor, klabe lehiakorrean» dator txapelketa. «Ikusten dut oso serio hartzen dutela bertsolari gehienek eta oso prestatuta joaten direla denak saioetara», azaldu du. Teknikoki, gutxienekoak «oso altuak» direla iruditzen zaio. «Kanporaketetan badago jende bat zelanbait bere burua derrihortuta ikusten duena finalurrekoetara pasatzeko, eta beste batzuk, berriz, finalurrekoetara sartzeko ametsetan egoten dira», bereizi ditu bertsolariak Iturriagak.

Sarriegik, bestalde, entzun dituen saioetan, jende asko ikusi du «eman dezakeena eman gabe». «Agian finalurrekoetan lehertuko dira. Orain arteko saioak onak

izan dira, baina ez dut jendea ikusi bere onena ematen». Iritzi berekoa da Colina ere. Datozenak «hortzak zorrotzuta» sumatzen ditu. «Horri gehitzen bazaio txapelketa oso jendetsua izaten ari dela eta itxura guztien arabera finalurrekoetan ere betekadak izango direla, ez dago aitzakiarik», gehitu du Colinak. Saioetan bildu den jende kopurua «ikusgarria» izan da Mendiluzerentzat: «Aurreko txapelketan ere jende asko egon zen, baina honetan aretoak sekula baino azkarrago betetzen dira. Horrelako grina edo antsia bat dago».



Curriculumei begira, Murgiako da potoloena, baina horrek ez du ezertarako balio»

UNAI ITURRIAGA
Bertsolaria

«Ikusten dut txapelketa oso serio hartzen dutela gehienek eta oso prestatuta joaten direla»

JON MAIA
Bertsolaria

«Orain arte ez dut lortu Euskal Herriko txapelketa batean saio oso bat egitea»

AITOR SARRIEGI
Bertsolaria

«Gertatzea nahi dudana gerta dadin nire eskuetan dagoen guztia egiten ari naiz»

SUSTRAI COLINA
Bertsolaria

Finalurrekoetan ez dagoela saio txarrik esatean bat datoz guztiak. «Curriculumei begira, Murgiako da potoloena, baina horrek ez du ezertarako balio», dio Iturriagak. Oro har, txapelketako saioak «oso kartel arrarok» izaten direla ohartarazi du Maiak, «logika jakin bat gabe» osatzen direlako taldeak. «Alde horretatik, elkarrekin kantatzea oso ohituta ez gauden bertsolariak elkartzen gara, eta itxaropen handiko saio bat aterá behar dugu aurrera publiko handi baten aurrean», argudiatu du.

Gaurko kartelari erreparatu dio Arzallusek: «Eskolartekoetan fase hori nahiko elkarrekin pasatu genuen jendea gara. Oso gazte txotatik ezagutzen dugu elkar, bai bertsolari moduan, bai pertsona gisa. Nahiko inguruko kuadrilla tokatu zait kantatzeko. Txapelketako saio baterako konplizitate puntu horiek beti izaten dira babes». Jokin Uranga, Jon Martin eta Nerea Elustondo «oso gazte txotatik» ezagutzen ditu. Jone Uria eta Julio Soto gazteagoak dira. Gaur egungo txapeldunordearentzat, talde «orekatua eta homogenea» da Gernika-Lumokoa.

Bihar, Tolosako finalurrekoan, Iturriagak eta Igor Elortzak bat egingo dute oholza gainean. «Pozteko berria» izan zuen Iturriagak: «Beti dator ondo», dio Elortza ondoan izango duela eta. Elortza ez ezik, Etxahun Lekue bizkaitarra ere izango da oholztan. «Tolosara joan eta han gaudenon %50 bizkaitarrak izango gara. Baina Tolosak Tolosa izateari ere uzten dio pixka bat Euskal Herriko Txapelketan», iritzi dio. Iñigo Mantzizidor *Mantxi*, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu izango dira saioko beste erdia.

Sarriegirentzat, «aurrena eta azkena egiteko modukoa» da Oizartungo kanporaketa. Maiak ondorioztatu du «gehiago ala gutxiago» denek plazetan kantatzen dutela eta ofizioa duten bertsolariak direla. Beñat Lizaso, Agin Laburu, Alaia Martin eta Odei Barroso dira gainerakoak. «Estiloz ere esango nuke denetarik dagoela», esan du Maiak.

Iturriagak aipatutako Murgiakoan, Mendiluzek eta Colinak kantatuko dute, eta Fredi Paia, Beñat Gaztelumendi, Xabier Silveira eta Unai Agirre izango dituzte oholzakide. Hitz bakarrean deskribatu du saioa Mendiluzek: «Aniztuna». Colinak dioenez, «kolore askotako» bertsolariak batuko dira saio horretan. Pozten duen alderdi bat aurkitu dio: «Bost bertsolari horiekin beti dago baloia jokoan, eta, baloia jokoan dagoenean, jolastea beti da errazagoa. Hori hala, badakit existentzia handiko saio bat izango dela».

da batean nago». Bolada horretan, uste du orain arte egindakoa «asentatzeko» aukera izan duela, eta baita orain arte landu eta garatu ez dituen esparru batzuk «esploratzeko» ere. Maiak ez du planteatzen txapelketa «oposizioak egitera balihoa» bezala, baizik eta «autore» gisa: «Ahal dudan guztia, nire bertsokera guztia hor plazaratu ahal izateko helburua da nirea». Bestalde, txapelketan bere burua kokatzeko orduan «mahastuta» ibili da Sarriegi. Egoerak «kontrolpean» edukitzea gustatzen zaizkio, eta «kontrolpetik alde egindako gauza baten moduan» hartu du orain arte Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Nahiak eta ekinak

Guztiak nahiko lukete abenduarren 15ean Barakaldoko BECeke oholztan kantatzea. Iturriagak

LINGUA NABAJORUM

EUSKARAREN HISTORIA TXOROA

Patxo Telleria eta Mikel Martinez-ek antzeztua

BILBOKO ARRIAGA ANTZOKIAN

AZAROAK

12 eta 13

20:00tan

MAX SARIA
2013

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Goragoko neurri batean

Amets Arzallusek alde handiarekin irabazi du lehen itzuliko aurreneko finalaurrekoa Gernika-Lumoko Jai Alai pilotalekuan

Gora egin du bertsolarien mailak eta bertsozaleen giroak; 1.500 lagun bildu dira

Beñat Z. Aktzu Gernika-Lumo

Beste neurri bat hartu zuen atzo Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Saioak gora egin zuen kalitatean, eta giroak ere gora egin zuen. 1.500 bertsozale izan ziren ohol-tzan zeuden Amets Arzallus, Jokin Uranga, Jone Uria, Jon Martin, Julio Soto eta Nerea Elustondo bertsolariek zer emango. Beste neurri bat eman zion txapelketari Arzallusek berak, eta alde zabalez irabazi zuen. Ideietan, joskeran eta zuzentasunean, denean, nabari zitzaion koska bat gorago zegoela. Gainontzeoak beheragotik jardun arren, ertz gehiagoko bertsoaldiak utzi zituzten.

Ertz gehien izan zituzten ofizio-etan kantatu zuen Uriak. Ideia politak utzi zituen ofizio guztietan, baita finen aritu ez zenetan ere. Zortziko handian Elustondorekin kantatu zuen. Lehen aurkezpenean, rola jan zuen Bernar Mandaluniz aurkezleak, baina bigarren irakurraldian zehaztu bazien ere, ez zuten alboratu utzi garapenean. «Kale-garbitzaileak dira Jone eta Nerea. Gaurko greba-deialdian gutxieneko zerbitzuetan lan egitea egokitu zaie», aurkeztu zien gaia osorik.

↓ Saikapenak

GERNIKA-LUMOKO SAIOA

1. Amets Arzallus	717
2. Jokin Uranga	657,5
3. Jone Uria	653
4. Jon Martin	640,5
5. Julio Soto	639,5
6. Nerea Elustondo	633,5

GAURKO SAIOA

■ **Bertsolariak:** Unai Iturriaga, Igor Elortza, Etxahun Lekue, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iñigo Mantzidor Mantxi.

■ **Lekua:** Tolosako Usabal kiroldegia. ■ **Ordua:** 17:30.

«Ustez zerbitzu minimoekin / ona egin dute obra / ohartu gabe eurak direla / gizarte honen zaborra», bukatu zuen bigarren Uriak. «Ipini zara poltronetako / zabor pilari begira / guk errefusztat tratatu arren / berziklagarriak dira», bota zion erantzunean Elustondok. Eta ironiaz borobildu zuen lana. «Ta babes gabe gera ez dadin / gure kide denen greba / egin dezagun iraultzatxoa / goazen kafe bat hartzea».

Uria eta Elustondoren aurretik



Jokin Urangak eta Amets Arzallusek lortu zituzten puntuaziorik onenak atzoko saioan. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

aritu ziren Martinek eta Arzallusek zuzen osatu zuten ariketa. Nahasia izan zen, berriz, Sotoreñ zortziko handikoa, eta estu ere aritu zen zenbaitetan. Urangak eutsi zion, eta gaiak kokatu zituen gai sozialaren aurrean, hainbat salaketari indarra eman zien bertsotan.

Arzallus lehen aldiz osoen eta goren zortziko txikikoan jardun zen. Uriarekin egokitu zitzaion. «Amets artzaina da. Bere artalde etxeratzen ari dela, bidean Jone autotik klaxona jotzen hasi

zaio erotu beharrean», zuten egoera. «Turismo bide ona / ez duzu ba hauta / hemen lehenasuna / artaldeak dauka», bukatu zuen aurrenekoa Arzallusek. Bigarrenean ere ideia freskoak izan zituen Uriak: «Lehenasunez ez zaitez / zu jarri erreta / ardiei koro egiten / ari nintzen eta», bota zion. Zirtoka jarraitu zuen bigarren bertsoan bertsolari bizkaitarrak. «Ostras, antza baduzu / beiratuta ondo; / Urepeleko artzaia / ez zara izango?», izan zuen ideia, orduan. Goitik behera eta bikain

borobildu zuen bertsoaldia saio-ko irabazleak: «Tira, artzai txakurrai / hasi baimen eske / buzta-na makurtu du / pasatu zaitezke».

Jon Martin eta Jokin Uranga azken bertsoetan ziren gaiari bidea topatu ziotenerako. Sotok eta Elustondok ere ez zuten hari argirik izan, baina tarteka bota zituzten gaiari lotutako erreferentziekin zenbait puntu umoretsu.

Gizarteko gaiak izan ziren lehen puntuetako gehienak. Batean erantzuteko eta kolpez

AZAROAK 14 > OSTEGUNA

“BELARRIAK SOINU”, JOSEBA TAPIAREN HITZALDIA USURBILÉN ORDUA: 19:30 POTXOENEAN DOAN

AZAROAK 15 > OSTIRALA

“IZENIK GABE, 200x133”, JOSE LUIS ZUMETAREN DOKUMETALA ORDUA: 19:30 USURBILGO SUTEGIN GONBIDAPENAK NOAUAÍN ETA POTXOENEAN

AZAROAK 17 > IGANDEA

“AGUR ESATEA” FILMA IZASKUN ARANDIA ORDUA: 19:00 USURBILGO SUTEGIN. SARRERA: 5€ (NOAUAÍN ETA TXIRIBOGAN ALDEZ AURRETIK, LEIHATILAN EGUNEAN BERTAN) BAZKIDEEK 3€ (SOILIK NOAUAIKO EGOITZAN, ETA ALDEZ AURRETIK EROSI TA)

32» Vulpess taldearen kontzertuarekin hasiko da bihar zentsuraren kontrako jaialdia Bilbon

34» Balea arrantzaren gaineko ikuspuntu aborigena islatu du Kim Scott idazleak

Bertsolari Txapelketa Nagusia

erantzuteko zenbait puntu zail ere izan ziren tartean. Urangak izan zituen estutasun handienak. Urdaibai izan zuen gai, eta azken bertsoan *mapan* oina ere ez zitzaion erraza egin. Lehen puntua emandakoetan Elustondoren hirugarren bertsoa izan zen finena. «Lagun asko al duzu / zure inguruan?», galdetu zion Mandalunizek, eta hala erantzun zion Elustondok: «Batzutan duda ere / badaukat buruan / baina euren beharra / daukadan orduan / euren parekorikan / ez dago munduan».

Aurreko bi eginbeharretan estuago ibili ostean, sei puntuko motzean berreskuratu ahal izan zuen maila Urangak. Uria zuen kantulaguna, eta honakoa zuten gaia: «Duela hiru urte banandu ziren Jone eta Jokin. Azkenaldian asko egoten dira elkarrekin. Jokinek Joneri proposatu dio berriz elkarrekin bizitzeko saiakera egitea». «Utzi libre maitasuna / alde daukagu, kuttuna / egin genituen akatsetatik / ikasi duguna», kantatu zuen Urangak aurrena. «Egina mila alditan / lehenago egona kinkan / ikasi eta beste batzukin / jar zazu praktikan», erantzun zion bigarreanean, *kinkan* ekartzeko kinkan egonda. «Maite zaitut' esatea / eta muxu ematea / onartu ez arren zuk ere horixe / nahi duzu maitea», bukatu zuen Urangak.

Neurrikioa zuen doinu berrian egin zuen kartzelakoa Arzallusek. Kanporaketetakoan aldean, desberdina zen kartzelako gaia: «Denbora daramazu zure eskuei begira». Bertsoaldietan eragin zuen: ez ziren narratiboak izan. Eskutik abiatu zen lehen bertsoan: «Zeuzara nire erakarmena / ta zeu nire nagusia. / Orain laztan, orain keinu bat / eta gero igurtzia. / Bost behatzotan ez da kabitzen / nire maitasun guzia». Maitasune-



Jai Alain bildutako bertsozaleek gozatu egin zuten atzoko saioa. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

tik gorrotora egin zuen bigarrearen azkenean ezustean: «Hemen ari naiz nire burua / madarikatzen, epaitzen / zaplasteko bat emateraino / nola ailegatu naitzen». Barkamenez bukatu zuen: «Hara, hitzxo bat esku honetan / idatziko dut, 'barkatu'; / nahi ez baduzu utzi ezazu / eta nahi baduzu, hartu».

Sotok kartzelan eman zuen onenetik. Parkinsona zuela irudikatatu zuen. Hala bukatu zuen: «Apurka-apurka gaintutuz noa / hasierako batxea. / Zer da bizitza nahi ta bizitza dardarti? / Guztia lasai hartzea. / Ta holakotan gaitxotasuna / onena da onartzea; / ta onena dut begi pareta / ahaz dezadan oina; / eskuetatik altxatu eta / aurrera begiratzea».

Amet(s)e)i segika



Analisia
Gorka Azkarate

Arratsalde euritsua, barrurako aproposa. Gernika-Lumoko Jai Alai pilotaleku handi bezain bildu eta goxoan, jendetza bertsoaren arrastoari segika. Oholtzan, berriz, sei bertsolari, egungo azpitxapeladuna, Amets Arzallus, tartean. Guztiak ilusioz, nor bere ametsi segika. Saio osoan zehar, koska bat gorago ikusi genuen Arzallus, Barakaldon kantatzeko ez ezik txapelerako hautagai garbia dela baieztatuz, inork zalan-tzarik baldin bazuen.

Saio ederra izan zen atzokoa, eta bertsolari guztiek egin zuten nabarmetzeko bertsoaldiren bat baino gehiago. Bertsozaleak ere txaloak jotzeko gogoz, bukaerako puntuei adi, errimak eta tarteka baita lerro osoak asmatu eta koruan kantatuz. 8ko nagusian txapelketa honetan orain arte entzun diren saio borobilenetakoak entzun ziren atzo Gernikan, eta horrek ere entzuleria kokatu eta tenplean jartzeko balio izango zuen, noski. «Tamainan hasi da saioa», bertsozaleon buruetatik pasatu baina esaten ez diren gauzak.

8ko txikian Arzallusek eta Jone Uriak artzainaren eta artalde parean daukala eta aurrera egin ezin duen auto gidariaren paperetan, hurrenez-hurren, egindako bertsoaldia, bertsolari lapurtarraren irudiak ekartzeko gaitasunaren adibide garbia izan

zen. Hiru bertso, hiru ateraldi eder, bigarren bertsoan Uriari zuzenean erantzunez, gainera. Kartzelako lanean ere, eskuei begira, hiru bertso antologiko kantatu zituen, irudi metaforikoei erreparatuz behintzat, egindako lanari zigilua jarritz. Eskuak, laztantzeko. Eskuak, zaplaztekoa emateko. Eskuak, barkamena eskatzeko. Horixe bai, gai zabala estu hartzea!

Aipagarria, ariketa berean Jokin Urangak egindako bertsoaldia. Azpeitiarrak zukua atera zion aukeratu zuen bideari, sinesgarritasun handiko bertsoaldia osatuz. Luze jardun ginen pasaden astean, Berria TB-k antolatutako mahai-inguruan, sinesgarritasunaren kontuaren inguruan solasean, eta neronek Urangaren bertsoaldi bat hartu nuen, besteak beste, adibide (ez oso positibo, nire iritziko) gisa. Atzokoan erabat harrapatu ninduen kartzelako

bere hautuak, baita (esango nuke) bere bertsoak luze txalotu zituzten gainerako bertsozaleak ere. Hautu egokia egiteak zenbat balio duen. Edonola, kartzelako ariketa baino lehen ere oso goitik aritu zen bertsoaldi ia gehienetan Uranga. Amets egiteko moduan da, Jone Uriaren moduan. Algotarra patxadatsu aritu zen, oso seguru. Atzerago sailkatu ziren Jon Martin, Julio Soto eta Nerea Elustondo, puntuetan alde handirik izan ez bazen ere (Arzallus salbu, noski). Martinek eta Elustondok egindako akats puntualak garesti ordaindu zituzten puntu bana-ketan. Sotok, berriz, ez zuen akats puntual nabarmenik egin, baina saio osoan zehar kostatzen egin zitzaion bere burua aurkitzea. Denok baitugu, izan, amets egiteko eskubidea. Amets horiek egi bihurtzeko gai izatea, ordea, beste kontu bat da...

Hitzak.

Igo SARIA
"XVI. Certamen Nacional Directoras de Escapa"

Klara Badiola, Itziar Ituño, Ane Pikaiza eta Jabi Barandiaran, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

ARRASATE. Amaia Antzokia
azaroak 10 // 19:30ean

ZUMAIA. Aita Mari Antzokia
azaroak 15 // 22:00ean

berria

Antolatzaileak: Euzko Antzerkiaren Topagunea

Babeslea: BFA

Laguntzaileak: berria Zaila

UDA GOIENENKO

OSTERA

OSKORRI GABRIEL ARETI BISITAN

ZALLA, ZINE ANTZOKIA

Azaroaren 16an, zapatua, 20:00etan
Sarrera: 8 €

Sarreren salmenta

berria Zaila

Antolatzaileak: Euzko Antzerkiaren Topagunea

Babeslea: BFA

Laguntzaileak: berria Zaila

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Igor Elortza ◊ Bertsolaria

«Sentipen onak» ditu Igor Elortzak, txapelketako bigarren finalaurrekoaren irabazleak. Gustura jardun zuen Tolosan. «Tentsioarekin, baina konfiantzarekin» oholtzaratu zen, eta azkenaldian ez bezala aritu zen.

«Ez dut neure burua ez zigortu, ez laketu, ez antzeko ezer»

Beñat Zamalloa Akizu Durango

Azken Bertsolari Txapelketa Nagusian ez bezala kantatu zuen igandean Igor Elortzak (Durango, 1975), Tolosan. Aurreko txapelketan finalerako aukera galdu zuen oholtza berera «horri buelta emateko intentzio osoz» igo zen, eta hala asteburuko emaitzarik onena erdietsi zuen.

Nola jaso zenuen emaitza?

Ondo. Lasai nengoen. Egia esan, kartzelara joan ginenean, ofiziotan-eta eroso sentitu nintzen, ondo egin nuen bertsotan arinago, goitik ere tenperatura hartzen diozu saioari, eta ondokoak diotsunaren arabera berresten duzu ala ez. Bai Etxahunek [Lekue] eta bai Unaiak [Iturriaga] ere esaten zidaten aurretik eta alde politaz joango nintzela. Hala ere, kartzelara irten nintzen ahal nuen eta onena egitera. Hori dena egin eta gero, trankil nengoen. Ez ninduen lar arduratzen zenbakiak. Hala ere, bezperan Ametsek 717 aterata, 722 entzuten ditzunean, oraindik eta hobeto.

Zure bertsokera dotorea dela aipatu izan da behin eta berriro. Zerk esango zenuke egiten duela hala izatea?

Niri bertsorearen alde estetiko asko gustatzen zait, baina ez bertsorearen bakarrik. Musikan, literaturan, zineman... zer gauza gustatzen zaizkidan konturatzen naiz, eta ez dut uste kasualitatez gustatzen zaizkidanik. Niretzat mamia eta azala batera doazen gauza bat dira, eta gustatzen zait hori lantzea. Lantzea, baina ez modu efektista batean. Suposatzen dut hortik etorriko dela.

Unai Iturriagak potu egin zuenean burua makurtu zenuen. Mina eragin zizun?

Ba bai. Unai bertsotan seguru ikusi nuen. Arinagoko zalantza-zako potu bat hor zegoen; hala ere, ondo entzun nuen bertsotan.

Etxahunen bakarkakoa entzun nuen, eta gustatu zitzaidan. Gero, pentsatu nuen Unairentzat gai ona zela. Gainera, uste dut ondo hasi zela eta ondo hartu zuela. Justu azkeneko bertsoan, *muxu* berbarekin oso distantzia laburrean egin zuen, eta hor momentuan esan nuen: «*kauen la letxe!*». Potoarengatik baino gehiago, pentsatu nuelako lehen ere zalantza-zako bat egonda, poto batekin aukerak zaildu egiten zitzaizkiola; nahiz eta orain ia seguru bigarrena pasatuko den, eta aukerak hor dauden.

Zure txapelketako ibilbidea Bizkaiko Txapelketarekin aspaldi hasi zela esan izan duzu. Batetik bestera ia urtebeteko aldea egonda, nola lotu dituzu?

Hemen egoteko derrigor egon behar nuen Bizkaikoan. Orduan, derrigor lotzen dira. Iaz, Bizkaiko txapelketan, errimak batuan landu nituen; nahiz jakin Bizkaiko txapelketan bizkaieraz egingo nuela. Burua aurtengoan neukan. Azkenean, dena lotzen da zer edo zelan. Iaz, nahiz eta buruak agindu, benetan grina sortzea kosta egin zitzaidan. Iazko lana hor zegoen, eta, aldi berean, lanean zabiltzanean, igartzen ditzunean beste gozamen eta grina batekin zabiltzala, konturatzen zara bide onean zoazela.

Lekuz kanpo sentitu zara une batzuetan?

Ez. Horretan ez dut neure burua ez zigortu, ez laketu, ez antzeko ezer. Pasatu nuen aldikada goibela orain dela lau urte, eta hortik aurrera kito: «Hauxe da dagoena, eta nagoen lekuan nago».

Bertsotarako lehen bezala zeundela kantatu zenuen, zeuretik egin zenuen Legazpiko bakarkakoan. Azkenaldikoa baino garai hobeak izan zenituelako bota zenuen?

Bai. Bizkaiko txapelak, Euskal Herriko final bi jokatu...

Agian, gehiago bai, txapelketako emaitza aldetik. Egia esan, ni plazan azkeneko urteetan oso gustura ibili naiz. Aurrekoan finaletik kanpo geratu aurretik erabakita nuen sei hilabetetan ez nuela bertsotan egingo, bigarren alaba jaiotzean. Gero, berriro hasi nintzanean beste leku batean nengonez, nahiko modu kontzientean planteatu nuen pare bat urtean beste nasaitasun batekin jardutea. Kontziente izanda horrek lagunduko zidala inertzia batzuk kentzen. Akorduan daukat pare bat urtean nahiko jakinaren gainean ibili nintzela horrela. Nahiz eta iaz grina falta bat eduki, bazen berriro hastera bertsokera zorrotzagoa fintzen eta lantzen. Banekien ez nintzela zerotik hasten, baina bai ertz horiek kenduta eta gero, beste batzuk topatzen.

Arrazoi pertsonalak aipatu izan di-



tuzu txapelketako beharaldia azaltzeko. Bertsoari lotutako arrazoirik ere izan duzu?

Bai. Egia da momentu hartan, ez bertsotan gaitasun aldetik, baina egin gura nuenaren aldetik, momentu lauso nahasi samar batean nengoen. Unai eta biok gentozen Gu Ta Gutarrak egitetik, urte eta erdi batean plazan nahiko gutxi ibilita. Gainera, Gu Ta Gutarrak zenarekin —bertso jarriak musikariekin— erantzun oso ona topatuta. Oso-oso asegarria zen. Bertso jarriek zehaztasuna ematen dizute, zein gairen inguruan egin nahi duzun, eta abar. Plazara bueltatzea gaitza izan zen. Hor

pixka bat lekua topatu ezinik ibili nintzen. Horrelako momentu batek harrapatu ninduen orain dela lau urte.

Nolakoak izan dira lau urte hauek?

Nik lau urte hauetan saio dezente eduki ditut, eta saio politikak: jaialdi onak... Alde horretatik, estimatua sentitu naiz. Egia da txapelketa txapelketa dela eta horren arabera denon buruan sailkapen bat finkatzen dela. Baina, zorionez, nahiz eta txapelketak sekulako presentzia mediatikoa daukan, gero, urte osoko bertso ibilbideak esango nuke dezente gainditzen duela txapelketaren ezinbestekotasun hori.

Ez dute aulkirik jarri nahi



Analisia

Josu Goikoetxea

Pasa den astean, final-laurdenetako kartelak finalaurrekoekin erkatu nituen, denbora-pasa, bertsolarien izenak aztertu nituen, eta neure baitarako esan nuen, «meh, ez dago ba hainbesteko alderik, eta ez dut uste hainbeste igarriko denik fase batetik besterako igarotzea».

Ni naiz Beñat Gaztelumendi

bakarkakoan «agian» gaitik kanpora ibili zela idatzi zuen hura. Zergatik asmatu behar nuen oraingoan?

Klaro igarri dena. Eta nola gainera. Bi arrazoiengatik: final laurdenetatik sailkatu diren bertsolariak koska bat gorago egin dutelako beren jardunean, eta finalista biek (Arzallusek eta Iturriagak) balio erantsia eman dietelako bi saioei.

Tolosan denen buru, bertsolari txundigarri bat: Igor Elortza. Birkain zortziko handian, txikiko hasieran, puntuei zailei erantzuten, seiko motzean eta, ai, bakarkako lanean. Irakurri itzazue entzun ahala. Istorio txiki baten deskribapen handia, bera (Elortza aita)

bertsoan sartzeko birgeria eta guzti. Finalean da Elortza (ejem), aurreko txapelketako hutsa konponduz eta, nik uste, inoiz egin duen finalik onena egiteko aldar-tearekin.

Zoragarri Mantxi, baita Elortzarekin ere. Izan ere, Mantxiren bertsoek egin zituzten handi Elortzarenak. Haren bertsoen goi-arnasari heldu beharrean, Mantxik lur azalean jokatu zuen. Imaginatzen biak aritu izan balira gauza handiak esaten? Aizue, ume batez ari zaretela! Bakarkakoan, istorio ederra ondu zuen zarauztarrak. Ohar bat halere, Mantxi eta gainerako bertsolariok: ken ezazue «bezero» hitza zuen errimategietatik, mesedez.

32» Malenkonia taldeak 'Homo homini lupus' diskoa atera du, lan «gordin eta ezkorra»

33» Txalapartaren oinarriak eta hang musika tresna uztartu ditu 'Bi-hotz' egitasmoak

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Iñigo Mantzizidor 'Mantxi'-k bigarren egin zuen Tolosan jokaturako finalaurrekoan, txapelketaren tentsioak baztertuta, beretik eskainita.

Galtzekorik gabe

B. Zabalhoa Aktzu Tolosa

Behin horraino iritsita, bertsozaleak zituen irabazteko Iñigo Mañtzizidor, *Mantxi*-k 1.700 bertsozale zituen plazan, jasotzeko eta txalotzeko gogotsu. Aurrera egiteko tentsiorik gabe, galtzekorik gabe ohol-tzaratu zen, eta horrek bere txukunena eskaintzera eraman zuen ariketaz ariketa. Emaizta ekarri zion bueltan: epaileena eta entzuleena. Bigarren sailkatu zen. Aurretik Igor Elortza izan zuen, koska zabalera. Azken Bertsolari Txapelketa Nagusian finalerako aukera galdu zuen ohol-tza berean zen, baina, igandean, prestatuago eta zentratuago, tonu egokia hartu zion bigarren finalaurrekoari. Tonua hartuta, ohi izan zuen bertsoera dotorea berreskuratu zuen, kartzelan batez ere.

Galtzekorik gabe zen Etxahun Lekue ere, eta Oiongo kanporaketako orekari ertz gehiagoko eta finagoko bertsoak erantsi zizkion.

Entzuleengana ere gehiago iritsi zen. Unai Iturriagak lortu zuen puntu kopuru berarekin bukatu zuen saioa Lekuek. Iturriagaren umoreak eta ironiak berotu zituen entzuleak, eta txukun jardun zuen. Lehen puntua emandako bigarren bertsoan eta kartzelako azkenekoan poto egin zuen, eta horrek puntu beherakada handia ekarri zion.

Jexux Mari Irazuri ez zitzaion erraza egin zortziko handiko gaia, eta ez zuen saioari tonua hartzeko lehen lan horretan abaila hartzerik lortu. Tarteka ale bikainik utzi zuen, zortziko txikiko aurrenekoa kasu. Irazuk baino puntu erdi gutxiagorekin izan zen azkena Amaia Agirre. Saio orekatua egin zuen, baina gainontzekoek baino apalagoa. Dena den, entzuleengana iritsi zen, kartzelan genero indarkeriaren bidetik hartuta. Irazuk eta Agirrek datorren asteburuko finalaurrekoak jokatura jakingo dute aurrera egingo duten.

↓ Sailkapena

1. Igor Elortza	722
2. Iñigo Mantzizidor	667,5
3. Unai Iturriaga	649
4. Etxahun Lekue	649
5. Jexux Mari Irazu	638,5
6. Amaia Agirre	638

OROKORRA

1. Igor Elortza	722
2. Amets Arzallus	717
3. Iñigo Mantzizidor	667,5
4. Jokin Uranga	657,5
5. Jone Uria	653
6. Unai Iturriaga	649
7. Etxahun Lekue	649
8. Jon Martin	640,5
9. Julio Soto	639,5
10. Jexux Mari Irazu	638,5
11. Amaia Agirre	638
12. Nerea Elustondo	633,5

*Bigarren fasera sailkatuak

■ **Hurrengo saioak:** Hilaren 17an, Oartzungo Elorsoro kiroldegian; 18an, Murgiako Palatu kiroldegian. 17:30ean biak.

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Txapelketetan emaitza onik lortzen ez duten dezentek egiten dute saio asko. Alde horretatik, ez naiz sentitu gutxietsia.

Finaletik gertuago egoteak lasaitzen zaitu?

Bai, jakina. Deskalabru handiren bat pasatu beharko litzateke, egia esanda, baina bai. Edozelan ere, ez da nire kezka ez finalean egotea edo finalean ez dakit zer egitea. Nire kezka gehiago izan da atzo egin nuena egitea. Aurrera begira, nire kezka ere hori izango da. Ez nuke jausi gura 722 puntuak modu seguru edo espekulatiboan neurtzen ibiltze batean. Gurako nuke oraingoz ustezkotzat jotzen

dudan nasaitasun hori erabiltzea libreago onena emateko. Atzo bota nuen onena baino bertso hobe bat botatzea errazago ikusten dut, atzo egin nuen saioa oro har hobetzea baino.

Atea zabalik utzi zenuten Gu Ta Gutarrak-ekin bukatutakoan. Zenbateraino dago zabalik?

Atea zabalik dago. Nik oso gustura egingo dut, egiten badugu. Horrelako gauzek bere momentua behar dute, eta, bere momentua heltzen denean, denbora ere bai. Ikusiko dugu, baina egia da txapelketa hau bukatzen denean nik horrelako gauzetarako daukadalagooa.

Sorpresa hartu nuen Unai Iturriagaren hirugarren postuarekin, bi poto (eta erdi) egin zituela pentsatu bainenuen. Oker nengoen, baina puntu erantzunetan zigorra jaso zuen. Lan guztiak, kartzelara arte, ezin hobeto egin zituen, bereziki aipatutako seiko motzekoa. Beste saio bat du, eta haserretuko zait, baina hemendik eskatu behar diot bakarkakoan berriz habaneran ez kantatzeko: «Gimme more, brother».

Lekuerekin (eta Agirrerekin) gauza bat gertatu zitzaidan: formulazioaren eta nire belarri txarraren erruz, ez nuen ondo ulertu seiko motzeko gaia eta pentsatu nuen gaitik kanpora aritu zirela. Orain Lekuerekin lana berraztertuta ikusten dut gauza oso onak egin zituela, txikiko lehen bertso zoragarrian, puntu erantzun zailetan eta kartzelako lanean.

Azkenik Irazu eta Agirre. Nik egia esan, gorago nuen Irazu: bereziki gustatu zitzaidan zortziko handian egokitutako gai zailarekin erakutsi zuen jarrera. Txikian indartsu Iturriagarekin, eta puntada onak emanez mainontzin, nahiz eta ez biribildu.

Amaia Agirre, berriz, pixka bat kanpo ikusi genuen. Ondo hasi zen, baina pixkanaka itzaliz joan zen, burua beste norabait joan izan balitzaio bezala. Eta hala zen, seguru. Musu bat.

Amaizteko, Inazio Usarralde zoriontzear gain, esan behar diot gai-jartzaile taldeari pixka bat fin du behar duela gaien formulazioa. Eta ez naiz soilik ulertu ez nuen gaiaz ari. Barkatu hala esatea.

Eta bagoaz, badoa txapelketa, hartu du abiadura, eta honezkero ez da geldituko.

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

FINALAURREKOAK

OIARTZUN

Elorsoro kiroldegia
Azaroak 16, 17:30ean



MURGIA

Palatu kiroldegia
Azaroak 17, 17:30ean



ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA



berria

www.bertsozale.com

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Publikoarengana iristeko garrantzitsutzat jotzen dute kantaera bertsolariek, baina ez dute uste inportanteena denik

Lehen itzuliko azken bi finalaurrekoetan hainbat kantaerek egingo dute bat

Beñat Zamalloa Aktzu

«Bertsoaren aditza *bota* da, ez da *kantatu*. Normalean, *kantatu* esaten da, baina bertsoa *bota* egiten da», hausnartu du Fredi Paiak. Gibelurdinek taldearekin kantuan ere aritzen da, eta Bertsolari Txapelketa Nagusian eta plazatan botatzen. Aldea nabari du kantatetik botatzera. Botatzerakoan, kantaerak laguntzen duela uste du, baina hori ez dela «garrantzitsuen». Odei Barroso ere iritzi berekoa da: «plus» bat dela iritzi dio, eta bere garrantzia baduela jendearengana iristeko orduan. Paiak plater baten aurkezpenarekin alderatu duen bezala, Amaia Zubiria kantariak produktu on bat itxura oneko paper batean hobeto saltzen dela dio. Hala eta guztiz ere, bera ere Barrosoren eta Paiaren iritzi berekoa da: kantaera ez da inportanteena. Bertsoaren kasuan jendearen belarrira iritsi «beharra» dagoela zehaztu du Unai Agirrek.

Harrobia publikoarengana heltzeko «kanala» dela ohartarazi dute Barrosok eta Jon Maiak. Gaur kantatuko dute biek Oiarzungo (Gipuzkoa) finalerdian. Barrosok «garrantzi handia» ematen dio uste duelako kantatuz «transmititzen» dutela erraten duten hori. «Zure hitzei aire bat edo interpretazio bat ematen die. Bertsoaren DNAaren parte da. Bertsolaritza, gure ahozko literatura, ez da ulertzen kantatua ez bada. Ez litzateke bertsoa», garatu du Maiak. «Erdaldunekerreferentzia hori bakarrik dute», gaineratu du Paiak. Bihar kantatuko dute Paiak eta Agirrek lehen itzuliko azken finalaurrekoan, Murgian (Araba).

Melodia, aukeratzen duen doinua, lerro bakoitzak eskatzen dion intentsitatea, eta testuaren

araberako doinuaren interpretazioa, kontziienteki egiten du Maiak. Alegia: «Esaten ari naizena-rekin koherentea izatea, esaten dudaren tonua, abiadura... Testua eta doinua ahalik eta bat eginena eramatea». Barroso, doinuak aukeratzerakoan, bere kantaerari lotuago doazen doinuak hautatzen saiatzen da. «Egoki edo gusturago» kantatzen dituen doinuetan abesten saiatzen da; ofiziotan denean, bertsolagunak uzten baldin badu. Barnetik, ahots hauskorrez kantatu ohi du, eta txapelketa honetarako Villabonan erabili zuen doinua egin zuen duela zenbait hilabete: «Pixka bat nire kantatzeko maneratik hurbil». Doinuak dira Agirrerren «gako» ere. Kantaera kartsua da Agirrerena. Txapelketako kantaera berezietako bat du. Doinuen «abaniko zabale» jotzen du horretarako. Gai nontzean, «senak» esaten dion moduan kantatzen saiatzen da. «Horrela ohitu naiz plazan», dio.

Nabardurak egiten ahalegintzen da gehienbat Paia, kantaera

↓ Finalaurrekoak

OIARTZUN

■ **Bertsolariak.** Jon Maia, Aitor Sarriegi, Agin Laburu, Alaia Martin, Beñat Lizaso eta Odei Barroso.

■ **Lekua.** Elorsoro kiroldegia.

■ **Ordua.** 17:30.


MURGIA

■ **Bertsolariak.** Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Xabier Silveira, Unai Agirre eta Fredi Paia.

■ **Lekua.** Palatu kiroldegia.

■ **Ordua.** 17:30.

'Bota' da aditza



Fredí Paia, joan den irailaren 29an Villabonan jokaturako kanporaketan kantuan. JON URBE / ARGAZKI PRESS



LINGUA NABA JORUM

AZAROAK 17, 19etan

BERRIOZARKO ENTZUNARETOAN

(Euskal Herria plaza)

Txartelen salmenta egun berean,

18:00etatik aurrera (4 euro)

Antolatzailea: Berriozarko Udala

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

«ahalik eta ondoena» egiten. 16 urterekin era kontzientean aldaketa bat izan zuen. Bertsotan ikasi zuenean, bertsotarako teknika zaharrarekin abesten zuten. «Gaur egun, [Iker] Zubeldiak eta beste batzuek mantentzen dutena: sudurreko kantaera. Adineko bertsolari denek egiten dute sudurreko kantaera hori», azaldu du. Teknika bat dela argitu du, eta Korsikako kantuekin lotuta dagoela, besteak beste. Mikrofonorik ez zegoenean, jende askoren aurrean aritzeko erabiltzen zen. Baina mikrofonoarekin etorri zen aldaketa. «Ni, behintzat, 16 urterekin konturatu nintzen sudurreko kantaera hori egiten nuenean nire adinekoek barre egiten zidatela. Barregarria zen bertsolariaren kantaera nire adineko jendearentzat. Orduan, aldatu genuen kantaera».

Lehengoak ez ziren hobek

Zubiriak uste du garai bateko bertsolarien artean «bat edo beste» izaten zela «kaskar samarra», baina gehienek «ondo» kantatzen zutelara eta hori transmititu egiten zela. Hori ulertzeko gakoak eman ditu Paiak: «Normalean, kontuan hartu behar dugu kantaera bat bere heldu arora 40 urterekin heltzen dela, pertsonak adin inguru hori duenean». Hori dela eta, kontuan izan beharrezkotzat jo du lehen hobeto kantatzen zela esaten denean lehen adineko jendeak abesten zuela. «Gaur egun, gazteek kantatzen dute».

Ahotsaren erabilera «gakoa» izanik bertsoaren komunikazioan, bertso eskoletan ez dela «behar beste» lantzen iritzi dio Maiak. «Azkenean, bertsolari batentzat, inportanteena da ahots partikularra edukitzea, biezintzat: batetik, diskurtso propioa eta pentsaera propioa, besteengandik bereizten zaituena; eta bestetik, ahotsa literalki, zure kantatzeko era edukitzea», azpimarratu du.

Bertsotarako orduan ahotsak ez duela «gehiegi» baldintzatzen ondorioztatu du Zubiriak: «Zuk sinesten baduzu egin nahi duzun hori dela». Bertsoak beste «lehentasun» batzuk omen ditu. «Bada mezua, bada hitza, hitzaren poesia, badira mila gauza ahotsera ailegatu baino lehen»; hala zerrendatu ditu batzuk, «milaren» artean.

Ahotsa ona ala txarra izatea «subjektiboa» da, Zubiriarentzat, eta «ergelkeria», Paiarentzat. «Kantatzeko inporta duena da afinatzea, eta hori belarri on batek egiten du. Jendeak uste du hori ahotsaren kontua dela, baina ez da ahotsaren kontua, belarri kontua da, ondo entzutearen kontua da», adierazi du Zubiriak: «Musikaz dakien edonork

ezin du hori esan», argi du Paiak. «Azkenean, bakoitzak bere ahotsa pertsonalizatzen jakin behar du. Mikel Laboari ere kritikak egiten zitzaizkion hasieran, ahots txarra zuelako. Hor, lan bat badaukagu bakoitzak gure kantaera sortzen: gure ideiei ematen diegun bezala ukitu pertsonala, gure kantaerari ere emateko ukitu pertsonala», pentsatzen du Paiak. Baita Zubiriak ere: «Guk entzuten duguna txarra baldin bada, justu ez baldin badago, hori ahotsak ematen du. Hori ere

“



«Guk entzuten duguna txarra baldin bada, justu ez baldin badago, hori ahotsak ematen du»

AMAIA ZUBIRIA
Kantaria



«Ikusten dut lehenengo txapelketa, eta bertsoak, kantatu baino gehiago, erditu egiten nituen»

JON MAIA
Bertsolaria



«Iruditzen zait beste doinu batzuk erabiltzen ahalegindu beharko genukeela»

UNAI AGIRRE
Bertsolaria

ikasten da, zuzentzen dira gauza horiek. Ahotsak pixka bat begiratu gero, ikusiko duzu kantatzaile askok eta askok ez dutela beste munduko ahots bat».

«Txikitari, ez nintzen kantatzen hoberena. Saiatzen nintzen eta kantuz aritzen nintzen etengabe», dio Barrosok. Hobeto kan-

tatzea, bertsotan egiteko «gaitasun handiagoarekin» lotu du Maiak. «Nik ikusten dut nire lehenengo txapelketa, eta bertsoak, kantatu baino gehiago, zenbaitetan erditu egiten nituen», jarri da atzera begira Maia. «Gogoratzen naiz 1997an *Habanera* erabili nuen lehenengo aldian. Inoiz entrenatu gabe doinu horretan, eta inoiz kantatu gabe, hasi nintzen ez nekiela noiz bukatzen zen ere. Garai hartan ez zen hain ohikoa zortzi errimako bertso bat kantatzea ere. Txapelketa hartako nire *Habanera*-k nahiko sonatuak izan ziren, eta jende guztiak esaten zidan nola sufritzen zuten nirekin bertsoak aurrera egin zezan», jarraitu du pasadizoarekin.

Doinutegi propioak

Kantaeraren arabera doinutegi propioa sortzen dute bertsolariak. «Denok dakigu zein doinu erabiltzen ditugun hobeto, eta zeintzuk okerrago: gure kantaeraren arabera zein joan litekeen hobeto eta zein ez. Horren kontzientzia bat badago, eta igartzen da jendeak hartzen dituen doinuetan», Paiaren berbetan. Maiak baditu doinu batzuk «benetan motibatzen» dutenak. «Nik uste dut badaudela doinu batzuk eurek laguntzen dizutenak hitzak ekartzen. Doinuak eramaten zaitu askotan. Hori oso polita da. Eurek ekartzen dizkizute hitzak», jarraitu du. Barrosok erantsi du, bertsolariak norberari gustatzen zaizkion doinuez gain, «hainbeste gustatzen» ez zaizkionak ere landu behar izaten dituela: «Besteekin kantuan ari garen momentutik ez baitugu guk bakarrik hautatzen». Beste doinu batzuk erabiltzera gehixeago jo beharko luketelakoan dago Agirre. Bere kantaeraren neurriko doinu berria plazaratu zuen Alfasuko kanporaketan.

Barroso 2ziorekin rap kantari aritzen da, baina ez kantuan. Haatik, berak talde batentzat letrak egin eta kantatu dituenetan, «antzeko» kantatzen duela igarri du. Maia Karidadeko Bentarekin kantuan jardundakoa da, eta igarri du alde: «Bertsolaria oso anarkikoa da. Zuk bertsoan nahi duzun-konpasa, erritmoa, tonua, abiadura... alda dezakezu, eta bertsoaren barruan ere mantsotu dezakezu ala bizkortu dezakezu, bertso berean ere bai. Kantatzean, jarraitu behar duzu musikariaren konpasa, tonua, erritmoa eta abar. Alde horretatik, askoz lotuagoa da. Taldearekin kantatzera joaten nintzenean, ia dena zen plazera. Ez muen bertsotarako tentsiorik: banekizkien hitzak, eta zen kantatzen gozatzeari». «Kantatzea beti da kantatzea», ebatzi du bertsoak kantatu egin dituen Zubiriak.



Anari, joan den apirilean Bermeon emandako kontzertuan. L. JAUREGIALTZO / ARP

Paperezko Kontzertuen lehen saioa, bihar

Zarauzko Garoa liburu dendan egingo da, eta Anarik irekiko du, zalea eta musikaria hurbildu nahi dituen egitasmoa

Erredakzioa Donostia

Hilean behin zalea eta artista gerturatzeko asmoarekin sortu dute Paperezko Kontzertuak. Zarauzko Garoa liburu dendak abiarazi du egitasmoa, eta han irekiko du Anarik lehen hiruhilekoa, bihar, 11:30ean. 40 bat pertsonak parte hartu ahal izango dute gehienek kontzertu-solasaldietan. Aurreneko ziklokoko bigarren kontzertua Daughn Gibsonek emango du abenduaren 7an edo 8an —zehazteke dago—, eta azkenekoa Bide Ertzeanek, urtarrilaren 12an.

Oier Arantzabal antolatzailearen ustez, musikazaleak eta artistak elkartzeko dituen plaza ezber-

din bat sortzea proposatzen du egitasmoak. «Ohiko plazetako hierarkiarik gabe, entzuleak eta musikariak toki intimo batean bat egingo dute. Une bereziak sortu nahi ditugu horrekin».

Kontzertuak liburu denda batean izanda, literaturaren eta musikaren arteko zubiak eraiki nahi dituzte antolatzaileek. Hartara, saioetan berebiziko presentzia edukiko dute liburuek. Izan ere artista bakoitzari liburu bat ekartzeko eskatuko diote, eta horri buruz mintzatu da. Zikloaren lehen hiruhilekoan Jon Eskisabel kazetariak gidatuko ditu saioak.

Ez dituzte, gainera, horiek bere horretan utzi nahi. Horregatik, emanaldiak grabatzeko eta sare-ratzeko asmoa daukate antolatzaileek. Horretarako, Zarauzko Deborex ekoizpen etxearekin arituko dira elkarlanean. Hiru saioetarako sarrerak salgai daude 30 euroan Garoan bertan, eta telefonoz ere egin daitezke erreserbak.

TXALOK aurkezten du

ITZALD

Azaroak 16, larunbata 20:00etan
Helduentzat antzerkia
Auditoriumean
Sarrera: 6 €

AITOR EZKANDINO
LUR KORTA
ANITA GANAI
SIBILA ALABA

Pottola ko me dia

NELLABUTE
BESONABILBAO

Eztarriko tentsioak askatuz



Jon Maia eta Beñat Lizaso, Aitor Sarriegi atzoko garailea zorientzen, eta haren alboan, Alaia Martin bigarrena, txalo jotzen. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

↓ Sailkapenak

OIARTZUNGO SAIOA

1. Aitor Sarriegi	688 puntu
2. Alaia Martin	667 pt.
3. Agin Laburu	650 pt.
4. Jon Maia	623 pt.
5. Odei Barroso	620,5 pt.
6. Beñat Lizaso	592,5 pt.

DROKORRA

1. Igor Elortza *	722
2. Amets Arzallus*	717
3. Aitor Sarriegi*	688
4. Iñigo Mantzizidor	667,5
5. Alaia Martin	667
6. Jokin Uranga	657,5
7. Jone Uria	653
8. Agin Laburu	650
9. Unai Iturriaga	649
10. Etxahun Lekue	649
11. Jon Martin	640,5
12. Julio Soto	639,5
13. Jexux Mari Irazu	638,5
14. Amaia Agirre	638
15. Nerea Elustondo	633,5
16. Jon Maia	623
17. Hodei Barroso	620,5
18. Beñat Lizaso	592,5

*Bigarren faserako sailkatuak

Aitor Sarriegik irabazi du hirugarren finalurrekoa Oiartzunen, eta Jon Maia aurrera egiteko aukera gutxirekin geratu da

Puntuazioek behera egin dute lehen itzuliko azkenurreko saioan; goirik apenas jo duten

Beñat Zamalloa Akizu Oiartzun

Eztarria hartua zuela oholtzaratu zen atzo Aitor Sarriegi. Gipuzkoako azken txapelketan ere hala oholtzaratu zen tentsioen erruz. Finalurrekoen aurretik ere adierazi zuen «arraro» sentitzen zela txapelketaren aurrean. Hala ere, Gipuzkoako hartan bezala, Oiar-

tzungo finalurrekoan ere, tentsioak askatuta, irabazi egin zuen. Atzo Elorsoro kiroldegian jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko hirugarren finalurrekoan Sarriegi izan zen gora rrien egin zuena, beherik jo gabe.

Jon Maiak, saioa irabazteko eta finalerako faboritoetako batek, behetik hartu zion orekari neu-

ria lehen itzuliko azkenurreko finalurrekoan. Beretik gutxi utzi zuen. Bigarren itzulira sailkatzeko aukera gutxi dauzka. Gaur Murgian jokatu den lehen itzuliko azken finalurrekoak zehaztuko du aurrera nork egingo duen, eta tartean izango ote den Maia bera.

Maiak ez bezala, saioari neurria hartzen asmatu zuen Alaia Martinek, eta, neurria hartuta, orekari eutsi zion eginbarreko denetan. Labururen txinpartek 1.500 bertsozaleak berotu zituzten kantaeraren laguntzarekin. Txinpartek gorago sailkatzen ere lagundu zioten. Maiaren antzeratsu, Odei Barrosok eta Beñat Lizasok goraldi gutxi izan zuten, eta

ez zuten lehertzerik lortu. Oro har saio laua izan zen, eta gutxitan egi zuen berora.

Zortziko handiko ofizioen ostean, zortziko txikiko bigarren ofizioan, Lizasok bota nahi zuena formulatzen asmatu ez, eta bere posizioaren kontrako kantatu zuen; Sarriegiri zegokiona, alegia. «Bikotea dira Beñat eta Aitor. Aitor kontu eske etorri zaio Beñati gaur, duela aste batzuk erosita-kondo gehiago falta direla-eta», aurkeztu zion gaia Unai Elizasuk. Bigarren bertsoan zuzendu zuen bidea Lizasok. «Orain arte pasea / hartazazu eredu / hurrena bat e' gabe / egin beharko degu», bukatu zuen. «Neri ez zait ajola / gerora

GAURKO SAIOA

■ **Bertsolariak:** Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Fredi Paia, Sustrai Colina, Unai Agirre eta Xabier Silveira.

■ **Lekua:** Murgiako Palatu kiroldegia. ■ **Ordua:** 17:30.

zer egin; / baizik zer gertatu dan / falta direnekin», erantzun zion Sarriegik. Azken bertsoan ez zion asko lagundu Lizasok: «Zeuk esplikatu ze zeuk / erabiltzen dezu» botata, baina Sarriegik atera zuen horretatik ere: «Baina dirudienez / ni ez naiz bakarra», bota zion.

Egoera komikoa izan zuten Laburuk eta Maiak ere: «Euria ari duela-eta, bere aterki azpian sar-

joxan artze

1 Bizitzaren atea dugu heriotza

2 heriotzaren ataria dugu bizitza

elkar www.elkarargitaletxea.com

bizi literatura

32» Gabriel Arestiren 'Harri eta herri' liburuari buruzko hitzaldi sorta abiatuko dute etzi, Bilbon

34» Mia Couto idazle mozambiketarrak Camoes eta Neustadt sariak irabazi ditu urte berean

Bertsolari Txapelketa Nagusia

tzeko eskaini dio Jonek Agini. Agin sartu da aterkipean, eta hala ere bustitzen ari da». Laburu makuluekin zen oholtzan, eta Maiak bere umorea plazaratzeko baliatu zuen bere lehen bertsoa: «Bustitzen zerala ta / ze kulpadet, aizu / bi pertsonaren hankak / baldin badauzkazu?». Hortik aurrerakoan behera egin zuen bertsoaldian. Urrunagoko gaia izan zuten Martinek eta Barrosok. Marrazo batekin egin zuten topo, itsasoan kayakean ari zirela. Zirikatzen saiatu zen Martin eta erantzuten Barroso, baina ez nahi adinako arrakastarekin.

Zortziko txikian nahi adina ematerik izan ez arren, eutsi egin zion Martinek, eta lehen puntua emandakoetan piztu zen. Kafea izan zuen gai, eta hau izan zuen lehen puntua: «Lehen lagun zituen / puru eta kopa». «Trago bat hartu eta / kalada bat bota. / Debekatu badute / neri ez zait inporta / beti egon naiz eta / lege denen kontra». Sarriegi ere fin ibili zen lehen eta azken bertsoan. «Prestigek belztu zuen / itsaso zabala» lehen puntua entzunda, «ta inpunitatean / geratu da hala / tratatu bai gaituzte / tontoak bezala / erabaki zuenak / ordaindu dezala».

Galderak sortu zitzaizkion sei puntuko motzeko gaiarekin Sarriegiri. «Aitor eta Agin bikotea dira eta gaztetan hasi zen bien arteko harremana. Zazpi urte kartzelan egin ostean, orain hila-bete gutxi askatu zuten Agin. Gaur esan dio Aginek Aitorri bien artekoa bukatu dela», izan zuten gaia. Labururekin jardun zuen. «Barruan egon zaren garaitik / zer aldatu da ba?», egin zuen lehen galdera. «Espetxeak ez dit gutxi / urteotan erakutsi / sentimenduak ezin dirala / giltzapean utzi», kantatu zuen erantzuna Laburuk. Baina ez zuen Sarriegi



Alaia Martin, kantuan, saioko une batean. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Barruan goxo



Analisisa Gorka Azkarate

Udazkeneko lehenengo hotzaldiak barrurako gonbita egiten zuen atzo arratsaldean Oiarzunen, eta lepo bete zen Elorsoro. Barakaldoko finalerako sarrerak bukatu direla-eta, hamaika bertsozale txartelik gabe geratu deneko komentarioak bolo-bolo sarrerako korrotxoetan.

Orain lau urteko finalista bi oholtzara estrainekoz aurtengo ekinaldian, lehen fasetik sailkatutako beste lau bertsolariarekin batera. Seikote anitza bezain era-

kargarria. Ia uneoro denen gaitetik, segurtasun eta patxada ikaragarria erakutsiz, bertsolari bat: Aitor Sarriegi. Urteak daramatza goi mailan kantuan, baina irudipena daukat beste zenbaitek baino meritu gehiago egin behar ez ote dituen beti, benetan aintzat hartua izan dadin. Pasa den astean Amets Artzallusek eta Igor Elortzak egin zuten moduan oso bideratua utzi zuen beasaingarriak finalerako bere sailkapena. Eta nola gainera. Bertso oso onak kantatu zituen, gaiei helduleku egoki eta orijinalak topatuz beti, erritmo bizian, albokoari erantzunez eta betelanak elementu ugariz jantziz. Txapelketa hau mimoz prestatu duela bistan da.

Sarriegiren atzetik, Alaia Martin eta Agin Laburu sailkatu ziren, eta batak zein besteak bigarren itzulian kantatuko dute, lehenengo fasean erakutsitako

bete erantzunak: «Espetxean zazpi urte / ni joan da etorri jo ta ke / ta hortaz ez al zera ohartu / irten zeran arte?». «Sentittu, igual, egingo nuen / e' naiz atrebittu», erantzun zion orduko hartan. «Bizitzen ikastera zu / zoaz eta badakizu / maitatzen ere ikas daiteke / hala nahi badezu», ebazti zuen azkeneko bertsoan finalurrekoaren irabazleak.

Kartzelako txukunena Martinen izan zen, baina berezieta Sarriegirena. Xabier Leteren *Lore bat, zauri bat* kantutik sortutako doinuarekin egoeraren gordintasuna transmititu zuen. «Oheko maindireak edo mihiseak egunero aldatu behar izaten dituzu», zuten gaia kartzelarako.

«Maindire denak busti ohi ditut / jarri arren pixoihala / nire burua zaindu behar dut / amak umetan bezala», bukatu zuen bigarren bertsoa, lehen bertsoan «mutil zahartu» zela eta bakarrik bizi zela azaldu ondotik. Hala bukatu zuen bertsoaldia: «Kejaka hasi ezkerore / inor ez dago atean. / Denbora geldi joaten da gelan / ez da joaten bapatean. / Ia altzari sentitzeraino / hau guztia jasatean. / Sarri askotan pentsatu izan dut: / 'Buka dadila bakean'. / Baina pittin bat pentsatuz gero / ondoren neure artean; / aukera asko ez ote daude / gaur egungo gizartean? / Nere etxea saldu dezadan / ahal dudan bitartean / eta arnasa eman nahi nuke / erresidentzi batean».

maila onari eustea lortu ostean. Atzerago sailkatu ziren Jon Maia, Odei Barroso eta Beñat Lizaso. Deigarria izan zen Maiaren kasua: azken lau txapelketetan finaleran kantatu du bertsolari zumaia, eta atzo ia ia agur esan zion txapelketari, gehienon harri-durarako. Puntu gutxi batu zituen, eta akats bereziki nabarmenik egin zuela kontuan hartuta, kartzelakoan kantuan hasterako hartu zuen denbora eta puntu erantzunetan bertsoei tiraka ibili

Errua berea izan zen, noski, baina aitortu beharra dago gai nahasgarri eta arraro samar bat baino gehiago egon zela atzo Elorsoron

izana hauteman daitezke behar-bada puntu banaketan jasotako zigorraren arrazoitzat. Barrosok oso gauza politak egin zituen eta egin duen txapelketarekin pozik egoteko moduan da. Elorsoro kiroldegiak berak ere negarrari eman ez zion, bada, bere kartzelako bertsoak entzun ahala... Lizasok bere bertsoak freskoa agerian utzi zuen beste behin ere, eta pena izan zen 8ko txikian bere patera ondo ulertu ez eta egin zuen hankasartzea. Errua berea izan zen, noski, baina aitortu beharra dago gai nahasgarri eta arraro samar bat baino gehiago egon zela atzo Elorsoron: kayak egitera joan eta marrazo batekin topo egiten duten bi lagunena, kartzelatik atera eta bikotearekin harremana haustea erabakitzen duen preso ohiarena... Ea zer ematen duen arratsaldean Murgiko saiok. Gorbeia mendiaren magalean ere ez da pasiorako giorrik izango. Barruan, ordea, bertsoen berogailua pizten dugun aldiro, beti goxo!

HARRI ETA HERRI
50 urte

bilbozaharra.com

Azaroak 19 19:00
Amaia Lasa - Itziar Laka

Azaroak 20 19:00
Xabier Amuriza

Azaroak 21 19:00
Koldo Izagirre - Joseba Tapia

Euskaltzaindaren egoitzan.
Bilboko Plaza Berria
forum@bilbozaharra.com

2013

Forum

UDA GOIENENKO
OSTERA

EÑAUT ELORRIETA
DESERRIKO KANTAK

ERMUA, ERMUA ANTZOKIA

Azaroaren 29an, bankua, 22:15ean
Sarrera: 10 €

Sarreraren salmenta

www.kutxabank.es

BBK

Antolatzailea: Euskaltzainden Elkartea

Babeslea: BFA DFE

Loguntzaileak: berria

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Sustrai Colina ◊ Bertsolaria

Oiartzungo mamuekin oheratu zen, herenegun Sustrai Colina; Murgian irabazita, berriz, atzo. Txapelketan nortasun propio bat erakustea da bere helburuetako bat.

«Nire obsesioa da nire bidean ahalik urrutien joatea»

Beñat Zamalloa Akizu Iruñea

Igandean Murgian (Araba) jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken finalurrekoa irabazi arren, «hobetzeko tartea» nabari dio Sustrai Colinak (Urruña, 1982) saioari; «kontuan hartze-koa», gainera. Horrek «pozten eta lasaitzen» du, asteburuan hasiko den bigarren itzuliari begira. Maulen ariko da hurrengo larunbatean, sailkapenean goian dela. **Lehen aldiz zaude txapelketan bigarren itzulan puntuei buelta eman beharrik gabe finalean sartzeko. Zein aldagarengatik uste duzu zaudela egoera honetan?**

Izan litezke gauza asko, eta zortea ere bai. Orain dela urtebete Iparraldeko txapelketako oholtzatik jaitsi nintzenez, jaitsi nintzen hunkituta eta ukituta. Hunkituta jendeak maitasun handia transmititu zidalako, eta ukituta uste dudalako oholtza batean txapelketan ez dudala hainbeste sufritu sekula; nahiz eta gero jendeak esaten zidan hori ez nuela transmititu. Eta pentsatu nuen garai zahar baten bukaera eta garai berri baten hasiera izan behar zela. Ezin zela segitu txapelketa batera joaten prestatu gabe, ea zer gertatzen zen. Nahiko azkar ikusi nuen handik urtebetera beste txapelketa bat neukala, txapelketa handi bat, eta hau zela unea heltzeko egiteke nuen ikasgai horri. Orduan, hasi nintzen txapelketa agertoki baten gisa hartzen. Agertoki bat, hitzaren esanahi osoan: agertzeko toki baten gisa. Zer agertua ere eduki behar duzu. **Zertaz ohartzuzin, orduan?**

Konturatu nintzen 12 urte daromatxadala plazarik plaza urtean 100 plazatik gora eginez, eta hori ongi dagoela, nolabait bertsolari izateko nire ametsa bete dudala. Baina, orain, 31 urte ere badauzkat, eta, bizitzako gauza askotan

bezala, zer izan nahi dudan erabakitzeke eta definitzeko momentu batean nago. Bertsotan ere bai: zer bertsolari izan nahi dudan definitzeko momentu batean nago. Orduan, azken urte honetan horra begira aritu naiz, definitzen eta fintzen. Izan nahi ez nuena argi edukitzen hasi, eta orain izan nahi dudana argi daukat. Txapelketa batera aurrez erabakita eraman litezkeen gauza gehien-gehienak, guztiak ez esateagatik, atzo, erabakita eraman nituen.

Erabakiak hartuta eta egin nahi zenuena garbi zenez, beraz. Zer da egin nahi zenuenetik egin zenuena?

Gauza asko neuzkan garbi, baina ez nituen denak egin. Badakit bertsolari batzuk hobeak direla arlo batzuetan, baina saiatu naiz neure burua konbentzitzen nire arloetan izan naitekeela bertsolari horiek baino hobea. Atzo hori zen nire kezka nagusia. Jokatzea ofizioa nire guda zelaian. Uste dut horretan asmatu nuela, batez ere. Txapelketa ikusten dudan bezala orain artekoari balioa emateko eta hemendik aurrera egin nahi dudana agertzeko bide gisa. Nahi nuke atzo emandako puntuek edo jasotako puntuek lasaitasuna ematea, aurrera begira hobetzeko tartea hori estutzeko. Uste dut saiatu nahi dudala atzo egin nituenak baino gauza sakonagoak, konplexuagoak, ertz askoz gehiagokoak, egiten. Nire beste alderdi batzuk erakusten. Alde horretatik, uste dut atzo nahiko kolore bakarrean aritu nintzela eta hurrengo saioetarako nire erronka hori izango dela. Pixka bat paletara kolore batzuk gehituz joatea.

Saioa ez entzutea erabaki zenuen. Zertan lagundu zizun horrek?

Nire bideari eusten segur aski, ez deszentratzen egin nahi nuenetik. Bestela, arriskua dago zu pixka bat desbideratzen hasten zarene-

an, besteei entzuten hasi eta gehiago desbideratzeko eta heldulekuak zugar topatu beharrean besteengan bilatu nahi izateko. Nik uste dut hori arriskutsua dela. Nahiago dut, orain nagoen bezala behintzat, nigan zentratu eta hurrengo ariketan egin behar dudana pentsatu. Horrek ez du esan nahi sentsazioerik ez duzula jasotzen.

Publikoaren beroa nola jasotzen zenuen?

Jendea oso bero. Atzokoa zen niretzat nire iruditerian txapelketa dena. Frontoi edo kiroldegi zahar samar bat, aulki deserroso pila, kanpoan hotza, kasik-kasik lehen ilarakoaren arnasa entzuten duzula oholtzatik, jendeak itxaropena ere bai saio ona ateratekeela, igande arratsalde. Nire iruditerian txapelketa hori da. Horrek uste dut laguntzen duela.



Maulen egokitu zaizu hurrengo saioa...

Oso ilusionatuta nago. Mauleko bertso eskola sortzen eta hazten ikusi dut. Badakit jende horrek zenbat lan egin duen, zer lan egiten ari den, eta horientzat zer esan nahi duen Txapelketa Nagusiko finalurreko bat han egoteak, han ospatzeak. Badakit jende batentzat azken saioa izango dela. Nire hurbileko jende askorentzat izango dela, eta ez naiz bertsolariez ari, publikoko jendeaz ari naiz. Horrek ere ematen dio eragingarri emozional berezi bat niretzat. Jende hori BECen ezin-go da egon, egoera dagoen bezala

dagoelako oraindik. Horrek indarra ematen dit. Oso pozik nago ilusio hori bat datorrelako nire txapelketa honetako bidearekin. Ikusten dut aukera handi bat daukadala atzo egin nuena baino ertz gehiagoko saio bat egiteko, saio sakonago bat egiteko, eta nire bide horretan beste pauso inportante bat emateko.

Argitzeagatik, nortaz ari zara?

Errefuxiatuez ari naiz.

Aurreko finalaren aurretik finalak erretiratuen afari bat ematen zuela aipatu zenuen umorez, beti batek huts egiten zuelako. Jon Maiak, behintzat, huts egingo du aurten. Zer emango du aurten finalak?

Gonbidatuen zain



Analisis
Josu Goikoetxea

Kartel deigarria eta erakargarria zen Murgian, itxura batean orain arteko erakargarriena. Tira ba, saio oso ona izan zen igandekoa, bikaina ere bai une batzuetan... kartzelako lana iritsi zen arte. Hau da, aurreko saioen formula—ofizioko bertsoaldi gorabeheratsuen ondoren, kartzelako lan ederrak—iruntzitar jarri zuten

herenegun bertsolariek. Azkenik, Murgian zortziko handiko jardun entzungarria izan ginen. Bereziki ondo aritu ziren ezkerreko bertsolariak, hasten zirenak: Gaztelumendi, Mendiluze eta Colina, azken sailkapenean goian izan ziren hirurak, hain zuzen.

Bikain Gaztelumendi ofizioko hiru bertsoaldietan, Altsasun sumatu ez nion freskotasunarekin eta hango saioaren ifrentzua emanez: ofiziotan apalago kartzelakoan baino Altsasun; guztiz alderantziz Murgian. Bietako onena uztartzen badu Elizondon, ziurtzat jo dezakegu añorgatarra finalean izango dela.

Mendiluze goitik behera etortzen ikusi nuen. Puntuetara arte

bikain zetorren, baina ariketa horretan slaloma egiten ari zela zirudien, biziegi. Eta ipurdikoa hartu zuen. Gero, seiko motzean, Payarekin modelo kokainazalearen gaien, uste dut ez zutela aukeratu doinu egokia eta umoretik jo zuten hasieran. Mendiluze horretaz ohartu zela uste dut, eta zuzentzen saiatu zen bigarrenetik aurrera. Kartzelakoan bikain, ñabardurekin.

Sustrai Colina, saioko irabazlea, oso indartsu sumatu nuen, bezperan Aitor Sarriegi bezala. Aipagarriak puntuari erantzuten eman zuen erakustaldia, baina baita hiru ofizioetan egindakoa ere. Kideari erantzuten hala behar zenez, publikoari zuzenduz unea heltzean. Eta ez zituen lan errazena izan, ez horixe. Ederto.

Altsasuko Unai Agirre izan da txapelketa honetan gehien gustatu zaidan bertsolarietako bat.

32» Musikaren industria «hiltzorian» dagoela agertu dute MIE elkarte osatzen duten enpresek

34» Hemingway familiaren gaineko dokumentala aurkeztuko du Barbara Kopplek Zinebin

Bertsolari Txapelketa Nagusia →



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Pena handia hartu nuen. Esango nuke Jon Maiari larunbatean tokatu zitzaiola azken lau urteetan tokatu zaion egunik txarrena bertsoetan. Lau urte pletoriko pasatu ditu plazan saio bat bestearen atzetik gailurretara eramaten. Zuk egun txar bat baldin badaukazu, eta urtero egon ohi den saio tontoan topatzen bazara, horrelako gauzak gertatzen dira. Batek huts egin du, baina ikusten dut lehen egondako bat bueltan datorela, eta uste dut hori pozgarria dela denontzat. Esango nuke gerra eman behar duela oraindik jendeak. Sailkapenak kanpo daukan baten batek patillak ondo zo-

rozotuta izango ditu Elizondon. **Txapelketa Nagusiko txapela jantzi-ta irudikatu duzu sekula zeure burua?** Txapelketa hau ez dut planteatzen lehia gisa, baizik eta agertoki bezala. Nire obsesioa da nire bidean ahalik eta urrutien joatea. Gero, nik ez dakit hori nola baloratuiko den, ez dakit nora eramango nauen, ez dakit... Baina aurrera egitea nire esku dago. Orduan nik aurrera egin behar dut. Niri interesatzen zaidana da bertsoakera bat, nortasun bat, sinadura bat, estilo propio bat da. Niretzat BE-Cen kantatzea erronka pertsonal bat da, ezeren aurretik.

Atzo oso ondo aritu zen arren, estu sumatu nuen, aurreko alaitasuna galdu izan balu bezala. Ea berreskuratzen duen.

Fredi Paiari buruz hiru gauza esango ditut: batetik, final-laurdenetan baino askoz hobeto aritu zela, bistan da hori. Bestetik, puntu erantzun zozo samar batzuei bikain erantzun ziela; bezperan Alaia Martinek kafeari buruzko puntuetan petrolioa atera zuen bezala, sasikiratu zuela Paiak hirukoa igandean Baskoniari buruzkoetan. Hirugarrena: kartzelako lanean gustatu zitzaidan Paiaren lana lehen bi bertsoetan —bigarreneko errima-jokoa... tira—, ohiko melodramatik atera eta satira bufoaren bide ezezaguetatik joz. Hala ere, hirugarren bertsoan, uste dut Anbotoko trokan behera erori zela. Onartzen dut zaila dela halakoetan oreka mantentzea.

Azkenik, Silveira. Ondo zebilen lehen bi lanetan, bertsoa kostata ekartzen baina ondo, eta uste dut puntu erantzunetan klik egin ziola buruak eta beste norabait joan zitzaiola ondoren. Bera izan zen kartzelan gaiari fundamentuz heldu zion bakarra, baina ez zuen asmatu pentsatutako istorio rokanboleskoa egoki lotzen. Pena, atzo Silveira on batek aukera bikaina baitzeukan marka handia uzteko.

Bukatzeko, oraingoan gai-jartzaileak zoriondu behar ditut egin zuten lanagatik, eta bertso-lariei errieta egin. Sei hitz dituen gai batean, hitz guztiak dira garrantzitsuak eta ez dira nolana jarritakoak. Gaiari gonbidatuak aipatzen badira, bat baino gehiago dira, ez bat, ez zero; bi gutxienez. Horri muzin egitea gai-jartzaileen lana gutxiestea da. Korporatibismoa? Agian bai.

Ikusmin eta itxaropen handiko lehen itzuliko azken finalaurrekoan, giroa eta puntuak bero izan ziren

Puntuak, giroa bezain bero

B. Zamalloa Akizu Murgia

Fredi Paiak lehertu zuen gehienetan lehen itzuliko azken finalaurrekoaren plaza, igandean, Murgian. Plaza berotzeaz gainera, epaileak bertzea ere lortu zuen, eta plaza ez ezik puntuak ere pilatu zituen defendatzen duen estilo «dramatiko festiboan» kantatuta. Bosgarrena izan zen Paia, eta datorren itzulirako sailkatu zen. Giroa ez ezik, puntuazioa ere beroa izan zen.

Xabier Silveira izan zen bere estilotik gutxien erakutsi ahal izan zuena. Deseroso sumatzen zen oholtzan, zortziko handian txukun hasi zen arren. Kartzelan ere eman zuen beretik, punturik bildu ez arren. Lehergarrietakoa aurreikusten zen, baina ez zuen nahi bezainbatean lehertu, eta puntuak ere ez zituen aurrera egiteko beste lortu.

Sustrai Colinak irabazi zuen saioa, eta puntuetan urrun gabe sailkatu ziren osteko hirurak ere. Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. Ofizioetan kantatu zuten beroen, noiz edo noiz behera ere egin arren. Kartzelan, berriz, guztiak egin zuten behera. «Prest duzu dena, gonbidatuak falta dira» zuten gaia, baina ez zuten egoerak kokatzen asmatu. Silveirak, Paiak eta Agirrek aukeratu zuten, gaiak eskatu bezala, gonbidatu batetik gorako kontakizuna.

Bigarren itzuliko finalaurrekoak jokatu dira datozen bi aste-buruetan. Beñat Lizasok, Odei Barrosok, Xabier Silveirak, Jon Maiak, Nerea Elustondok eta Amaia Agirrekez dute lehen itzulitik aurrera egingo. Bi itzulietan puntu gehien biltzen dituzten zazpi bertso-lariek kantatuko dute finalean.

↓ Sailkapena

1. Sustrai Colina	706
2. Beñat Gaztelumendi	697
3. Aitor Mendiluze	694,5
4. Unai Agirre	670,5
5. Fredi Paia	661,5
6. Xabier Silveira	622,5

OROKORRA

1. Igor Elortza	722
2. Amets Arzallus	717
3. Sustrai Colina	706
4. Aitor Sarriegi	688
5. Beñat Gaztelumendi	697
6. Aitor Mendiluze	694,5
7. Unai Agirre	670,5
8. Inigo Mantzizidor	667,5
9. Alaia Martin	667
10. Fredi Paia	661,5
11. Jokin Uranga	657,5
12. Jone Uria	653
13. Agin Laburu	650
14. Unai Iturriaga	649
15. Etxahun Lekue	649
16. Jon Martin	640,5
17. Julio Soto	639,5
18. Jexux Mari Irazu	638,5
19. Amaia Agirre	638
20. Nerea Elustondo	633,5
21. Jon Maia	623
22. Xabier Silveira	622,5
23. Odei Barroso	620,5
24. Beñat Lizaso	592,5

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

FINALAURREKOAK

ELIZONDO

Baztan pilotalekua
Azaroak 23, 17:30ean



DONOSTIA

Gaska kiroldegia
Azaroak 24, 17:30ean



ANTOLATZAILEA


LAGUNTZAILEA



berria®

Plaza » Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia



Unai Iturriaga Tolosan aritu zen finalurrekoetako lehenengo fasean eta Elizondon kantatuko du gaur. JON URBE / ARGAZKI PRESS

horiek», zehaztu du. Unean behar duten neurriera tolestean dugu gero, eta bukaerarako gordetzen du. «Beti» horrela egin izan du, eta horrela egiten segitzen du Etxahun Lekuek: «Abiatu beharrean ideia orokor baten bila, neurrian sartuta ahalegintzen naiz ekartzen». Martinek zein Lekuek bihar, Donostian, kantatuko dute, bigarren itzuliko bigarren finalaurrekoan.

Gauzak ondo, batzuek zein besteek bukaera pentsatzen dute lehenbizi. Karlos Aizpurua ikerlariaren arabera, «ohikoena» da hori Euskal Herriko zein kanpoean ezagutzen dituzten jardunetan. «Badu bere logika entzuleak gogoan hartzen duena azkeneko esaten den hori delako, normalean. Ordura arte esandakoa pixka bat iraganean gelditzen da. Teknikoki ere baldin badakizu nora zoazen, errazago zaizu koherentea izatea diskurtso guztian zehar esan nahi duzun horrekin», azaldu du. Oinak ziabogekin alderatu ditu bideko helduleku gisa.

Bertsogintzak «sorginetik asko» duela irizten dio Aizpurua: «Batzuetan, dena ateratzen zaie, eta besteetan, ez; eta horren azalpena ez dakit non egon litekeen». Ez dute horretarako arrazoirik Lekuek eta Gaztelumendik ere. Datozkionean, «ideia uholde baten» ala «erreka oso lehor baten» moduan etortzen zaizkio Arzallusi. Uholdean datozenean aukeratu beharra izaten du, eta, erreka «oso lehor» datorrenean, «asko» tira egin behar izaten dio. «Etortzen zaizun horri gehitu behar diozu beste kontzientzia puntu bat», Martinen ustez. Datorren hori «norberaren galbahetik» pasatu behar dela iruditzen zaio, «bigarren buelta bat» eman behar zaiola.

«Eta ez datorrenean, askotan hasi beharra gertatzen da, behar bada, hitz bakarretik abiatuta, *oin ama* aukeratuta edo errima honetatik, senak esaten didalako hortik bide bat dagoela», dio Arzallusek. Gaztelumendik ere era bertsuan egiten du ideia argirik ez datorkionean, errimak zerbait esatera «eraman dezan» aukeratzeko du. Errimekin izaten omen dute bertsolariek borroka: «Nola lortu errimek guk nahi duguna esan dezaten, eta ez guk esan errimek esatea nahi dutena», argitu du Gaztelumendik. Datorrena datorrela, gutxi etortzea ez da beti uholdea baino okerragoa Arzallusen irudiko: «Batzuetan, gutxi izateak garbiago erakusten dizu nondik joan behar duzun».

Bertsotarako ganbaran izan beharrekoak bat datoz Martin, Gaztelumendi, Arzallus eta Aizpurua, nor bere erara. «Garrantzitsuena niretzako da bertsolariek jakitea zein den bere egoera

Sorginaren misterioa

Finalaurrekoen bigarren itzulia hasiko da gaur Elizondon, eta bertsolariek daukaten onena eman beharko dute finalean izateko

Bertsotarako irizpide eta ikuspegi propioak jo dituzte beharrezkotzat bertsolariek

Beñat Zamalloa Akizu

Bertsoaren bat-bateko eraketa «oso misterio abstraktua» begitantzen zaio Amets Arzallusi. Bukaerako «ideia onegarriak» nondik etor litezkeen zerrendatzen hasita iritsi da ondorio horretara: «Irudi bat izan daiteke azaltzen zaizuna, entzunda daukazu istorio zahar bat, txiste baten ale bat eta zure bertsio bat ateratzen diozu, zure okurrentzia bat askotan ez dakizuna nondik datorkizun...». Bukaeraren bila hasita, «mila adarretatik» iritsi litekeela dio. Antzera gertatzen

zaio Beñat Gaztelumendiri ere. Etorri izan zaizkio: sartu nahiko lukeen «hitz bat», konparaketa bat, ertza jan behar izaten dion esaldi bat edota, «besterik gabe», arrazoia neurrian sartuta. Datorrena eta ekartzen dutena plaza-ratuko dituzte Arzallusek eta Gaztelumendik gaur, Elizondon, Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren itzuliko lehen finalaurrekoan.

Normalean, irudiak datozkio gaia entzundakoan Alaia Martini. «Egoera irudikatzen dut, eta etortzen zaizkit inguru horretan erregistroa osatuko luketen hitz

Hitzak.

1go SARIA
XVI. Certamen Nacional
Directorat de l'Escena

Klara Badier, izan daiteke...
Azaroaren 23an, 24an, 25an, 29an eta 30an

AZAROAK 23 AMURRIO (GAZT) // 19.00etan
AZAROAK 24 DURANGO (GAZT) // 19.00etan
AZAROAK 25 ARETXABALETA // 19.00etan
AZAROAK 29 GALDAKAO (GAZT) // 21.00etan
AZAROAK 30 ASTIGARRAGA // 20.00etan

berria

BEREHALAKOAN

Jakin 198
Iraila-urtia
2013

Euskal liburugintza 2012

- > LIBURUGINTZAREN GORABEHERAK
- > LIBURU ANALOGIKOA ETA DIGITALA
- > ARGITALGINTZA ZIFRATAN

GAIK
Giza naturatik animalien eskubideetara
MIKEL TORRES ALDAVE

EGUNEN GURPILEAN
HAIZEA BARCENILLA / INAKI IRAZABALBETIA
GOIZALDE LANDABASO / LIONEL TOLY
JOSU LARRINAGA

36» «Kantuago diren kantuak» bildu ditu Mursegok 'Hiru' azkeneko diskoan

38» Imanol Urbietaren kantuen bertsioekin osatu dute 'Bakarrik eta libre' disko kolektiboa

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

pertsonala, psikologikoa eta artistikoa, eta horretatik abiatuta eraikitzea eraiki behar duen guztia», ondorioztatu du Martinek. «Behar da elementuak eta egunero bizitzan ikusten dituzun gauzak ondo ordenatuta edukitzea buruan, eta momentuan, gaia datorrenean ireki daitezela kaxoi horiek», jo du beharrezkotzat Gaztelumendik. «Edozein gairi begiratzeko bere ikuspuntu eta irizpide propioa eta garbia baldin badauka, gero gainerako hornidura tekniko, forma eta jantzi guztiak ematen dizkio bertsolariak», da Arzallusen ikuspegia. Entzuleen ikuspegia da Aizpuruarena: «Nik uste dut entzuleok bilatzen duguna dela pertsona bat ikustea bere mezuarekin. Gero, bat egingo dugu ala ez».

Denbora, arierio

Betiko kezka du denborarena Lekuek: «Niri entzule legez ez zait gustatzen denbora lar egotea zain, eta bertsolari legez ez zait

“

Etortzen zaizun horri gehitu behar diozu beste kontzientzia puntu bat»

ALAIA MARTIN
Bertsolaria

«Esaten duzuetik esan nahi duzunerako distantzia hori beti da nahi baino handiagoa»

BEÑAT GAZTELUMENDI
Bertsolaria

gustatzen denbora lar edukitzea entzuleak zain». Isiltasuna «luze samarra» egiten hastean bihurtzen da denbora «problema», Arzallusen arabera: «Segundo bakoitza tanta lodi baten moduan erortzen sentitzen duzunean, hor, jada, denbora lagun txarra izaten da». Txapelketako epeak «logikoak» dira Martinentzat, eta komunikazioa «ez eteteko dagoen logika» mantentzen dute.

Badira ia denborarik gabeko ariketak ere: lehen puntua emandakoa, eta fase honetako puntukako eginbeharra. Puntutan aritzea «erreflexu» ariketa bezala ikusten dute Martinek eta Arzallusek. Lehen puntua emandakoa jo dute lan bat-batekoena bezala. Bat-batekotasun erabatekora «entregatzen» da Arzallus: «Datorrenarekin bete-betea hasita, eta bidean bukaeraren bat usainduko dudalako arrastoan, horrela abiatzen naiz».

«Esaten duzuetik esan nahi duzunerako distantzia hori beti da nahiko zenukeena baino handiagoa. Beti ibili behar da horrekin borrokan», dio Gaztelumendik osteko sentipenez.

↓ Elizondoko saiokoak. Gaur (17:30)



AMETS ARZALLUS

- **Jaioturtea:** 1983.
- **Sorlekua:** Hendaia.
- **Txapelketako ibilbidea:** Gernika-Lumoko finalurrekoa irabazita sailkatu da Elizondoko finalurrekora. Aparteko gaitasunarekin gainontzekoen gainetik jardun bazuen ere, ez zuen goirik jo. Bigarren da.



IÑIGO MANTZIZIDOR, 'MANTXI'

- **Jaioturtea:** 1977.
- **Sorlekua:** Zarautz.
- **Txapelketako ibilbidea:** Legazpiko kanporaketan ez zuen beretik ematerik lortu. Tolosako finalurrekora, aldiz, gozatzerako joanda, ariketa guztietan eman zuen bere onenetik.



JULIO SOTO

- **Jaioturtea:** 1987.
- **Sorlekua:** Gorriti.
- **Txapelketako ibilbidea:** Bertsolari gazteen artean faboritoetakoa zen, baina ez du nabarmenzerik lortu. Gernika-Lumoko kartzelan piztu zen, ordura arte gutxi egin ahal izanda. Azken-aurrekoa da.



BEÑAT GAZTELUMENDI

- **Jaioturtea:** 1987.
- **Sorlekua:** Donostia.
- **Txapelketako ibilbidea:** Altsasuko kanporaketan bakarrik nabarmendu zen, eta Murgiako finalurrekora, ofiziotan. Txapelketako saio beroretan kantatzea egokitu zaio. Finalerako aukera du.



JOKIN URANGA

- **Jaioturtea:** 1980.
- **Sorlekua:** Azpeitia.
- **Txapelketako ibilbidea:** Legazpin zuzen kantatuta iritsi zen finalurrekoetara. Gernika-Lumoko finalurrekora gaiek estutu ez zuten eginbeharretan nabarmendu zen. Hamaikagarren sailkatua da.



UNAI ITURRIAGA

- **Jaioturtea:** 1974.
- **Sorlekua:** Durango.
- **Txapelketako ibilbidea:** Tolosako finalurrekora bi poto eginda, sailkapenaren behealdean da. Aurreko txapelketan, bigarren itzulian puntuazioari buelta emanda sailkatu zen bere bosgarren finalera.

↓ Donostiako saiokoak. Bihar (17:30)



AITOR SARRIEGI

- **Jaioturtea:** 1976.
- **Sorlekua:** Beasain.
- **Txapelketako ibilbidea:** Oiarzungo finalurrekoa irabazita sailkatu da bigarren itzuliko saiora. Lan denetan bizi eta fresko kantatu zuen behetik joan zen saioan. Bigarren finalerako aukera handia du.



ETZAHUN LEKUE

- **Jaioturtea:** 1979.
- **Sorlekua:** Larrabetzu.
- **Txapelketako ibilbidea:** Bertsolari orekatua izanik, Oionen saio orekatua eginda sailkatu zen finalurrekoetara. Tolosan aldiz oreka hautsi eta ertzak erakutsi zituen. Sailkapenaren behealdean da.



IGOR ELORTZA

- **Jaioturtea:** 1975.
- **Sorlekua:** Durango.
- **Txapelketako ibilbidea:** Lehen itzuliko puntuaketa altuena erdietsi zuen Tolosako finalurrekora. Bertsokera dotorea eta fina berreskuratu zuen orduan, eta, ezusterik ezean, finalera itzuliko da.



ALAIA MARTIN

- **Jaioturtea:** 1987.
- **Sorlekua:** Oiartzun.
- **Txapelketako ibilbidea:** Maila altuarekin, baina oraindik goirik jo gabe jokatu du. Villabonatik sailkatu zen jaioterriko finalurrekora, eta bigarren sailkatu zen bertan. Bederatzigarren izanda, aukerarekin da.



FREDI PAIA

- **Jaioturtea:** 1981.
- **Sorlekua:** Algorta.
- **Txapelketako ibilbidea:** Villabonako kanporaketak goizegi harrapatu zuen, eta azken postuan egin zuen aurrera. Murgian, estilo «dramatiko festiboarekin» entzuleak bereganatu zituen. Badu aukerarik.



JON MARTIN

- **Jaioturtea:** 1981.
- **Sorlekua:** Oiartzun.
- **Txapelketako ibilbidea:** Villabonako finalurrekora gailenduta sailkatu zen Gernika-Lumoko finalurrekora. Finalurrekora egindako potoak sailkapenaren behealdean kokatu zuen.

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Berriro ere buelta emanda



Unai Iturriaga, erdian, jasotako puntuazioaren berri jakin ondoren, Amets Arzallusen txaloak eta Iñigo Mantzizidorren zorlonak jasotzen. JONURBE / ARP

Azken txapelketan egin zuen bezala, lehen itzuliko puntuaketei buelta emanda irabazi, eta finalerako aukerarekin da Unai Iturriaga

Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi ere finalean izango dira, ezuste handirik ezean

Beñat Zamalloa Akizu Elizondo

Aurreko txapelketan leku bertsutik hasi behar izan zuen Unai Iturriagak, atzo, Elizondon jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagu-

siko finalaurrekoa. Bigarren itzuliko lehen saioa zen, eta duela lau urte nola, Iturriagak puntuaketa altua behar zuen finalerako aukerak izateko. Orduan Iruñeko Anaitasun legez, saioa puntua-

keta altuarekin irabazi zuen Baztan pilotalekuan atzo, eta finalerako aukerarekin da, beste bi finalaurrekoen faltan.

Puntuei buelta eman beharrik gabe ziren Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi. Sailkapenaren goialdean zeudela iritsi ziren. Lehen itzuliko mailari eutsi zioten biek, eta, datozen bi saioetan ezusteko handirik ez bada, biak izango dira finalean. Arzallus kartzelan jardun zen distiratsuen, eta gainontzeko eginbeharrekotan izpiak utzi zituen, baina Arzallusen distiratsuen gehiegitan

erakutsi gabe. Gaztelumendiren atzoko saioa orekatua izan zen. Zuzentasunari lotuago kantatu zuen, finalerako aukera mantentzeko moduan.

Lehen hirurena baino apalagoa izan zen Jokin Urangaren saioa. Ez zuen goraldi handirik izan saioan zehar. Kartzelan egin zuen gora gehien. Legazpiko kanporaketan ez zuen transmititzerik lortu Iñigo Mantzizidor *Mantxi*-k, baina bi finalaurrekoetan plaza gehien berotu duen bertsolarieta-ko bat izan da. Hala izan zen atzo.

Julio Sotok atzora arte ez zuen

↓ Sailkapena

ELIZONDOKO SAIOA

1. Unai Iturriaga	725
2. Amets Arzallus	719,5
3. Beñat Gaztelumendi	695,5
4. Jokin Uranga	668
5. Iñigo Mantzizidor	663,5
6. Julio Soto	620

SAILKAPEN OROKORRA

1. Amets Arzallus *	1.436,5
2. Beñat Gaztelumendi *	1.392,5
3. Unai Iturriaga *	1.374
4. Iñigo Mantzizidor *	1.331
5. Jokin Uranga *	1.325,5
6. Julio Soto *	1.259,5
7. Igor Elortza	722
8. Sustrai Colina	706
9. Aitor Mendiluze	694,5
10. Aitor Sarriegi	688
11. Unai Agirre	670,5
12. Alaia Martin	667
13. Fredi Paia	661,5
14. Jone Uria	653
15. Agin Laburu	650
16. Etxahun Lekue	649
17. Jon Martin	640,5
18. Jexux Mari Irazu	638,5

*Bi finalaurrekoetakoak batuta

GAURKO SAIOA

■ **Bertsolariak:** Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Igor Elortza, Jon Martin. ■ **Lekua:** Donostiako Gaska kiroledegian. ■ **Ordua:** 17:30.

txapelketa honetan beretik ematerik lortu, eta atzo ere ez. 1.400 bertsozale gogotsu izan zituzten parean eta harmailetan bertsolariak, eta igarri zen saioak noiz egin zuen berora.

Gai sozialak izan ziren hamarreko handian, fase honetako lehen lanean: enpresa txiki bateko

Etzi berrian



AINGERU EPALTZA

'Gure Jerusalem galdua'

nobelaren aurrerapena



Aukera ezazu, BIZI euskaraz

berria

32» BIME jaialdiko musikariei harrera ona egin diete 8.000 ikuslek, Manic Street Preachersi bereziki

34» Rafael Chirbes: «Ez naiz apezka, politikaria edo psikiatra. Nik, ikusten dudana kontatzen dut»

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

langileak izan ziren Soto eta Gaztelumendi eta harrerako gurasaok Mantxi eta Uranga. Arzallus eta Iturriagarena izan zen gairik bereziena. Bi polizia ziren. Prostituzio sarekada batean parte hartu berri zuten, eta polizia etxera bueltan zihoazen auto berean. Gai berezienari aurkitu zioten euren ikuspegi berezia. «Inpresio bat izan dut, baina / agian, zeuk ere berdin: / ez al zaizkizu aurpegi batzuk / aski ezagunak egin?», galdetu zion zion aurreneko bertsoaren azken puntuetan Arzallusek. Bigarren bertsoan bota zuen arrazoirik indartsuena Iturriagak: «Pentsa ezazu ze etorkizun / beltz daukaten, ze gero hits. / Gure alaba izan ziteken / Amerikan jaio balitz».

Gaztelumendi eta Mantxirena izan zen zortziko txikiko lanik emankorrena. Mantxik autoa garbitzeko eskatu zion Gaztelumendi lagunari, eta ordu erdi zeramatzaten autotik gauzak ateratzen. «Ordu erdi ez da joan / emeki-emeki / eta maleteroa / ez degu ireki», kantatu zuen erdiko bertsoaren bukaera Gaztelumendik. «Ordu erdi ateratzen / marka ondo dago / sartzen kostatzen / askozaz gehiago», kantatua zion aurreko bertsoan Mantxik. Hirugarren bertsoan egin zuen behera. Iturriagari ehiza kontuak egokitu zitzaizkion berriro, lehen finalurreko puntu erantzunetan gisan, eta eutsiz osatu zuen ofizioa Urangarekin. Sotok gaztelaniazko esamoldea eta Espainiako erreferentziak bota Arzallusi, arrakasta handirik gabe.

Gaztelumendi amona biloba ahalik ondoen hezten saiatuko zen Fernando Anbustegik hamarrek txikirik jarritako gaien; Iturriaga aitona, aldiz, nahi zuen guztia egiten utziko zion. «Nahiz ta, igual, onena / izan tartekoa / eman nahi diezula / jarren det lepoa / zure seme-alabei / eman gabekoa», amaitu zuen lehen bertsoa Gaztelumendik. Jarrera horrekin jarraituz gero, 15-20 urte barru parean «bizitza» topatuko zutela bota zion Gaztelumendik bigarrenean, eta hala erantzun zion azken puntuan: «Bizitza izango dute / noski, buruz buru / beste guztiok ere / hala izan dugu».

Puntukakoa dute bertsolariek fase honetako beste lanetako bat. Iturriagak artez osatu zuen ariketa, Sotok zenbaitetan umore bila atakan jarri arren. Kartzelan ere eutsi zion mailari. «Zure buruari hitza eman zenion azkeneko aldia izango zela. Berriro gertatu da», jarri zion gaia Anbustegik. Arzallusek ez beste guztiok drogen eta ahalkolaren bidetik hartuzuten. «Neure burua bultzatu nuen / ordea, berriz harira / ta nire berbak ahotik irtenda / sudurretik sartu



Julio Soto, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Iñigo Mantzidor eta Jokin Uranga; atzoko sei bertsolariak, finalurrekoan, Elizondon. JON URBE / ARGAZKI PRESS

dira», amaitu zuen lehen bertsoa Iturriagak, eta era honetara bigarrenena: «Sendatu nintzen, ustez sendatu / ta berriz herrira bueltan

/ lehengo lagunak, lehengo txokak / denak lehengo tabernetan. / Bide zuzena hartu nuenean / marrazak bakarrik ertzetan / berbak

zein errez galdu ohi diren / hautsaren bihurtzetan».

Bertsolariaren ahotik kantatu zuen Arzallusek, bertsotarako

gaitasuna era harrigarrian plazaratuz. «Txapelketako saiotan / ibiltzen naiz erdi tonto / teknika beti izaten da / bertsolarien oztopo / ta errima familiak / nik umetatik gorroto. / Ongi ikasiak neuzkan / joko, zoko ta barroko. / Ta gaur hona etorri naiz / ez hanka sartzeko pronto; / nere kurrikulumean / hortxe daude zazpi poto / ta gaur berriro egin dut / hitz berdinarekin topo», azken puntu tentsioa sortu zuen oinen jolasarekin. Oinak hala botata, suarekin jolasean ari zela zirudien. Bigarrenean ere errepikatu zuen jolasa: «Buzur ikasiak neuzkan / rocka, arroka ta soka; / buzur ikasiak neuzkan / erropa eta azoka / bat falta izanez gero / sartu Mafaldaren zopa. / Ta halaxe nindoan / ustez seguru pausoka / norbere buruan kontra / hitz egiten dugu borroka. / 15 hitz bota ditut / ia denak ezin konta / destinuaren lurrean / norbait dago nere kontr».

Arnasarik deno



Analisia
Josu Goikoetxea

Arnasarik den arte. Hala xe kantatu zuen Iturriagak hasierako agurrean, arnasa zeukan artean ez zuela bere burua galdutzat emango eta bertso-guduan garaitu beharko zutela gainerako bertsolariek.

Ostera, azken agurrean txapelketa honetako azken hatsa emana zuela ere esan zigun durangarrek eta despedida dotorea eskaini zion bertsozaleak. Baina Lazaro bezala altzarazi zuten puntuak Unai eta bizirik dugu oraindik, arnasa badu, eta zain, Donostian eta Mauleko saioei adi.

Ez nuen nik Iturriaga hain goian, beharbada Arzallusek eta Mantxik atzo nigan eragindako sentsazio onak eramanda. Izan ere, bi horiek gustatu zitzaizkidan atzo gehien. Egia da Iturriaga oso sendo ikusi nuela ariketa guztietan, puntukakoa izan ezik. Betelanean bikain —pixka bat ahul zenbait bertsoaren bukeran halere—, eta oso ideia ederrek utzita tarteka. Berriz entzungo nuke gustura berak eta Ametsek hamarrek nagusian egindako lana. Ez zuten biderik errazena hautatu, lan konplexu eta zaila egin zuten, gozakaitza

entzulearentzat, baina saioko bertsoaldietako bat izan zelakoa nago. Gero, Iturriagaren bakarkakoa maisulana izan zen, lehen bertso lerro zalantzatiren bat albo batera utzita.

Arzallus asko gustatu zitzaidan, ariketa ia guztietan. Egia da puntukakoa izan zela gaiarekin interferentziaren bat (barraketa-ko bingoaz ari zen bata, hotel batekoaz bestea), baina esango nuke ez dagoela lan horretan inkoherentziarik, nahiz eta bertsolariek hori pentsatu saioa amaituta. Kartzelakoan arriskatu egin zuen eta eskertzekoa da. Bere lehen bi bertsoak antologiakoak iruditu zitzaizkidan: zazpi errimako bertsoak bederatzita eta hamarrek bihurtu zituen, maisuki, bertsolariaren barne lana azalduz. Hirugarrenean laprast egin zuelakoan nago. Oraindik bakarkako lan oso bat zor digu hendaia. Izango du aukera finalean.

Mantxi zoriondu nahi nuke atzo Elizondon egin zuen lanagatik. Gozatzen eta gozaraziz. Bertsoa erraz ekarriz. Kartzelakoan, halere, uste dut ez zuela doinuarekin asmatu eta potoa beste zigortu zioten irristada egin zuen lehen bertsoan, silaba galdu baten erruz. Baina bikain, ez naiz esaten nekatuko.

Beñat Gaztelumendirekin badut susmo bat: finalean izango da eta hor izango du aukera zor digun saio betea, hasi eta buka, egitek. Atzo maisu bakarka, lotuago ofizioan. Añorgatarra ehizatxakur bat bezala irudikatzen

dut, usnaka bere tokiaren bila. Aurkituko du, hori da nire apustua.

Urangari buruz, berriz, Gernikan aritu zena gehiago gustatu zitzaidan atzokoa baino. Uneka bertsokideari gehiago entzutea falta izan zitzaion (Iturriagarekin bertsoaldi osoan eta Arzallusekin bere bigarrenean), baina ordainetan kartzelako lan doto-

rea, goitik beherakoa eman zigun.

Julio Sotori berriz, esango diot lasai egoteko, izango direla txapelketa gehiago eta ezagutzen dugun bertsolari ederra entzuteko gogoz izango garela.

Saio ona atzokoa. Izan litezke hobeak oraindik.

Eta arnasarik eta tarterik gabe geratu aurretik, isil nadin.

AZAROA ABENDUA
 24 Aterrabia 1 Orereta
 29 Zumaira
 30 Gernika
 www.hamlet.kz

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Plaza lehertu duten bertsoak eta bertsoaldiak izan dira finalaurrekoen bigarren itzuliko lehen bi saioetan. 1.400 bertsozale izan ziren Elizondon, eta 2.480 Donostian, eta aise nabari zen saioa noiz berotzen zen.

Metxadun bertsoak

Beñat Zamalloa Akizu Donostia

Plaza aurreneko aldiz hasierako agurrekin lehertu zen. Lehertu zen, igandean, Alaia Martinen bertso kulturalki eta politikoki jantziarekin. *Izarren hautsa* doinua aukeratu zuen beste behin hasierako agurrerako: «Izan Laboan behelainoa / edo Leteren sehaska / ta, batez ere, Alaia izan / lortu edo ez arrakasta. / Edo omenduz Arnaldo Otegi / baikorra izan / amesten segi / irrarre egin, Gaska / irabaztera goaz ta». Eta lehertu zen 2.480 bertsozalez betetako Gaska, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoan. Bigarrena zen, eta bakarra falta zen: datorren larunbatekoa Aurreko finalaurrekoan, larunbatekoan, Jokin Urangaren jarrera dotoreko hasierako agurra ere txaloen akuilu izan zen: «Nik kristona egin behar nuke / eta besteek erori / eta gaizki egiterik / ez diot opa inori».

Propio umorerako jarrita, gaiak berak sortzen du umorea sarritan; batez ere, zortziko txiki-ko ofizioetan. Mahai bueltako bi egoera topiko izan ziren asteburuko bi saioetan. Donostian, Jon Martini eta Aitor Sarriegiri egokitu zitzairen. Saroi Jauregik aurkeztu zien gaia: «Jon Aitor aspaldiko lagunarekin geratu da bazkaltzeko. Ordu erdi baino ez daramate elkarrekin, eta dagoeneko bost aldiz jo dio telefonoak Aitorri, eta oraingoan ere hartu egin du deia». Ezagun egin zitzairen egoera hainbat entzuleri, eta bat egin zuten Jon Martinek kantatutakoarekin: «Hara, teknologiak / nola jarri gaitun: / urrunetik gertu / gertukotik urrun». Eta igarri zen entzuleen erantzunean. Biribiltzeko ideian ere enpatizatu zuten: «Ez dakit nola egin / behar didazun kasu; / telefonoz deituta / hartuko al didazu?». Galderak

galderari erantzun: «Orain bilera bat dut / lauak ta bostean; / geldituko al gara / datorren astean?».

Julio Sotori eta Amets Arzallusi Elizondoko Baztan pilotalekuan tokatu zitzairen mahai bueltako gaia. Fernando Anbustegik aurkeztu zien: «Juliok eta Ametsek 40 urtekoen afaria dute gaur. Ametsek afari osoa darama haurrak goiti eta haurrak behiti, eta Julio asper-asper eginda dago». «Ia ulertzen duzun / esanda aldrebes: / 'Isilduko al zara / de una puta vez?'», ekarri zuen gaztelaniaz Sotok. Urre bihurtu zuen, ordea, Sotok ekarria Arzallusek: «Zuk nere haurtxoari / hitz hoiak ebaki- / baina alperrik zabiltz / erderaz ez daki». Bertsozaleek eskertu zuten euskaratik ekarri izana.

Kontrasteak eragin zuen bertsoaldiaren arrakasta Fredi Paia eta Jon Martinen artekoan, Gaskan. Estilo «erotiko festibotik» jo zuen Paia; sentiberagotik Jon Martinek. Bietarako aukera eman zien gaiak: «Bikotea dira Fredi eta Jon. Jonen ama hil da, eta Frediri esan dio aita alarguna bien etxera ekarri nahi lukeela bizitzera». Paiazen estiloak jaitik gehien sortu zuen bertsoa honako hau izan zen. Aitaginarreba-aren estereotipoa hala janzteak lagundu zion festarako: «Zure aitakin ostiaka / amaitu dut usu. / PPko bozkatzaile / etikan abusu; / aita santuai ere / eman zion musu. / Bera, hura, ni, zua / horrela gaituzu / maitea erabakitzen / ikasi behar duzu».

Doinu berrien lehen aldia

Igor Elortzaren doinu berriak berriaren aurreko unea sortu zuen entzuleen artean. Antton Valverderen *Hegaztientzat pausarri* kantuan oinarritutako doinua zen. Melodian eta egiturari jarri zuten entzuleek belarria. «Nekatuta zaude, baina badakizu



Bertsozale multzo bat barrez eta txalo jotzen, pasa den igandean Donostian jokaturako saioan. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Fredi Paia zatotik ardoa edaten, joan den igandeko finalaurrekoan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

34» Ruper Ordorikak arrakastaz aurkeztu du 'Azukre koxkorak' diskoa Viktoria Eugenia

35» Gossip eta Mark Laneganen doinuek entzuleen arreta piztu dute BIME jaialdian

Bertsolari Txapelketa Nagusia →



ezin zarela gelditu», hala zioen kartzelako gaiak. Etorkinaren papera jokatu zuen Elortzak, eta jakin zuen egoeraren gordintasuna erakusten. «Inoiz ere ez dut jakin / noiz jausiko naizen hilik / nik aurrera jarraitzen dut / neure besoei ekinik / ta oraintxetik jakinik / lurrean ere ezingo dut / inoiz gelditu geldirik», bigarren bertsoan adibiderako. Doinu berriaren ezezagutzan, hitzak artezko moldean ezagun.

Azken agurrak puntuazioaren aurretik bota behar izaten dituzte bertsolariek. Honela kantatu zuen Baztan bezala sentitzen zen Iturriagak, «beti hortxe, beti mugan»: «Ta zuri entzule esan nahi dizut / jausi naizen hontan gudan / ze estimatua sentitu naizen / ta zenbat behar zaitudan». Jaso zuen entzuleen estimua orduan, eta baita gudan jarraitzen duela jakin zuenean ere. Lasaiago bukatu zuen Elortzak, txaloek bota ahala indarturik: «Ternua geugan dago / ta biba zu Long John / baina hau txapelketa da / eta show must go on: / Lehenbizi, Maulen; / gero, Barakaldon. / Bertsoak ere ezin du / geldirik egon».

↓ Sailkapenak

SAILKAPEN OROKORRA

1. Amets Arzallus	1.436,5
2. Igor Elortza	1.425
3. Beñat Gaztelumendi	1.392,5
4. Unai Iturriaga	1.374
5. Aitor Sarriegi	1.362
6. Alaia Martin	1.341,5
7. Iñigo Mantzizidor	1.331
8. Jokin Uranga	1.325,5
9. Etxahun Lekue	1.288,5
10. Jon Martin	1.282
11. Fredi Paia	1.279
12. Julio Soto	1.259,5
13. Sustrai Colina *	706
14. Aitor Mendiluze *	694,5
15. Unai Agirre *	670,5
16. Jone Uria *	653
17. Agin Laburu *	650
18. Jexux Mari Irazu *	638,5

*Bigarren finalurrekoa jokatu gabe

LARUNBATEKO SAIOA

■ **Bertsolariak:** Agin Laburu, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Jone Uria, Sustrai Colina eta Unai Agirre.

■ **Lekua:** Maule-Lexarreko Orona ezker paretan.

■ **Ordua:** 17:30.

Puntuen langa buruan



Analisia

Gorka Azkarate

Donostiako Gaska kiroldegia mini-belodromo bilakatu eta jendez lepo bete zen igandean finalerdietako bigarren itzuliko bigarren asaltan. Saioa, baina, gorabeheratsu xamarra izan zen, ez dakitzenbat-puntu lortu beharrak bertsolariak estu lotu izan balitu bezala-edo.

Igor Elortza izan zen guztien artean erregularrena, oso fin saio osoan zehar eta dizdiratsuegi aritu ez zen bertsoaldietan ere sendotasuna mantentzen asmatuz. Hamarreko handiko ariketan bikain sartu zen mojarren paperean. Jainkoari erreferentziak eginda sinesgarritasun handia irabaziz. Eta hala, haserako ariketan erakutsitako mailari eustea lortu zuen bukaeraino, Alaiarekin egindako puntukako jardun epel xamarrean salbu. Bakarkakoan doinu berri bat plazaratu zuen eta bere ohiko estiloan puntu motzak eta luzeak maisuki kateatu zituen, lehenbiziko bi bertsoetan bereziki. Maulen kantatuko duten sei bertsolariek berak baino puntu gehiago batzeak bakarrik utziko luke durangarra finaletik kanpo, utopikoa dirudiena.

Alaia Martin eta Aitor Sarriegi sailkatu ziren Elortzaren atzetik, puntu kopuru ia berdinare-

kin biak. Joaneko eta itzuliko saioetan lorturiko puntuen batzura, ordea, aldeko du Sarriegik. Beasaingarrak ez zuen bere saiorik onena egin, ezta gutxiago ere. Hamarreko nagusian eta hamarreko txikian eman zuen bere mailarik onena; 8ko txikiko ariketan, ordea, lehenengo bertsoa ez zuen nahi bezala borobildu eta ondoren hartu zuen bidea ere (kultura diputatu okupatua zela eta emandako aitzakia) ez zen ofizioa lehertzen duten horietakoa izan. Puntukako jardunean, bestalde, Frediren enbata gainera etorrita nahikoa lan izan zuen aterkia irekitzen. Kartzelakoan bertsoaldi akatsgabea osatu zuen, maratonia korritzen ari den lasterkariaren azaletik kantatuz, nahiz eta agian guztiz beharrezkoa izan ez lasterkari horren karikatuzazioan bihotzeko gaitza izan zueneko ñabardura ere gehitzea. Sutara beti egur gehiago bota behar horretan erreta amaitzen ez ote dugun sarritan... Kontuak kontu, igandeko saioa baino lehen finaleko txartelaren erdia poltsikoan zuen Sarriegik eta saioaren ostean txartelaren bi laurdenak (!). Hots, itxaron egin behar.

Igandeko saioan bigarren postua erdietsi arren Sarriegik baino koska bat zailagoa dauka Alaia Martinek BEC-en kantatzeko bere ametsa betetzea. Gipuzkoako txapelketan behe-behetik hasi ostean urrun iristea lortu du, eta pozik egoteko moduan da egin duen lanarekin. Donostiako saioan, esaterako, maila handiko bertso bat baino gehiago oparitu zizkigun. Bere anaiaaren moduan, bidenabar

esanda. Bakarkakoan baino ofiziotako ariketetan aritu zen solteago Jon Martin. Puntukakoan, adibidez, Etxahun Lekuerekin bertsoaldi polita osatu zuen. Larrabetzuarrak ere kolpe politak eman zituen ariketa honetan; saio osoan zehar, bestalde, bere erregularitasuna agerian utzi zuen beste behin ere.

Bukatzeko, Fredi Paia. Atzo kantatu zituen bertso asko teknikoki zuzentzeko modukoak izan ziren, bistakoa da hori, baina botatuko bertsoez haratago, jarrera bat isladatzen du Fredik, nola txapelketaren aurrean, hala bizitzaren aurrean. Kartzelan hartu zuen bidea harrigarria bezain arriskatua izan zen. Ez zuen borobildu. Hori bai, bide berriak urratu nahiaren meritua ez diogu behintzat kenduko... Gaizak horrela, Maule Lextarren ikusiko dugu elkar larumbatarekin. Biba Xiberua!

PD: Birritan aipatu zen bertsoetan joan den igandeko saioan, bertsoaldi ezberdinetan gainera, Jon Agirresarobe, *Torrotxo*. Aldameneko batek «nor da Torrotxo?» egin zidan galde, ezizena entzun ahala. Kontuz horrelakoekin. Orain baino lehen Aritz Galarragak egunkari honetako *Ekografiak* atalean majo larrutu zuen Argia aldizkariaren webgunean txapelketaren aitzakian abian jarritako «Damutuko zaizute» saioa, saio horretan «gremioko jendearentzat soilik diruditen txisteak» egiten dituztela egotzita, besteak beste. Igandean, «gremiokoa» ez den jendeak nekez harrapatuko zituen Torrotxoren aipamen horiek.

UDA GOIENENKO

OSTERA

GABRIEL EN

LEKUA

BERRERAN SAIMENTA!

BERMEO,

KAFE ANTZOKIA

Azaroaren 28an, eguena, 20:00etan

Sarrera: 6 €

Antolatzailea: Enkartzatzen topagunea

Babeslea:

Laguntzaileak: **berria**

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia >

Beñat Zamalloa Akizu Durango

«Sorpresa itzela» hartu zuen Unai Iturriagak (Durango, 1974) Elizondoko finalaurrekoan bere izena entzutean irabazlearen puntuketa altuari lotuta.

Nola planteatu duzu «guda» zure bizitzako momentu honetan?

Guda nahiko era baketsuan planteatu dut. Ahal izan dudanean entrenatu, jarrera positiboa izaten saiatu, eta ezin denean bururik ez jamez. Gure etxean etxeko bi helduok parte hartu dugu txapelketan. Pentsatuko duzu horrek zelako nahastea dakarren, eta zer moldaketa lana egin behar den hor. Hori horrela, hartu dut hartu ahal zen modurik onenean Tolosako arte. Txapelketa barruan zaudenean sentimendu horiek gobernatzen zailagoak dira. Entrenamenduetan, askotan, oso gustura ibili naiz, eta pentsatu izan dut entrenamenduetako hori eginez gero aurrera egin dezake dala. Aldi berean, entrenamenduetako hori ez egitea oso-oso posibletzat neukan.

Horrek freskotasuna ekarri dizu?

Beharbada, bai. Ez dut inoiz eduki txapelketa batean Tolosan eduki dudana gorputzaldia. Egia da freskotasun horri gehitu behar zaiola anbizio edo tenple pixka bat. Baina ez zegoen beste modurik. Eskerak ez nuen txapelketa beste modu batean hartzeko asmorik izan. Nik garbi neukan ez nindoala sufritzera txapelketa honetan gerta ala gerta.

Nola ulertu nahiko zenuke Tolosan jaso zenuen txalo zaparrada?

Tolosan poto egin eta gero jasotako txalo zaparrada hori izan da nire bertso bizitzan jaso dudana txalo zaparradarik politena: bat-batekoa izan zelako, ez zen izan lorpen bati jotako txalo bat, ez dut uste errukiz jotakoa izan zenik ere, eta Tolosan izan zen, ez zen Durangon izan. Ederra izan zen, eta hartzeko prest nengoan.

Txapelketak zer emango zizulakoan aurkeztu zinen?

Zintzo esaten badizut, aurkeztu nintzen lanik ez galtzeko, eta damutzen naiz. Damutu izan naiz izena eman izanaz, aurreko txapelketa amaitu zenean garbi nuelako ez nuela berriro parte hartuko. Bizitzako momentu batzuetan beldurrak sartzen zaizkizu, lan egoera ere dagoen moduan dago, eta, momentu batean, neuk urte askotan esandakoen kontra, beldurtu egin nintzen. Ez da hori bakarrik izango, baina hori izan zen motibazio nagusia.

Lanaz ari zarenean, plazez ari zara?

Urte batzuetan nire ardatza izan da nire bizitzan eta nire bizibide moduan. Urte batzuetatik hona geroz eta gutxiago da, eta urte batzuetatik hona nire bizitza ere konplexuagoa da. Bizimodua titi-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Unai Iturriaga > Bertsolaria

Elizondoko finalaurrekoaren aurretik ez daki esperantza, ametsa ala nahia zuen Unai Iturriagak. Akatsik gabe baina Tolosakoaren antzeko saioa egitera joanda, finalerako aukerarekin da.

«Txapelketan gerta ala gerta, nik garbi neukan ez nindoala sufritzera»

ritero moduan atera dugunok, eta ateratzeko asmotan jarraitzen dugunok, garai gogorak ditugu aurrean. Badakit ez zela gauza handirik aldatuko, baina ohituta gaude neurri batean fokuan bizitzera ere, eta lanaz gainera, hori ere badago. Proba egin arte ez da jakiten zer pasatzen den. Txapelketa nola joan den ikusita, ez naiz damutzen, baina nire hautua izenik ez ematea zen.

Aurreko txapelketan, zuen belaualdia «ezinbestekoa» ez dela adierazi zenuen. Txapelketa honetan berdin pentsatzen jarraitzen duzu?

Nik uste nuen txapelketa honetan errelebo handiagoa izango zela. Plazan, neurri batean, izan da. Nik nire ibilbidean behintzat ikusten dut. Era berean, ez dezagun ahaztu txapelketa puntu pilaketa bat dela. Horretan, agian, inozo samarra izan nintzen: puntu pilaketarako, esperientziak balio du, eta laguntzen du. Gure be-

launaldian bagaude jende dezenteko oso buru-belarri bizi duguna eta bizi izan duguna bertsoa. Akaso, ez da adin desberdintasun bat bakarrik beste batzuekiko.

Nola hartu duzu Jon Maia kanpoan gelditzea?

Pena handia hartu dut Jonekin, bene-benetan. Jon lau urtean ederto ibili delako beftsoan, badakidalako Jonek nik eduki ditza kedan kezka edo zalantzak ez dauzkala, parte hartu gura zuen, han egon gura zuen, eta, niretzat, lau urteko plazetan, Jon finaleko pertsona bat zen. Txapelketa erlatibizatzeke balio lezake.

Eta nola ikusten duzu Igor Elortza ki-dea txapelketa honetan?

Oso ondo. Orain arte, behintzat, Igorri gauzak joan zaizkio bere lanaren eta bere jarreraren arabera. Pozten naiz, Igor presentzia handiarekin sartu delako txapelketan. Helburu desberdinekin aurkeztu gara. Igor hortzak zo-

roz tuta hasieratik, eta ni ez nekiela hortzak zorrotz nituen edo hortzordearekin nenbilen. Bioi gauzak ondo joateak itzelezko mesedea egiten digu bioi, eta inguruari ere bai.

Nola doazkizu plazak azken urteetan?

Astiro-astiro beherantz. Ni plazan baloratua sentitzen naiz. Ez naiz sentitzen duela hamar urte baino gutxiago maitatua. Arrazoi logiko denak daude lehen finkotzat neuzkan lekuak beste batzuk betetzeko. Naturala eta ona iruditzen zait. Ez dut uste desagertuko naizenik plazetatik, baina beste batzuk sartzen badira lau aulki dauden lekuan; normala da plazak murriztea. Bestalde, eremu batzuetan ez naiz sartu, eta logikoa iruditzen zait, beste bertsoera batzuk estimatzen dituzte. Eskaintza zabala dago, eta logikoa da leku batzuetan ni Patillas izatea.

Txapelketarekin plaza kopuruari eutsiko diozun esperantza duzu?

Beldurretik gehiago du esperantzatik baino. Momentu konkretu batean harrapatu nau. Nire motibazioa ez da hori bakarrik izan, baina nire lana da. Ez diot inoiz inora joateari uko egin dirurik egon ez delako, eta ez dut inoiz lo-

«Nola joan den ikusita, ez naiz damutzen; baina nire hautua izenik ez ematea zen»

«Tolosan jasotako txalo zaparrada hori izan da nire ibilbidean jasotako politena»

tsarik eduki nire lanarengatik kobratzeko. Jarraitu gurako nuke lan honetan, ez dirua irabazteko: gustatzen zait, urte asko daramatzat lan hau egiten, eta uste dut nire lan honek merezi duela.

Txapelketan argitaratu dituzun komikiak terapia ere badira?

Terapia dela Elizondoko saioaren aurretik gorputzaldi txarra nuen ikusi nuen argien: jarri nintzen komikia egitera, eta lasaitu egin nintzen. Ez nintzen asmo kontziente horrekin hasi. Konturatu nintzen funtzionatzen zuela, eta jendeak barre ere egin du. Ohartu nintzen modu polit bat izan zitekeela nire txapelketaren beste irakurketa bat egiteko.

Finalera iritsiko bazina, zer jarrerarekin hartuko zenuke?

Saiatuko nintzateke, posible balaiz, Tolosako jarreratik gertu ibiltzen, beste tentsio puntutxo batekin. Egunak merezi duelako. Gozaraztera joango naiz.

Zer litzateke txapela janztea?

Ez nuke gurako. Niretzat, txapela da nire lagun baten buruan oso ondo geratzen den jantzi bat. Ez da nire ametsa. Ez nago prest, eta ez dut prest egon gura. Mundu honetan gabiltzanontzat badauzka esanahi batzuk, gauza pisuzko bat da, eta, beharbada, nik ihes egiten dut ardura horretatik.

Zein dira esanahi horiek?

Bertso munduan erreferente garrantzitsu bat izatea; euskal kultur munduan eta kulturatik kanpora ere esanahi bat badu. Karga bat da, ardura bat, erantzukizun bat. Neure burua ez dut ikusten txapel horrek daukan gerizpe guztia hartzeko moduan, ez gaitasunez, ez gogoz. Joera frankotiratzailleagoa dugunontzat, ikuspegi zentralgia da.

Azken «gudan» sentitzen zara?

Bai, bolada baterako bai behintzat. Txapelketa ulertzen dut, bere funtzio asko betetzen ditu, asko konpartitzen ditut, baina nik bertsolari moduan jadanik ez dut nire burua hor ikusten.

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

«Ezer ez da neutroa»

Genero ikuspegia aztertzen eta garatzen ari dira zenbait bertsolari euren kabuz, Bertsozale Elkartearen barruan

Proporzioan, plazan dabilzan baino emakume gehiago aritu dira txapelketan

Beñat Zabalza Aktzu

«Ezer ez da neutroa; dena da erakia». Horretaz ohartarazi du Ainhoa Agirreazaldegik. Hori horrela izanik, «burura denoi datorkigun erreferentia aldaraz dezakegu lanketa baten bitartez». Baita bertsolaritzan ere: «Bertsolaritza mundu zuri, klase ekonomiko ertain, heterosexual eta gizonezkoen arteko garapen bat izan da, eta horri buelta emateko, etxeko lanketa bat egin beharko genuke: bai gaietako, bai bertsolari modura...». Genero ikuspegia aztertu eta landu du bertsolaritzaren barruan Agirreazaldegik, Uxue Alberdi bidelagun duela.

Azkenaldian, Alberdi eta Agirreazaldegi dira generoaren gainean gehien aztertu eta garatu dutenetakoak, baina Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen barruan ere badago generoa lantzen duen talde bat. Azken urteetan generoa lantzeko beharra «nabarmen» ikusi dela dio Ixiar Eizagirrek, zeina Bertsozale Elkartearen generoari buruzko taldean diharduen. Lehenago ere jar-

dun zirela argitu du, eta zehaztu du Kristina Mardaras bertsolaria eta «haren inguruko emakumeak» kontzientzia horrekin ibili zirela. Azken urteetakoetara itzuli da ondoren: «Duela hamar urte elkartu ziren, Askizun, eta han horrelako esnatze bat edo kon-



Konturatu behar dugu bertsolaritzan gizartearen erdia ez dela islatuta egon»

AINHOA AGIRREAZALDEGI
Bertsolaria

Duela 10 urte elkartu ziren, eta kontzientziatu ziren bertso munduan emakume izateaz»

IXIAR EIZAGIRRE
Bertsozale Elkartearen genero taldeko kidea

tzientzia hartze bat izan zen: emakume modura bertsolaritza nola bizi izan zuten edo zer zen emakume izatea. Hurrengo urteetan geroz eta irakurketa gehiago egon ziren».

«Etiketa umoretsuen» bidez

azaldu izan dituzte Agirreazaldegik eta Alberdik bertsolari emakumezkoen belaunaldiak: lehenengo *drag queen*-ak izan zirela esan izan dute, eta «panpinak», gero. *Drag queen*-ena azaldu du lehenbizi Agirreazaldegik: «Adierazi nahi duena da emakumeek, 80ko hamarraldian bertsolaritzan sartu zirenean, euren baliorik femeninoenak oholtza azpian utzi behar izan zituztela edo utzi zituztela inkontzienteki. Gizonen terminoetan lehiatu ziren gizonekin. Neska gazte horiei onartzen zitzaizkien gutxi gorabehera gizonen balioak bazituztela». *Panpinen* belaunaldia etorri zen gero: «Etorri zen belaunaldi berri bat fisikoki femeninoagotzat jotzen ditugun balioekiko hurbilago sentitzen dituztenak. Egon izan dira entzuleak esan izan dutenak gaur egungo neska bertsolarien neska diruditelako, aurrekoak ez balira bezala». Azkeneko horiengan emakumeak gehiago ikusten dituzte ikus-entzuleak, Agirreazaldegiren iritziz, baina horrek bertsolari bezala ikustea eragozten duela zalantza du, ordea. «Batuetan ez dakit zenbateraino ez ote den zalantza egiten benetako bertsolariak ote diren horiek».

«Betaurreko antisexistak»

«Betaurreko antisexisten» premia aipatu izan dute. «Lehenengo eta behin, betaurreko horien premia genuela jabetzeko. Askotan, ikusteko intentzioak berak gauza asko ikusarazten digu», azaldu du premiaren abiapuntua Agirreazaldegik. Bertsolaritzari berari begira jarri da horren ostean. «Batez ere, orain dela gutxira arte bertsolaritzan mundu erdia baino gutxiago egon da islatuta. Azkenean, gizonek egindako jarduerak bat denean, bertsolari, gaitzartzaile zein antolatzaile modura, urte askoko historia dago hori. Hori kontuan hartuta, eurenetik abiatzen dira, eta konturatu behar dugu gizarte erdia ez dela islatuta egon horretan. Emakumeen existentzia bertsolaritzan ez da egon», azaldu du.

«Garatu beharra dagoela ikusteko» balio dute betaurrekook. Bertsozale Elkartearen barruan ikusi zuten hori, eta horretarako bidea hasi zuten. «Ikusi genuen funtsezkoa zela genero talde bat egotea. Ekintzetan parekidetasu-



Erika Lagoma eta Oihane Perea, Altsasun jokaturako kanporaketan.

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

↓ Gaurko saioko bertsolariak



SUSTRAI COLINA

- **Jaioterria.** Urruña.
- **Jaioturtea.** 1982.
- **Txapelketako ibilbidea.** Lehen finalaurrekoan ondo aritu zen, eta goi postuetan sailkatu zen. Finalerako faboritua da.



UNAI AGIRRE

- **Jaioterria.** Hernani.
- **Jaioturtea.** 1975.
- **Txapelketako ibilbidea.** Txapelketa honetan oso ondo dabil, kantaera bereziarekin. Finalerako aukerarekin dago.



AITOR MENDILUZE

- **Jaioterria.** Andoain.
- **Jaioturtea.** 1975.
- **Txapelketako ibilbidea.** Mailari eutsi arren, ez zuen aurrekoetako mailarik onena erakutsi. Finalerako faboritua da.



AGIN LABURU

- **Jaioterria.** Astigarraga.
- **Jaioturtea.** 1985.
- **Txapelketako ibilbidea.** Bizi eta fresko hasi zen kanporaketan, baina lehen finalaurrekoan apalago kantatu zuen.

Hitzak. Hika Teatroaren antzezian berria. Hitzak, hitzak besterik ez. Hitez eragindako tratu txarrei buruzko istorioa.

Klara Bacigala, Itziar Ituño, Ane Pikaza eta Jabi Barandiaran, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

ASTIGARRAGA, Kultur Etxean
azaroak 30 // 20:00ean

berria

docecal



↓ Saikapena

OROKORRA

1. Amets Arzallus	1.436,5
2. Igor Elortza	1.425
3. Beñat Gaztelumendi	1.392,5
4. Unai Iturriaga	1.374
5. Aitor Sarrlegi	1.362
6. Alala Martin	1.341,5
7. Iñigo Mantzizidor	1.331
8. Jokin Uranga	1.325,5
9. Etxahun Lekue	1.288,5
10. Jon Martin	1.282
11. Fredi Paia	1.279
12. Julio Soto	1.259,5
13. Sustrai Colina *	706
14. Aitor Mendiluze *	694,5
15. Unai Agirre *	670,5
16. Jone Uria *	653
17. Agin Laburu *	650
18. Jexux Mari Irazu *	638,5

*Bigarren finalurrekoa jokatu gabekoak

GAURKO SAIOA

■ **Bertsolariak:** Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Agin Laburu, Jone Uria, Unai Agirre eta Jexux-mari Irazu.

■ **Lekua:** Maulen Oronena ezker paretan. ■ **Ordua:** 17:30.

na sustatzeko, emakumeen eta gizonen parte hartzea areagotzeko eta emakumeen parte hartzea geroz eta irekiagoa izateko eta espazio berriak irekitzeko», azaldu du Eizagirrek. Garapenak eta belaunaldi berriek «askatasun-erantz» bidea egin beharko luketela irizten dio, hain zuzen ere, Agirreazaldegik. «Gizon eta emakume etiketak kendu, pertsonen ahotik kantatzera iristeko. Binomio hori puskatzen ari gara, baina pertsonen nabardurak dira onartu behar ditugunak», erantsi du.

Hasieran, %30

Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken finalurrekoa jokatu da gaur, Maulen, eta bertan emakume bakarrak kantatu du: Jone Uria. %30 ziren emakumeak txapelketaren hasieran. Plazaz plazakoan, aldiz, portzentajea baxuagoa dela pentsatzen du Agirreazaldegik. «Pentsatzen dut %10etik oso urruti ez dela ibiliko», egin du kalkulua Elgetako bertsolariak. «Horrek ez du esan nahi emakumeek gehiago kantatzen dutela emakume direlako; alderantziz, gutxiago kantatzen dutela emakume direlako. Adierazi nahi du gizonen gizon direlako deitzen zaiela», azaldu du.

Hori gaiztuz hasteko, elkarreko genero taldean abian dauden proiektu eta sail guztietan genero ikuspegia txertatzen ahalegintzan dira. «Ahalik eta jende gehienak ahalik eta esparru gehienetan kontzientzia hartzea da gakoa», Agirreazaldegiren ustez.



JONE URIA

■ **Jaioterria.** Algorta.

■ **Jaioturtea.** 1990.

■ **Txapelketako ibilbidea.** Ofizioetan gehien erantzun duen bertsolaria izan da aurreko bi saioetan, beti mailari eutsiz.



JEXUX MARI IRAZU

■ **Jaioterria.** Larraul.

■ **Jaioturtea.** 1972.

■ **Txapelketako ibilbidea.** Serio ari da txapelketa honetan. Dena den, azken postuan iritsi zen fase honetara.



David Munnelly trikitalaria.

Nazioarteko soinu jotzaileen jaialdia gaur Getxon

Hamar urte bete ditu Getxoko ekitaldiak, eta hori ospatzeko, gauean erromeria egingo dute

Arantz Muguruza

Hamargarren aldiz egingo dute Getxoko Nazioarteko Trikiti Jaialdia gaur, bertako Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 19:00etan. Aurten, Irlandako eta Portugalgo soinu jotzaileak etorriko dira, haiek trikitia jotzeko duten estilo eta modua erakusteko helburuz.

David Munnelly trikitilaria izango da Irlandako ordezkaria. Hango soinu jotzaile ezagunena da, moldaketa zail eta konposizio modernoak egiten abilezia daukalako. Gerry O'Connor eta Sharon Shannon musikariek eta

The Chieftains talde zeltarraren aritutakoa da.

datorren Artur Fernandes portugaldarra ere izango da jaialdian. Daças Ocultas taldekoa da, eta kontzertuak eman ditu Italian, Kroazian, Taiwanen eta Marokon, besteak beste.

Euskal Herriko ordezkari, berri, talde bat eta bi bikote arituko dira. Maixa Lizarribar eta Alaitz Telletxea trikitilari ezagunek emanaldia emango dute, pändero jotzailerik gabe. Alboka Tropik Uztaritzeko (Lapurdi) taldeak ere bere kontzertua egingo du. Trikitia tronpeta, txistu eta panderoarekin uztartzen dute. Urretxu eta Zumarragatik (Gipuzkoa) etorriko dira Gari eta Iñaki. Plaza txikitetan zein handietan jotzen ohituta dagoen bikotea da.

Jaialdiaren ondoren, dantzarako aukera izango da: Aldats taldea Algortako The Piper's tabernan joko du.

Nazioarteko nahiz tokiko akordeoi jotzaile onenak bilduko dira Arrasaten

Abenduaren 6tik 8ra, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa, Arrasate Hiria Lehiaketa eta Gipuzkoa jaialdia egingo dituzte

Erredakzioa Donostia

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatutako akordeoi lehiaketen harira, nazioarteko zein tokiko akordeoi jotzaile onenak bilduko dira aurten

ere Arrasaten abenduaren 6tik 8ra. Izan ere, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa, Nazioarteko Arrasate Hiria Lehiaketa eta Gipuzkoa jaialdia antolatu dituzte egun horietarako.

Lehiaketekin batera, hainbat kontzertu eta hitzaldi emango dituzte. 39 urteko ibilbidea egin dute Arrasateko akordeoi lehiaketek eta, antolatzaileen esanetan, erreferente bilakatu dira, bai Euskal Herrian, eta baita nazioartean ere. Akordeoi ikasleentzat ere «beharrezkoak» direla diote.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

Kultura eta aisia
euskaraz
Donostian

antzerkia

- **'Bi arreba'**
Xabier Lizaso, Andoni Egaña
Abenduak 1, 19:30
Gazteszena (Egia)
Euskararen Nazioarteko Eguna
- **'Koka Kola Eta Barea'**
Ramon Agirre, Inaxio Tolosa
Abenduak 1, 19:00
San Telmo Museoa
Euskararen Eguna Parte Zaharrea
- **'Bernarda Klownaren Etxea'**
Zurriola Antzerki Eskola
Abenduak 4, 20:00
Gazteszena (Egia)

musika

- **II. Altzatarock**
Governors + Sen + Eratu
Azaroak 30, 21:00
Larratxo KE
Antolatzaileak: Bizarrain, Altzako Gazteen Asanblada, Donostia Kultura
- **'Indar bat dabil hor'**
Mikel Markez
Abenduak 1, 19:00
Antzoki Zaharra
Kolaboratzailea: Elkar
- **Klasikat: Ken Zazpi - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**
Abenduak 3, 20:00
Kursaal Auditoriuma
Antolatzailea: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Zinema
- **'Alaba zintzoa'**
Azaroak 29, abenduak 5
Principe Aretoa
- **'Sentimenduen hauspoz'**
Imanol Oroitzuz
Azaroak 30, 17:00
Doka Kafe Antzokia
Bideo proiektzioa + mikro irekia
- **'Amaren eskuak' (2013)**
Abenduak 3, 19:00
Proiektzioa eta solasaldia
Mireia Gabilondo (zuzendaria) eta Karmele Jaio (idazlea)
San Telmo Museoa (Ekitaldi aretoa)
- **'Andregai saldua' (Alemania. 75')**
Abenduak 4, 20:00
Antzoki Zaharra
Jatorrizko bertsioa euskarazko azpidatziekin
Antolatzaileak: Euskadiko Filmategia, Donostia Kultura

haur zinema

- **'Jelly T'**
Azaroak 30, abenduak 1
Antiguo Berri
- **'Doraemon eta Nobita Holmes, Etorkizuneko Museo Harrigarria'**
Azaroak 30, abenduak 1
Antiguo Berri

erakusketak

- **Bisita gidatua**
'Alde Zaharretik 200 Urteko Hiria'
Carmña Dovale + Ana Aizpuri
Abenduak 1, 11:00
San Telmo Museoa
Antolatzaileak: 1813-2013 Bigarren Menduegrena, San Telmo Museoa
- **'Badugu, bagara'**
Bisita dinamizatuak
Abenduak 4-6, 18:00
San Telmo Museoa
Euskararen Eguna
- **Ekitaldi ugari Donostiako auzo eta herrietan**
Azaroak 23 - Abenduak 5
Antolatzaileak: Euskara Zerbitzua (Donostiako Udala), Donostia Kultura eta auzoetako hainbat eragile
Informazio gehiago:
www.euskaraz.net



www.euskaraz.net

Erabat berdina izan gabe



Sustrai Colina, pozik, saioko puntuaketa altuena lortuta, eta BECerako txartela eskutan. GAIZKA IROZ

Colinak irabazi du azken finalurrekoa, eta Sarriegi izan da azkena finalera sailkatzen, puntuetan Agirrerekin berdindu ostean

Beñat Gaztelumendik beteko du finalerako Andoni Egañak utzitako lekua

Beñat Zamalloa Aktzu

691,5 puntu baino gehiago behar zituen Maulen Unai Agirrek Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera sailkatzeko. Hortik gora apur bat nahikoa zuen Sarriegiren gainetik sailkatu eta finalean izateko. Joana Itzaina aurkezleak Agirre bigarren sailkatuaren 691,5eko puntuaketa eman ondoren, zortzi finalistak zein izango diren jakinarazi arte itxaron behar izan zuten bertsozaleek jakiteko berdinketatik nork egingo zuen aurrera. Sarriegi kokatu du finalurrekoetako zazpigarren postuan, epaileek berdinketa kasuetarako erabiltzen duten irizpideak: Bertsolari bakoitzaren finalurreko lan gutzien puntuazioen

batura eginda, epaile gehiagorentzat izan da Sarriegi Agirre baino hobea. Beraz, Sarriegi izan da azken sailkatua. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi izango dira Barakaldoko BECeko oholtzara igoko direnak. Hori horrela, Beñat Gaztelumendi izango da finalean Andoni Egañak utzitako lekua beteko duena, eta finalista berri bakarra.

Maulen jokatuak azken finalurrekoa Colinak irabazi zuen, azken ariketatan abaila hartuta. Izan ere, ofizioetan ez zuen askotan aurkitu luzitzeko aukera. Hatak, mailari erori gabe eutsi zion. Agirrerekin puntutan bizi eta dotore jardun ondorengo kartzelan

luzitu zen, orain arteko kartzelarik puntuatuena eginda. Freskoa eta zuzena izan zen Colinaren barkakakoa. «Nehork ez zuen espero baina lortu egin duzu», zen gaia. Kartzelakoak txapelketan aurrez izan diren beste kartzelako gai batzuk zekartzan gogora: Donostiakoa eta kanporaketetako Hendaiakoa.

Ez zen bertsolarien rolean kantatu zuten hiru bertsoaldien artean Colinarena. «Hamazazpi urte ditut / ia-ia egin naiz handi. / Hortzetako aparatua / eta aknea ugari; / sudurpean hiru bizar / agertzen zaizkit nabari. / Horrelaxe jaio nintzen / ta bota kulpak amari. / Lagunak trufaka dauzkat / beti adar jotzen ari / lakuko zisne itsusia / deitzen zidaten aspaldi / ta gaur musu eman diot / klaseko ederrenari», osatu zuen lehena bikain, goitik behera. «Berak berezkoa dauka / halako edertasuna / eta nik hori ezean / bada, naturaltasuna; / gure amak arrazoi zuen / itsua da maitasuna», arrazoitu zuen bigarren bertsoan. Eta hiru-garrenaren bukaerarekin biribildu zuen bertsoaldia: «Musu bat

eman ta utzi nau / emozioz melamela. / Bukatu da rekreoa / ta hau da sentipena itzela. / Pasilloan hortxe noa / nire zain dut ikasgela. / Han sartu naiz toreroa / zezen plazara bezela. / Nere inbiditan daudenak / izorratu daitezela». 1.780 bertsozale gogotsuek esker-tu zituzten freskotasuna eta azken kolpeak.

Colinaren atzetik, hiru puntuaren barruan sailkatu ziren Agirre, Jexux Mari Irazu eta Mendiluze. Agirrerekin izan zen goiko postuetako saiorik orekatuena. Irazuk saioaren azken zatian, puntukakoan eta kartzelan, eman zuen bere onena. Detalleak ere izan zituen Zuberoarekin, euskalkiko hainbat hitz eta kartzelako papera bertsoara ekarrita. Gaiak hala eskatu zionean ere, inguruaz eta inguruko auziak ezagun zituela antzematen zen. Mendiluzek, aldiz, Maulen ere ez zuen ohiko distirarik erakutsi, eta irristadaren bat edo beste izan zituen ofizioetako lanetan. Ohi bezala, erori ere ez zen egin.

Hamarreko handian elkarrekin kantatu zuten Agirrek eta

Mendiluzek. Agirrek eta Mendiluzek txapelketa honetan maiz egin bezala, erabilienean artean ez dagoen doinu batekin kantatu zuten, elkarrekin zegokiela baliatuta. «Adineko bikotea dira Aitor eta Unai. Zahar-etxera bizitzera joatea erabaki zuten. Lehen gaua han pasatu, eta gosaltzen ari dira», eman zien gaia Itzainak. «Baina zalantzak eta beldurrak / biltzen zaizkidan antzera / ez dakit inoiz helduko naizen / honi etxea deitzera», kantatu zuen bigarren bertsoaren bukaeran Mendiluzek. Bertsoaldia ondorioarekin amaitu zuen Agirrek: «Hainbeste negar ez deigun egin / eta goazen isiltzera / gu bizitzera etorri gera / ez gera etorri hiltzera».

Laborantzara bildutako gaztearen ahotik kantatu zuen Irazuk kartzelakoa, bere lanik finena. Era honetara kokatu zuen bertsoaldia lehen bertsoan: «Gaztea eta pentsatzen zuten: / 'Seguru da partitza / hau Parisera joango zaigu / ta tokatu isiltzea'. / Laborantzara bildu naiz eta / lortu ere segitza / xoxak atera bizimodua / neurera erabiltza / erakutsi det

32» Film onenaren saria eskuratu du Gutierrezen 'Abuztua' lanak, Lekeitioko Euskal Zine Bileran

34» Tagalogan idatzitako literatura gorakada handia ari da izaten azken urteetan Filipinetan

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

↓ Sailkapena

MAULEKO SAIOA

1. Sustrai Colina	695,5
2. Unai Agirre	691,5
3. Jexux Mari Irazu	689,5
4. Aitor Mendiluze	688,5
5. Jone Uriak	666,5
6. Agin Laburu	648

FINALAURREKOEN AZKEN SAILKAPENA

1. Amets Arzallus *	1.436,5
2. Igor Elortza *	1.425
3. Sustrai Colina *	1.401,5
4. Beñat Gaztelumendi *	1.392,5
5. Aitor Mendiluze *	1.383
6. Unai Iturrilaga *	1.374
7. Aitor Sarriegi *	1.362
8. Unai Agirre	1.362
9. Alaia Martin	1.341,5
10. Iñigo Mantzidor	1.331
11. Jexux Mari Irazu	1.328
12. Jokin Uranga	1.325,5
13. Jone Uriak	1.319,5
14. Agin Laburu	1.298
15. Etxahun Lekue	1.288,5
16. Jon Martin	1.282
17. Fredi Paia	1.279
18. Julio Soto	1.259,5

*Finalerako sailkatuak

posible dela / Xuberoan bizitzea».

Txapelketako bere hirugarren saioan Jone Uriak aurrekoetan bezainbeste estutu ez bazuen ere, aurreko saioetako jarrera berari eutsi zion ofizioetan, eta ofizioak kideari erantzunez eta bertsoaldiari ekarpenak eginez egin zituen. Agin Laburuk, bestalde, beharantz egin du txapelketan aurrera. Kanporaketarekin indartsu ekin zion txapelketari puntua-

ketarik altuena erdietsiz, baina finalaurrekoetan ez du orduko bizitasuna eta gatza mantentzerik lortu. Txapelketan zehar istripu bat ere izan zuen, eta izan liteke horrek ere eragin izana. Haatik, bizitasuna saio guztietan erakutsi du, baita azkenekoan ere.

Zortziko txikian egokitu zitzaizen elkarrekin Uriak eta Labururi. «Elkarrekin bizi dira Jone eta Agin. Gaur Jonek Agin harra-

patu du bere hortzetako eskuila erabiltzen» zuten gaia. Gainontzeko zortziko txikiko ofizioak indarra galduz joan ziren, baina Uriak eta Labururen kontrako bidea egin zuen. «Gehiegi konpartitzen / ez ote gabiltzan» zalantzarik bukatu zuen bere azken bertsoa Uriak. «Ba has zaitez prestatzen / has zaitez lanean / hortza postizoeekin / hasten garenean», bota zion Laburuk azkenean.



Unai Agirre zaleak agurtzen, saioaren amaieran. GAIZKA IROZ

'Haize-orratzaren' kulunkan

Kritika

Musika

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 5. kontzertua

Egitaraua: Gerenabarrenaren, Brahms eta Berioeren, eta Sibeliusen lanak.

Bakarlaria: Carlos Garcia
Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia.

Eguna: azaroak 29.

Jesus Mari Begoña

Bilbao Orkestra Sinfonikoak Zuriñe Fernandez Gerenabarrenaren *Haize-orratz* obraren erabateko estreinaldia eskaini zigun, Enrique Diemecker zuzendari egokiaren zorioneko joaldian. Egitarauan adierazi bezala: «Gerenabarrenak haize-orratz baten irudia hartzen du oinarritzat, eta obra abiadura eta indar desberdineko erauntsietan mugitzen da», eta lana berriro definitzen da, «espazioan egiten duen ibilbidean», eta «bere partikulek egiten duten mugimendua adieraziz», inertziaz aldatuz, haize-boladen eraginez. Lanak, ordea, ez du deskribapenik egiten, egoera horren inpresioa eman baizik, baina abangoardiako lengoaiarekin. Eta Musikeneko irakasleak lortzen duen emaitza lerdana da espazioaren esplorazioari eta soinuaren denborei dagokienez, gure ustez, lan erakargarria eta polita lortuz.

Kontzertuaren hurrengo protagonistak, klarinetearekin, Carlos Garcia BOSeko bakarlaria izan da. Izan ere, Bramsh-en 1. Sonata klarinete eta pianorako ez da lan birtuoso, barnekoia baizik, eta musika ikasgai dirudien arren, klarineteak dituen aukera guztiak garatzeko asmatua izan zen. Uste dugu, gure bakarlariak eder bete zuela instrumentuak exijitzen dituen maila guztiak, hasi garbitasunez jotzetik, fraseatze bikaina egin arte.

Jan Sibeliusen 1. sinfonia orkestra eta zuzendaria luzitzeko egin da daude. Eta biek ala biek horrela egin zuten. Enrique Diemeckerren zuzendaritza guztiz kekularia da bere musika jardueran eta publikoari toreroaren plantak erakutsi zizkion. Baina, eskarmentu handiko musikaria da eta modu distiratsuan islatu zuen Sibeliusen sinfonia oldartsua, klimaren aldaketa eta ebakidura asko dituen. Hasierako mugimenduen azkenean biolinak egindako *pizzicato* barreiatuak isolatuak ziren orokorreko ontasunaren barnean.

Itzultzeko moduan



Analisia

Gorka Azkarate

Txapelketa Nagusia aurreko azkeneko saioa Maule-Lextarren izango zela iragarri zuenean Bertsozale Elkarrekin, ilusioz hartu genuen bertsozaleok keinua. Sinbologia berezia baitu beti azkeneko asalto horrek, finalean zein bertsolarik kantatuko duten zehazten baita bertan. Inor gutxik espero zeza keena, ordea, konbatea puntutan erabakiko zela zen... Ez al dago Unai Agirrentzat BEC-eko oholtzan bederatzigarren aulki bat jartzeko modurik? Besterik ez bada behiak jeizteko hiru hankadun txiki horietako bat, moldatuko da mutila...

Txapelketa guztietan egon ohi dira (eta egongo dira) bertso saio hartako bertsolari hark saio honetako bertsolari honek baino puntu gehiago atera izana nola

da posible eta horrelako konparaketa eta komentarioak. Baina, jakina da, noski, entzuleok jasotzen dugun inpresio orokorrak eta bertsoz bertso puntuatzen duten epaileek emandako epaiak ez dutela beti zertan bat etorri. Edozein kasutan, egin duen txapelketa puska egin eta gero pozik egoteko moduan da Unai Agirre.

Askok izan zuen onetik Maule-Lextarreko saioak. Nabarmenezko moduko bertsoaldiak, bat baino gehiago, lehen kolpean eskas xamarrek ziruditen gaiei ere zukua ateratzen asmatuz, hainbat kasutan, sei bertsolariak. Sustrai Colina izan zen erregularrak: oso seguru aritu zen kantuan lapurtarra, eta bere saioa kartzelako lan dotore batekin boroildu zuen, istorio sinpatiko bat bertsoz maisuki kontatuz. Nabarmenezkoa baita ere Unai Agirrearekin batera osatu zuen puntuko saioa.

Izan ere, Unai Agirre saio osoan zehar ibili zen bikain. Kilate askotako bertsoak botatzen ditu bat bestearen atzetik hernaniarrak. Hamarreko nagusian, zortziko txikian, puntutan... Zaila da falta izan duen puntu erdi horrek non ihes egin ote dion hautematea...

Jexux Mari Irázuk egindako saioa ere aipagarria izan zen. Sei bertsolarien artean finalerako aukera gutxien zituena bera izanagatik, Maule-Lextarreko saioa arretaz prestatu zuela agerian utzi zuen, iparraldeko hamaika erreferentzia, hitz, esamolde eta irudiz jantzi baitzituen uneoro bere bertsoak. Saio ederra egin

Ez al dago Unai Agirrentzat BEC-eko oholtzan aulki bat jartzeko modurik? Besterik ez bada behiak jeizteko hiru hankadun txiki horietako bat, moldatuko da...

zuen, eta entzuleen estimua ez ezik puntuak ere dezente batu zituen.

Finalean kantatuko du, bai, baina ez zirudien oso pozik zegoenik saioaren amaieran Aitor Mendiluze, atzo egindako lanarekin. Murgian ez zuen bere mailarik onena eman andoaindarrak, eta atzo ere kosta egin zitzaion bere ahalmen izugarriari txinpartak ateratzea. Edozein kasutan, hain ondo jarduten ez denetan ere ez da oso gaizki aritzen Mendiluze, eta arantza ateratzeko aukera izango du hamabost egun barru.

Atzeraxeago geratu ziren, puntuetan bederen, Jone Uriak eta Agin Laburu. Finalean kantatzeko aukera izateko saio oso ona egitera deituak zeuden biak, eta saio on xamarra bai, baina gogoangarria egin zutenik ezin esan. Hortaz, hamabost egun barru, orain lau urteko finalista berberak, Andoni Egaña eta Jon Maiaren ordean Igor Elortza eta Beñat Gaztelumendi sartuta. Presta gaitzen egun gogoangarri horretaz merezi bezala gozatzeko, litekeena baita finalean arituko diren bertsolari zenbaitentzat txapelketa batean kantatuko duten akaberako saioa iza-

Plaza > Kultura

Bertsolari Txapelketa Nagusia >

Maialen Lujanbio ◦ Bertsolaria

Ez daki txapeldun izateko ezaugarri jakin batzuk zerrenda litezkeen. Sebastian Lizaso, Jon Lopategi eta Andoni Egaña txapeldunak ere elkarrengandik oso desberdinak zirela dio, nor bere garaian. Bera da segidan azkena.

«Nahi nuke bertsojera lurrari lotua izatea; ederra, baina idorra»

Beñat Zamalloa Akizu Astigarraga

Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela berriz ere buruan duela zein txapelik gabe, abenduaren 16an «pozik eta beteta» esnatu nahi luke Maialen Lujanbiok (Hernani, 1976). Lau urtez txapelaren ardura izan ondotik, txapeldunaren lekua jokoan jarriko dela kontziente izanik, garbi du finalera «onena» ematera joango dela.

Zertan nabaritu duzu txapeldun izan zarela?

Ez da izan oso gauza nabarmenki presentea. Momentu batzuetan, ardura modura bizi izan dut pixka bat, baina ez da ohiz kanpoko ardura bat izan. Ardura hori nahiko modu konpartituan sentitzen dut nire belaunaldiko jendearekin edo inguruko bertsolariekin. Ez naiz besteengandik aparte edo inoren buru sentitu. Ez da muturreko gauza izan; nahiko gauza barea izan da.

Txapelak zer izan du argitik?


Txapeldun izatea izugarritziko saria da norberaren ibilbidean. Zure lana errekonozitua izatea oso-oso gauza ederra da. Horretarako, noski, ez da txapelaren beharrik, baina txapelaren ondoren gauzak ondo atera bazaizkizu, argi handiena hori da: errekonozimendua, esker ona, zure lana zoriontzea... Hori da alderdi ederrena.

Eta zer itzaletik?

Alderdi iluna baino, gehiago da nekea: komunikabideetan egon beharra, bistan egon beharra, zenbait konpromiso, ardura... Pixka bat zure leku sinboliko horri dagozkionak dira. Ez da izan pisua, boladaka nekoso baizik. Sari horren ordaina hori bada, nik uste dut onartzeko prest gaudela.

Txapelpetik ulertzen duzu bertsolari batzuek txapela irabazteko gogorik ez izatea?

Bai. Ulertzekoa da jende batek bere izaerarengatik edo bertsoa bizi nahi duen moduagatik nahia izatea ardura hori ez hartzea. Hala ere, hori esaten duenak estu-



tzen du bere burua, eta zerbaiten bila dabil: deitu txapela edo deitu bere aspirazio pertsonal hori gainditzea. Helburuak forma desberdinak izan ditzake, baina aurrera egiteko, hobetzeko eta ahalik eta ondoen kantatzeko akuitua hor dago.

Orduan, zenbateraino duzue txapela bera akuitu?

Badakit irudi xelebrea ematen dugula ez dugunean txapela aipatzen txapelketaz ari garenean. Azkenean, lehia batean ari gara. Nik uste dut denok kontziente garelara eta denok onartzen dugula lehia dela eta txapel bat dagoela jokoan. Berez, ambizioa edo gogoia bada txapela irabaztekoa, baina gertatzen dena da, eta horregatik aipatzen da hain gutxi txapela, bertsoan irabazteko modu bat baino gehiago egon litezkeela. Irabazle bakarra ez da txapeldun izaten. Irabaz dezakezu saio izugarri on bat eginda, eta nahi bada, bi poto eginda, baina jendearen burutan uzten baldin baduzu saio bat edo uzten badituzu bertso eder batzuk, hori bada irabazteko beste modu bat.

Adierazia duzu orain jokoan dagoena beste txapel bat dela. Lehiaren abiapuntua ez duzu txapeldun izatea?

Gauza jarrai bat bezala bizi dut, noski. Lau urteko epe hau berezia izan da, txapeldunaren ikur hori izan dudalako, baina, denon eta nire ibilbidean, beste gailurtxo bat da hau. Dena ibilbide baten barne da. Arraroa zait gauzak planteatzeko modu hori. Kontziente naiz txapeldunaren lekua jokoan jarriko dela berriz, eta orain arte ni nintzena ez dakigula nor izango den. Badirudi ez zarela txapela defendatzera joango esateak esan nahi duela ez zoazela lehiara, edo ez zoazela zure onena ematera. Nik esan nahi dudana da termino horiekin ez naizela identifikatzen. Finalera onena ematera joango naiz. Hori garbi dago.

Bertsokerari dagokionez, zein intuizioekin eta nondik nora joan nahian zabilta?

30» Argitaletxe eta diskoetxeak gustura agertu dira Durangoko Azokako orain arteko salmentekin

35» Nadeem Aslam eta Kamila Shamsie, atzeritik Pakistani begiratzen dioten idazleak

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Ez da erraza azaltzen hitzez hitz zer egin nahi duzun. Bertso ibilbidetan etengabeko kontraesanean zaude, etengabe jartzen duzu zailtzen egiten ari zarena: gustatzen zaizun, ez zaizun, zer esaten ari zaren... Etengabe ari zara krisi txiki horietan. Txapelketan hori azpimarratu egiten da: behatzea zer egiten ari zaren, eta horri buruz gogoeta bat egitea... Orduan, ezin dut garbi esan zer egingo dudana. Tendentzia bezala esan nezake nahiko nukeela lurrari lotutako bertsokera bat egitea gure inguruaz, pertsonaz, gizarteaz eta errealitateaz hitz egingo duena. 2001ean ere ez nuen gauza teorizatu bat egin. Intuizio bat nukan, eta hor hasi nintzen zerbaitekin. Hark bere bidea egin du. Orain, handik nator, eta beste bidezidor batetik noa. Lehen, edertzen saiatzen nintzen, eta, orain, idortzen saiatzen naiz. Lurrari lotua izan dadin nahi nuke, eta, era berean, hizkuntza aldetik ere ederra, baina idorra.

Zer lortu nahi izan zenuen edertzean, eta zer lortu nahi duzu idortzean?

Garai batean, beste ezinegon batzuk neuzkan edo beste bertsokera batetik nentorren. Beste adin bat ere banuen, eta, nerabe nintzean, beste bertsokera bat ere bai. Garai hartan, nahiko murriztzen nuen nire bertsokera, nire gaiak ere nahiko murriztuz ziren. Pixka bat ito egin ninduen nire estereotipo horrek. Saiatu nintzen erakusten beste alderdi batzuk, eta edertzea pixka bat hortik etorri zen: bertsokera gozoagotzetik; eta, agian, intimoagoak edo poetikoagoak ziren beste tonu batzuk hartzetik. Nire bertsokeren tonua zabaltzeko ahalegina egin nuen. Horrek egin du bere bidea, eta bide hori ez da bukatzen. Orain ere saiatuko naiz ahalik eta ederraren egiten, baina ez nuke nahi hutsaren gaineko jolas estetiko bat izaterik. Hori ez da nire helburua. Edertasun hori bidea izan dadin nahiko nuke. Hainbeste aipatzen den azken urteetako deskribapenaren eta narrazioaren joera, helburu baino gehiago, gure inguruaz hitz egiteko bide izatea nahi nuke.

Horiek horrela izanik, zerekin kargatu nahiko zenituzke bertsokak garaioetan?

Edukiz. Edukietan jarri nahiko nuke balantza. Horrek ez du esan nahi ederra egin nahi ez dudunik. Bertsoak horretan datza: eragin-korra izatean, esateko modu ederran... Modu askotan izan liteke ederra. Izan liteke oso lirikoa edo izan liteke oso lehorra, oso prosaikoa, baina ederra.

Txapelketa hastear zela adierazi zenuen txapelketarako, batez ere, ñabardurak lantzen dituzula. Zein ña-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

bardura lantzen egin duzu ahalegin berezia?

Hizkuntzan jarri dut arreta bereziki: errimategian eta gauzak esateko moduan arreta jartzen. Gero, ez dut uste desberdintasuna hainbeste igartzen denik

«Bertsokeran edertasuna bide izatea nahi nuke, helburu baino gehiago»

«Askotan bertsoaren inperfekzio guztiak ematen dio benetakotasun bat»

«Ez naiz besteengandik aparte edo inoren buru sentitu»

emaitzetan. Hortik aurrerakoa gaiei buruz pentsatzea izan da.

Txapelketak soiltzera jo du aurten. Joera horretan BEC kontraesana da?

Ez, nire ustez ez da batere kontraesana. Txapelketak izan duen planteamendua garaiari egokitzaren zaion modukoa izan da, eta baita bertsoa bereziki mimatuko duen modukoa ere. Pixka bat inguratzen gaituen estetikari lotutakoa izan da. Gainera, erakutsi da ez dela handikeria. Jende asko geratuko da kanpoan, eta hainbeste jendek ikusiko du telebistatik. Uste dut jendea fidela dela, bertsozale fidela, eta txapelketa zalea ere badela bertsozale hori. Azkenean, ondo egindako lanaren isla da.

Bertsogintzak baditu garaiotara ongi egokitzen diren ezaugarri batzuk?

Uste dut bertsolaritzak badituela ezaugarri batzuk jendearentzat erakargarriak direnak. Dialekti-

katik beretik hasita, elkar entzutearen eredu txiki bat izan liteke gizarte honentzat. Arrazoiketan oinarritzea ere izan liteke beste bat. Ikuskizun bezala ere oso-so-soila da: ez dauka parafernaliarik, ez dauka ezer faltsurik. Momentuan eta egun horretan gertatzen da, eta egia da horrek ematen diola sinesgarritasun edo benetakotasun bat. Askotan bertsoaren inperfekzio guztiak ematen dio benetakotasun bat. Ez dauka trankaririk. Egin ahal da, egin ahal dena. Oso jardun hurbila ere bada, oso eskuragarria edozeinentzat. Oso testuinguru desberdinetan gertatzen da, eta horrek ere ematen dio lotura bat jendearekin, lotura bereziki hurbila.

Ikusten diozu intentzio jakinik heda-bide batzuek bertsogintza ezker abertzalearekin lotzeari?

Bai, dudarik gabe. Uste dut gai interesantea dela hori, eta hitz egin litekeela horretaz, baina hitz egin, ezagutzatik; eta ez, ezagutu ez, eta topiko interesatu bat elikatzeke helburuz. Azkenean ezezaguna eta kontrolatzen ez dena, mugimendu bezala menpeko ez dena, desprestijiatzeko modu bat izan liteke. Independentea den mugimendu bat zeureganatu ezin duzunean, desprestijiatzea da joera ohikoa hemen.

Hala ulertzeko aukerarik badela uste duzu?

Uste dut irakurketa horiek urrutitik egiten direla, eta hori dela arazo. Lau urtean saio batera edo bitara joaten den pertsona batek, txapelketako bi saiotara joaten denak, lau agur edo ez dakit nolako bi gai entzuten dituelako, horrelako ondorio bat ateratu lezake. Urtean zehar guk egiten ditugun adina saio egingo balitu, askoz pultsu erreala izango luke bertsolaritzaren zer den eta zenbat den, aniztuna den edo ez den. Egia da diskurtso jakin batzuk entzuten direla, baina gure errealtatearen parte dira, eta nik uste zilegi dela horiek entzutea. Ez da esan ezin den gauza bat. Batez ere, distantziagatik eta ez ulertzeko gogo batetik egiten da irakurketa hori. Badago gaia, badago mamia hor, baina ezagutzaren gainean hitz egiteko.

«Aurreko finala sinbolikoki mugarri bat izan zen»

B. Zamalloa Akizu Astigarraga

Txapelaldun izateko modua izaerarekin lotu du Maialen Lujanbiok, gehienbat: «Momentu batzuetan, agian, inkontzienteki beldur puntu bat eman dezake protagonismoak, lider izate horrek, talde buru izate horrek? Ez dut ukatzen, agian, egon litekeela beldur lanbro bat. Baina, nire ustez, badauka zerikusia izaerarekin. Ez naiz bereziki nabarmendu zalea».

Zapia sinbolo bezala hartuta joango zara BECera?

Ez. Esan nahi baduzu zapiak sinbolizatzen duen emakumearen figura hori ordezkatzera joango naizen, kontzienteki ez. Ni neure burua ordezkatzera joango naiz. Alde horretatik, gero eta lasaiago edo libreago sentitzen naiz arduraren horretatik, zorionez, gero eta emakume gehiago daudelako plazan, gero eta ahots gehiago. Lehen, askotan sentitzen nuen «nik ez badut esaten, inork ez du esango». Orain, badaude ahotsak hori esango dutenak.

Aurreko finalerako, orde, intentzioz jantzi zenuen?

Bai, baina egoera desberdina da. Hori sinbolikoki mugarri bat izan zen. Ordura arte ikusi ez zen zerbaite. Gaur egun, hori jada gertatu da. Ez dut sentitzen hori azpimarratu beharrik.

Partekatuago ikusten duzu orain zapiaren ardura, beraz...

Emakume gehiago dago plazan elkarrengandik desberdinak direnak eta diskurtso desberdinak dituztenak. Gizonengan ere nik uste dut sensibilizazioa ere zabaldu dela. Beste leku batean sentitzen naiz orain. Lasaiago sentitzen naiz gai horrekiko. Oso erreala ez zen ordezkartza senti-

mendua ala horren oihartzuna izan banezakeen, orain lasaiago sentitzen naiz.

Alde horretatik asko sakrifkatu behar izan duzu zure bertso ibilbidean?

Ez dut inongo momentutan gai horrekin gaizki pasatu. Gaizki pasatzeraino ez naiz iritsi. Egia da *a posteriori* egiten diren irakurketak direla. Momentuan pixka bat iragazgaitz ere bihurtzen zara, minik ez hartzeko eta gauzek ez diezazuten hainbeste eragin. Inkontzienteki hori egin dut, eta gero, *a posteriori*, irakurketa egiten dudanean gertatu denaz, orduan ikusi ditut krikikraka horiek, talka txiki horiek edo ezin ulertu edo ulertu ez izate horiek. Sufritu banu, agian, ez nuke hor segituko. Nahiko modu atseginean bizi izan dut. Nire testuinguru ederra izan da: lagunartea eta bertso belaunaldia ederra izan dira. Bertsolaritzak, oro har, oso ondo hartu gaitu.

Bada lasaitzeko arriskurik?

Nik uste dut inflexio momentu batean gaudela. Oso puntu interesgarrira iritsi gara. Jende asko dago gai horrekin sentikor eta alerta, eta hori oso interesgarria da. Baina hau aztoramendu aldi bat ere bada. Oso irakinean dago gaia, eta, agian, ez da garai onena irakurketak egiteko. Oinarrian dauden kopurua igo ahala, plazaz plaza dabilzanen kopurua ere igoko da, eta baita kalitatea ere. Gauza horiei denbora eman behar zaie. Plazara salto egiteko garaian beti daude arazoak. Emakumeak edozein esparrutan jende-aurrekotatasunarekin badi-tu arazo berezi batzuk, orain arte ez duelako leku hori bete izan. Oso interesgarria da, arazo ikusezinak eta sotilak direlako.

BERRIALaguna* zara?

BERRIAK Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalerako bi sarrera ditu lagun bakar batentzat

SARTU **www.berria.info**-n eta zure kodea erabiliz parte hartu.

Epea: abenduaren 9a, astelehena, 12:00 arte.

*BERRIALagun eta BERRIALagun harpidedunek parte har dezakete.



Plaza > Kultura

Beñat Zamalloa Akizu Hendaia

Txapelaren barreñaren karga simbolikoa «oso kolektiboa» dela eta bertsolaritzaren «mugimendu osoa» abarkatzen duela uste du Amets Arzallusek (Hendaia, 1983). Igandean, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, txapela janzteko faborito nagusietako bat da. Finaletik helburu kolektiboak azpimarratzen ditu. Hala ere, onartzen du «benetako» lehia bat badagoela. Lehia hori «norbere barruko ahaleginen baitan» kokatzen du.

Orain arte txapelketan egindako lanaz zein sentipen duzu?

Gauza guztien gainetik, nahiko konforme nago lan orokorrarekin, baina mikatzetik ere badu pixka bat pasatu dudanak. Beti izaten da normalean. Zaila da denari gozoa irizten. Beharbada, beste txapelketa edo garai batzuetan sentipen orokor homogeneoago bat izaten nuen. Oraingoan asebetetze handi samarra daukat gauza batzuekin, eta nahiko kontrako puntua beste batzuekin.

Zeure burua harritu duzu aurreikusten zenituen gabezia batzuetan hobeto jardunda?

Beharbada, tonu tristexeago batzuetan neure burua hobeto salbaturik sentitu izan dut. Txapelketako umore erregistroan biluziago sentitzen naiz askotan gaiaren aurrean: arma gutxiagorekin neure eskutan. Plazan atera dakidake ongi bilatzen dugun tonu hori, baina txapelketan dezente kosta izan zait tonu hori harrapatzen. Oraingoan, konfiantza nuen, eta ustez nire indarguneena nuen zatia atera zait narras samar, eta ustez eta parterik bihurrienean atera naiz airoso.

Hortaz, ez zaude ados txapelketa honetan oraindik golrik jo ez duzula dioten ahotsekin?

Nik pentsatzen dut leku batzuetan gora arrimatu naizela. Nik neure buruari ikusten dizkiodan gaitasun posibleen artean, leku batzuetan hurbildu naiz gorantz. Ados nago ez dudala saiorik egin goitik erregular. Izan ditut zuloak. Zuloak uzten baldin badituzu, errazagoa da jendeak zer egotzi izatea.

Zenekarren bidea aipatu ohi duzu. Bide horretan, nahi zenukeen lekuan harrapatu zaitu txapelketak?

Uste dut ibilbidean aldiro ertzak ala harriak gehitzen ari naizela nire bideari. Alde horretatik, orain arte baino hobeto sentitzen naiz. Hau laugarren Txapelketa Nagusia dut, 30 urte bete ditut, eta ni gauza gehienetan lehen baino ustez hobeto sentitzen naiz; edo okerrago, behintzat, ez naiz sentitzen.

Arrazoibidean hezitakoa zara, eta hori desikasi nahian omen zabilta. Zenbateraino desikas liteke hori?

Nik uste nahiko zaila dela, baina lehenengo pausoa kontziente iza-



GAIZKA IROZ

Amets Arzallus > Bertsolaria

Azken asterako aurrez pentsatutako lanak eginak ditu Amets Arzallusek. Buruari atsedean ematea pentsatua zuen, baina «denbora hutsa» nekagarriago zaio lanean ari denekoa baino.

«Gailurrak ez du bidea eder egiten»

tea da. Kontziente naizen neurrian, ez dut uste zakartzan adar hori inoiz ebakitzeko adina indar inork baduenik, baina bai pixka bat tolesten saiatzekoa eta beste norabait bideratzekoa. Ez nintzen bertso eskolan bertsoan nerabezaroan hasi. Txiki-txikitatik aitzak eskutik helduta eraman ninduen bertso eskolara. Askotan, norbera kontziente izan bai-

no lehen, eskola bat badakar, badakar ahots bat, eta badakar hari bat aukeratzen ez duena. Nakarren erreka batek dezente markatzen nauen bertsolaria naiz. Horren gainean zabilta edo hori luzatzen duzu, eta hori ebakitzea edo etetea, beharbada, ez duzu nahi; baina erabakiko bazenu etetea, nahiko zaila litzateke.

Nola kudeatzen duzu, orduan, hori?

Nik sentitzen dut nire bertsoetan badela alde bat oharkabea dardana, eta beste bat nik dagidana, askotan ederki kostata. Nik ez dut guztiz nire bertsokera kontrolatzen. Saiatzen ari naiz, kontzientziaren aldera, bigarren alde horretara, makurtzen nire bertsoa, baina uste dut nakarren hari horretatik sekula ezingo dudala erabat askatu.

Bertsokerak eta kantaerak, aldiz, barrura begirakoagoak dirudite...

Bada nire putzu gustukoenetako bat. Guk bukaeraren pisua nahiko handia zen garai batean hartu genuen bertso eskola. Nik esango nuke azken hamar bat urteotan aldatu dela pixka bat hori, eta bukaeraren pisu hori orekatuago dagoela bertsoaren baitan. Gustatzen zait sakontasuna, analisi psikologikoak edo sentiberatasun puntu bat transmititzea, baina askotan sentitzen naiz bertsokera dogmatiko horren karga dezenterekin eta hori deskargatu nahian.

Zerk ez zaizu erakargarri iruditzen txapeletik?

Txapeletik gutxien erakartzen nauena da txapela begiratzea

«Uste dut nakarren hari horretatik sekula ezingo dudala erabat askatu»

barrua hutsa edukiko balu bezala. Txapelaren bila dabilen pertsona baten irudia ematea da gutxien erakartzen nauena. Txapela, bereziki egun horretan, eguzkiak bete-betean jotzen duen gailurra da. Gailur hori nola ez irrikatu? Noski. Txapelaren edertasuna neure egiten dudan arren, bakoitza bere gailurtxo horien bila doa, ni behintzat neurearen bidean noa. Gertatzen baldin bada txapelerako bidea norbere gailurrerako bidearekin elkartzea, txapela orduan hasten da ederra izaten. Gailurrak ez du bidea eder egiten, bideak gailurra baizik.

Txapela janzteko faborito nagusietako bat zara. Sentitzen duzu txapela janzteko arriskua?

Zure jiran jendearen ilusio hori sentituta, azkenean ilusio hori iristen zaizu. Ikusten dut posibilitate bat badagoela, baina saiatzen naiz gailur horri begiratu gabe orientatzen. Egia da jendeak engainatzen zaituela azkenean, eta etengabe behar duzu esku freno bat, kutsadura gehiegi hori ebitatzeko zeure buruan.

BE Ceko lehen finalean, «hauxe da bide zuzena / noizbait Baionan jokatu dadin / aurtan Barakaldon zena» kantatu zenuen azken agurrean. Azken finalurrekoa Maulen jokatu ostean, finala Baionan jokatzeari gertuago sumatzen duzu?

Nahiko gauza handia bada azken finalurrekoa Maulen jokatzeari, baina, egun batean, finala mugaz honantz aldera —oxala ordurako mugarik ez balego— jokatzek segitzen du amets bat izaten. Posibleago ikusten dut. Txapelketa beti erne dago, eta sentikortasun hori presente du. Baionan izan liteke egun batean, eta, inork egitekotan, Bertsozale Elkarteak egiten ditu horrelako apustuak. Pentsatzen dut ikusiko dudala eragunen batean.

Bertsolari Txapelketa Nagusia →

Gehienek txapelaren bueltan izen bertsuak kokatu arren, ez dira gai bat bestearen aurretik ziur kokatzeko. Gai dira, ordea, bihar Barakaldoko BECen izan nahiko lituzketen sentipenak zehazteko.

Emozionatzeko itxaropenarekin

Beñat Zamalloa Aktzu

Emozioetara daramate erantzun guztiak. Emozio bila joango dira Laxaro Azkune, Maddi Sarasua, Arkaitz Goikoetxea, Kristina Mardaras, Xabier Amuriza, Oihane Perea eta Sebastian Lizaso. Nork bere emozioak eta emozio bideak ditu bihar Barakaldon jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako. Guztiak daude emozioetarako gogotsu eta emozionatzeko itxaropenarekin. Finaleko bertsoak, euskara, herria eta giroa dituzte emozioz.

Finalaren mailari dagokionez ere, itxaropentsu daude guztiak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi finalistek bertsoen maila ziurtatuko dutela irizten diote. Txapela janzteko faboritoen artean Maialen Lujanbio txapelduna, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Igor Elortza aipatzen dituzte gehienek, baina guztiak aipatzean eta ordenan ez datoz bat. Erantzun nahi izan ez duenik eta guztiak aukeretan

↓ Galderak

1. Zer espero duzu bertsoei dagokienez?
2. Zeln sentipenekin atera nahiko zenuke BECetik?
3. Txapela noren artean lehiatuko dela uste duzu?

berdiñtsu ikusten dituenik ere bada.

LAXARO AZKUNE

Gai-jartzaillea

«Familia handi bat garela sentitu nahi dut»

1. Eurenetik eman nahi duten hori eta hainbesteko mimoz eta gogoz saiatu eta landu duten hori plazan gauzatzeko aukera izan dezatela. Horretarako, baina, badakit euren eguna izan behar dutela, eta ofizioetako gaiak ere lagundu egin behar dietela. Badakit zortziek lan handia egin dutela.

2. Nik aurreko txapelketa nagusian izan nuen sentipen berarekin irten nahi nuke: halako herri

proiektu bat badagoela hor, euskaratik eta euskaraz. Familia handi bat garela sentitu nahi dut. Badakit ez gaudela denok, baina hor gaudenok, behintzat, euskalgintzan lanean jarraitzeko pilak kargatuta irtén nahi nuke. Finalak berak motibatzen nau. Txapelketa dena jarraitu dut, eta txapelketan oso momentu onak bizi izan ditut, beste batzuetan ikusi dut bertsolariak hain eroso ez dabiltzala. Momentu onak izan dira, oro har. Finalean iruditzen zait bertsolariak izan dituztenak baino momentu hobekak izan ditzaketela, eta emango dituztela. Horren bila noa. Horren zain nago.

3. Egia esan, ez dakit, eta ez dit askorik ere ardura. Zortziak ditut lagunak, baina batzuk beste batzuk baino gehiago. Zure barruko patata koskorak gehiago tiratzen dizu baten edo bestearen alde. Denei opa diet txapela, hor dauden zortziek merezi dutela uste dut.

MADDI SARASUA


Bertsolaria

«Bertso batzuek marka eta hunki nazaten nahi nuke»

1. Beti geratzen dira batzuk buruan. Bertso batzuk izango dira lazaroan oroitu ditudanak edo gogoaz piztuko dizkidatenak buruz ikasteko. Bertso batzuek marka eta hunki nazaten nahi nuke; identifikatuta sentitu nahi nuke bertso batzuekin.

2. Iruditzen zait beti indarberri turik irteten garela horrelako egun handi batetik, bai bertsoari berari dagokionez, eta baita euskal munduari dagokionez ere. Herri bat garen sentipenarekin irten nahi nuke. Egun itzela da denontzat. Emozio pila bat biltzen duzu bertsoekin gozatuz, jendearekin, giroarekin... Barrua betetzera joango naiz.

3. Iruditzen zait denek daukatela sekulako maila. Oso zaila da esaten. Gerta liteke istripu bat, eta gerta liteke sorpresa bat. Amets Arzallus aipatuko nuke, lapurtarra delako. Ez da urrutu ibiliko,



Laxaro Azkune. JON URBE / ARGAZKI PRESS

baina Maialen Lujanbio eta Igor Elortza ere hor daude.

ARKAITZ GOIKOETXEA

Bertsolaria

«Heldutasun artistikora iritsi diren bertsolarien proposamen ederrak entzutea espero dut»

1. Espero dut heldutasun artistikora iritsi diren bertsolarien proposamen ederrak entzutea. Heldutasun horretara iritsi ez direnengandik nora joan nahi duten arrasto batzuk sumatzea ere espero dut. Irrika badut hori ikusteko.

2. Egun handia izan den, ongi pasatu dugun, bertso saio ederrak entzun ditugun, euskal kulturaren militante eta kontsumitzaile izatea eta bertsozale izatea merezi duen sentipenarekin atera nahi nuke BECetik. Gehien-gehien giroa eta inguru hori izaten den lagunartean motibatzen nau finalerako. Finalerako plana kuadrillan egiten den plana da. Bertsozale Elkartearen proiektuaren ispilu ederrenetako bat hain polit eta hain ongi hornituta ikusteak ere motibatzen nau. Bertsoak gozatzeko beste mila modu eta beste mila plaza badaude, baina finaleko giroaz gozatzeko ez daude hainbeste aukera.

3. Izenak entzuten dira bat edo beste. Iruditzen zait hiru bertsolari bolada oso onean eta freskura rekin daudela: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Txapelketa hasi aurretik, aurten Jon Maiaren txapelketa izan zitekeela uste nuen. Heldutasun artistikoa lortu duela eta plazan izugarrizko mailan ibili dela ikusten nuen.

KRISTINA MARDARAS

Bertsolaria

«Emozionatuta irten nahi nuke BECetik, entzun ditudan ideienatik eta iritziengatik»

1. Espero dut saio indartsua izan-



Maddi Sarasua. JUANAN RUIZ / ARP

go dela, eta inork ez duela huts egingo. Oso seguruak dira finalista guztiak.

2. Emozionatuta irten nahi nuke BECetik, entzun ditudan ideienatik eta iritziengatik. Ondo pasatzea, saioa borobila izatea, Maialenek irabaztea eta durangarrak ondo geratzea dira finalerako ditudan nahiak.

3. Hiru hautagai daukat: Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Amets Arzallus. Txapelketa aztertuta, hiru horiek ikusten ditut.

XABIER AMURIZA

Bertsolaria

«Badago sentipen masokista bat ere, baina atsegina da»

1. Hasteko, nahi nuke gaiak izan daitezela egokiak. Batzuetan ez dira izaten egokiak; batez ere, kartzelakoan. Gaiak egokiak bada, ziur nago finalistek erantzungo dutela.

2. Bertsolaritzari gorakada handi bat eta saio eder bat entzun dugun sentipena izan nahi nuke. Gauza handi bat irabazi duzueneko garaipen sentipen bereziarekin irten nahi nuke, futbolzaleak futbol partida garrantzitsu bat irabazi duenean bezala. Jendearen emozioa eta poza ez daitezela alferrikakoak izan. Finalera ez joatea burutik pasatu ere ez zait egiten. Neu kantatzen goian egon nintzeneko aroak berritzeko eta emozio horixe sentitzeko gogoarekin joango naiz. Nik sufritu egiten dut entzunez. Barrutik bizi duzu kontua eta tentsioa. Badago sufrimendu masokista bat ere, baina atsegina da.

3. Badakit nork irabaziko duen, baina ez dizut esango.

OIHANE PEREA

Bertsolaria

«BECen eta egunero plazan batzen gaituen zer handi horrek berotzen nau»

1. Badakit final dotorea egingo du-

OINKARI DANTZA TALDEA / HIKA TEATROA

ITSASOAREN EMATZTEAK

60 dantzaari, 4 musikari eta 2 aktore, josi eta josi sarotan barrena, lezuel usaineko emakumeen istorioa berrikatuz

Abenduaren 14ean

Villabonako OLAEDERRA kiroldegian

22:30ean

Bertsolari Txapelketa Nagusia



Arkaitz Golkoetxea. JON URBE / ARP



Kristina Mardaras. NATALIA SALAZAR



Xabier Amuriza. GORKA RUBIO / ARP



Olhane Perea. RAUL BOGAJO / ARP



Sebastian Lizaso. ANDONI CANELLADA / ARP

tela, gozutzen eta gozarazten asmatuko dutela. Ez dira alferrik iritsi iritsi diren lekuraino. Hala, dakitena egin dezatela, edo ahal dutena behintzat. Batzuetan asma-tuez arren, utz ditzatela gure oroimenean geratzeko ale ederrak. Ziuregingo dutela.

2. Lanera joatea tokatzen zaigu, beste zientoka lagunekin batera. Egia esan, ez naiz kezatu, urdurijartzen naiz neu ere, eta nahia-go zer edo zer produktiboa egiten egon eserita geldi baino. Beraz,

baliteke, zientoka lagun horiek bezala, saioa etxeko salan berriz entzuteko gogoarekin eta agujetekin irtetea... Baina barre, negar, irribarre eta hasperen nahiko eginda, hustuta eta beteta sentitzea gustatuko litzaidake. Gure txikian dugun handitasunaz harro. 10-8an esanda, BECen eta egunero plazan batzen gaituen zer handi horrek berotzen nau, herri egiten gaituen hizkuntzaren joko olinpikoen azken txanpa izango da, denok egongo gara, zu-

zenean edo diferituan, halako konplizitate eta herri sentimendu sakon horrekin, herri izateko beste egun batez. 7-6an, lagunartean barre, negar, irribarre eta hasperen aldi berean egin ahal izatea bertsoetik bertsoa.

3. Iruditzen zait nahiko lehiatua izango dela, Maialen, Amets, Unai... baina besteren batek egun ona izanez gero, auskalo! Egun luzea da, eta aguanteak, zorteak, egun ona izateak, eta azukre igoe-ra eta jaitsierek ere izango dute ze-

resanik. Orduan, gozokiak eta bonboiak ez daitezela falta.

SEBASTIAN LIZASO

Bertsolaria

«Bertsoak garbi erakutsi du kinielek ez dutela balio»

1. Espero dut zortzi finalistek, ahal bada denean, baina saioaren batean gailurra jotzea.

2. Aparteko saio bat entzun dugula izan dugun sentipena izan nahi nuke BECetik bueltan. Bertsoa-

ren gailurrean ikustea, finalistaren emaitzarik onena dastatzea eta beti kantatzen jardun garenek entzuten gozatzea.

3. Txapela zortziren artean lehiatuko da. Bakoitzak bere faboritak ditu aurretik. Bertsoak garbi erakutsi du kinielek ez dutela balio. Zortziak ikusten ditut baldintza berdintsuetan, nahiz eta jendeak faboritak izan, egun horretan egin behar du, une horretan, gai horiekin eta epaimahai horrekin.

Erakusketa

San Telmo Museoa
Untzi Museoa

2014ko urtarrilaren 7a arte



Bisita gidatuak

Bisita orokorra Larunbatak: 12:00
Gaikakoak Asteartek: 18:00

+ info: www.santelmomuseoa.com
bakeituna.donostiasansebastian2016.eu

1813

Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea



«Bake-ituna»

1813

Koproduktoreak

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIANSTM
San Telmo MuseoaUN
UNIBERSITATEA
ALDOYAKZAM
ZARAGOZAKO
MUSEOAK

Erakundeak

Donostia 2016
San SebastianGipuzkoako
Foru AlderdiakPUBLO ARKAITZ
SUBSIDIOS
MAYOR

donostia2016.com

San Telmo Museoa: Patrono pribatuak

San Telmo Museoa: Enpresa ongileak

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALA

berria || 2013ko abenduaren 17a, asteartea

«Zerutik begira daude Joxe eta Manuel Mari ziega zulentik entzuten beste euskaldun ugari muxu bat Iparraldeko bertso eskolako haurrari lagundu nauten guztiak Olatz eta arreba bi baina ni ez bainaiz hemen neuk sortu hutsean ari aitarena den txapel hau eskeintzen diot amari haurra nintzela euskaraz erakutsi zidanari»





JON URBE / ARGAZKI PRESS

Amets Arzallus

«Jadanik ez nau hainbeste ikaratzen txapelaren figura huts horrek»

Oraindik ere motorra baretu gabe, errimatuz zetozkion hitzak Amets Arzallus bertsolari txapeldunari biharamunean. Gauetik goizera, bere ibilbidean larunbatean bezala sentitzen zen, igandean «mugarritxo polit bat» jarrita.

Beñat Zamalloa Akizu Hendaia

Amari eskaini zion txiki-txikitatik bertso eskolara eskutik eramanean zuten aitaren txapela, txapeldunaren agurrean. Modu horretara, hizkuntza transmititu izana eskertu zion amari Amets Arzallus bertsolari txapeldunak (Hendaia, 1983). Aurreko astean egunkari honetan eginiko elkarrizke-

tan, esan zuen txapela «bereziki egun horretan» eguzkiak «betebete» jotzen zuen «gailurra» zela.

Q Espero bezalakoa izan zen gailurra?

E Beroa da, baina batez ere inguruontzat da beroa. Neure barruan, oso lasai nengoen. Txapelaren izendapenerako eta txapela jasotzeko momentu horretan,

hoztasunetik atera gabe nengoen. Orduan, ez zitzaidan iristen berotasun osoa.

Q Ez zenuke nahi beroagoa izate-rik?

E Neurri batean, bai. Baina ez duzu erabakitzen nola egon, eta pasatu eta gero alferrik da erabakitzea. Kontziente nintzen neurri batean. Maialeni [Lujanbio] gero aipatu nion pena apur bat ema-

ten zidala barruan zirrara hori lehertu ez izanak, baina segur aski ezinezkoa zen. Zirrara hori lehertu izan balitzait, ez niokeen momentu horri eutsiko, eta agurra kantatu behar duzu. Kontziente nintzen gehien agertuko zen bertsoa abestera nindoala. Hantxe huts egitea edo hantxe narrastea ez litzateke polita txapelketaren bukaera gisa eta norbere txapelketako bidearen bukaera gisa. Orduan, pena da, baina, beharbada, ez dauka beste erremediorik, edo ez daukat beste erremediorik. Horrela bizi izan nuen momentu hori. Hori da nire bertutea, eta nire gabezia ere bai.

Q Bi motor dituzu, beraz?

E Ez dakit. Batzuetan bakarra

eta nahiko katarrotua sentitzen dut, baina motor bat hotz samarra eduki dut txapelketan. Hotza edo oso tenple lasaiduna. Momentuko zirrara hori bizi nuen, baina, gero, oso barruko begitik begiratzen nion, eta nire barruko begia hitzetara zuzendua zegoen oso. Horri begira egon nintzen denbora guztian.

Q Agurrean, puntuz puntu txalotu zintuzten...

E Kantatzen ere kosta zitzaidan pixka bat. Beldur nintzen ea bukaerara hitzak bolumenik gabe iritsiko ote ziren. Egia esan, momentu oso polita da, eta ez da erretolika luzeetarako momentua, baina esan nahi dituzun horiek ahalik eta modu finenean esan



☞ Txapelak zugarri zein karga hartzea nahiko zenuke?

☞ Zaila da kalkulatzeko zein karga dakarren kargu honek. Saioa guztiz ahalegin pertsonal baten kontzentrazio osoan egin nuen, baina oso lagun giro eta kolektibitate zoragarrian bizi izan genuen. Uste dut txapela gutxi gorabehera denona dela. Egingo dut ahalegin berezia txapela ahalik eta ongien eramateko, baina, txapelera bidean besteengandik lagundua sentitu nintzen moduan, txapela eramateko bidean ere ez dut dudarik egiten laguntza, babes eta inguru hori emango didatela gainontzekoek. Txapela hemen dago, baina denek josia da. Nik aurreko patxadarekin segitu nahi nuke.

☞ Txapela belaunaldiz aldatu da?

☞ Nahiko egoera berezia da gurea. Aurreko belaunaldiaren taldeotasuna nabarmena da. Hor badaude urte batzuk, non bertsolaritzaren uztak oso maila handia eman zuen. Ni, adinez, Beñatengandik [Gaztelumendi] gertuago nago Maialenengandik baino, baina, ibileraz, bertsoak eskaintako bidez, azken urteetako plazaz eta partekatutako ordutz, ni belaunaldi horren parte naiz, nolabait. Parte pribilegiaduna da. Horiak denak abiatuta zeuden gu iristerako, eta, iritsi ginenean, horien denen eskua eta aurrekoena jaso genuen. Nire benetako unibertsitate lagunarte hori izan da. Horien arteko belaunaldira geroxeago txertatutako ikasle eta lagun pribilegiaduna izan naiz.

☞ Aurreko astean, eguzkiak bete-betean jotzen duen gailur honetan, urteko sasoi batzuetan hotza ere egingo duela aurreikusten zenuen. Sasoi beldurrik baduzu?

☞ Txapelak badu plazetan nolabaiteko exijentzia puntu edo ardura bat. Ez nau askorik ikaritzen, lehenagotik ere saiatzen nintzelako autoexijentziarekin

«Txapela hemen dago, baina denek josia da. Nik segi nahi nuke aurreko patxadarekin»

«Airoso samar zabiltzanean, sentitu egiten duzu hitzak lasai dantzatzeko direla»

plaza bakoitza zegokion seriotasunarekin hartzen. Plaza bakoitzari bere neurria eta bere ahalegina zor zaio. Lehen hartzen nuen baino serioago hartzea posible baldin bada, saiatuko naiz, baina nik, lehenago ere, neure burua eta neure bilaketa ahalik eta zorrotzen eramaten nuen

joandako leku bakoitzean. Lehen ere nahiko eroriz ibili izan naiz aurrera egin dudanean, eta pentsatzen dut orain ere erori gabe ez naizela ibiliko.

☞ Esperientziak eman dizkizu finalean izan zenituen lasaltasuna eta tentsioa?

☞ Aurten 30 urte bete ditut, eta sentitu dut pixka bat aldaketa. Beste urte batzuetan eta txapelketa batzuetan, amorratuago ibiltzen nintzen atera nahi eta atera ezinaren artean, eta, batzuetan, pixka bat gehixeago itsutuz, estutuz. Aurten atera behar bazuen aterako zen, eta atera behar ez baldin bazuen ez zen aterako, baina nahiko lasai bizi nuen momentua. Nerbioa eta txispa hori nahi nuen, baina oso patxada handiz agertu naiz neure barruz txapelketako plazara. Lan dezente egiten duzu egun horietara ahalik eta ongien iristeko. Atera nahi nuena atera zen, eta ateratzen ari zen heinean, gainera, patxada irabazten nuen.

☞ Egindako lanaz gustura agertu zinen ondoren, baina, azken kartzela bukatuta itzultzean, antzematen zen ez zeundela oso gustura...

☞ Intentsitate psikologiko bat behar duzu ariketa bakoitzeko. Gustura sentitzen ari zarenean, arriskua duzu pixka bat erlaxatzeko. Ariketa mental bikoitza egin behar izan nuen aldi oro, neure buruari akuilua pixka bat sartzeko, eta berriz ere ahalegin guztia jartzeko hurrengo ariketan. Banekien zaila zela arratsaldean ildo horretan segitzea. Luze egiten hasi zitzaidan; bereziki, mentalki. Sentitu nuen kargak zapaltzen ninduela pixka bat, eta indarrrik gabe gelditzen ari zela nire psikologia hori; beharrezkoa dena bertso bakoitzari aurre egiteko. Bertso bat sortu aurretik edo kantatu aurretik, bada pentsamenduaren putzu bat, sentimenduaren putzu bat, eta handik arrantzaten duzu esanahi bat. Horri forma bat ematen diozu, eta bota egiten duzu, baina, bide horretan, eztarrian, azkenean, galbahe bat dago. Galbahe horrek alanbreak zenbat eta estuago izan, ura finago pasatzen da, zakar gutxiago dakar. Arratsaldean, sentitzen ari nintzen eztarriko galbahe hori gero eta alanbre lasagoekin zebilela.

☞ Zenbateraino aritu zinen darizunetik, eta zenbateraino dagizunetik?

☞ Nik uste dut bien arteko oreka nahiko ona izan zela. Goizean, nahiko erraz sentitu nuen neure burua, eta dagidanetik egiten nuen. Ume-umetatik bertso eskolaren bidean sartu ninduten. Airoso samar zabiltzanean, sentitu egiten duzu hitzak lasai dantzatzeko direla. Nahi izaten diot buelta bat eman berez egingo luketenari. Arratsaldeko bakarkakoa edo kartzelakoa gehiago izan zen zeridanetik.

Egin nahi nuenerako, ez nuen hainbesterako indarririk. Goizeko bakarkakoa, aldiz, uste dut neuk behartu nituela. Utzi banion isurtzen berez daridan erreka horri, beharbada, torturatzailaren papera hartuko nuen. Gordin samar begiratuko nion hari, eta hor bertsoak lodi samar bukatu. Lehenak bukaera poetiko samarra zuen; bigarrenak, berriz, bukaera apal samarra... Hori ez dut uste niri daridana denik. Hori ahaleginez egindakoa da. Kontzientzia bat hartu, distantzia bat hartu nire bertsoarekiko.

☞ Politika egiteko aukera baliatu behar da BECen?

☞ Bakoitzak sentitzen duen hartatik kantatzeko aukera baliatu behar du. Goizeko kartzelan, gaia entzun eta segidan, «beste alde» horrek nire baitan beste bando baten oihartzuna sortu zuen. Politika eta gatazkara erortzen zitzaidan. Neure bizitzaren eta kezka munduaren inertziak, haraxe erori nintzen, eta hor ikusi nuen nire ahotsa momentu horretan. Euskal gatazka agertu zen espektro aski desberdinetan. Ez dut esango gure bertsoa erabili behar denik hor politika egiteko, ezta gutxiagorik ere, baina sentitzen baldin badu norberak eta ateratzen baldin bazaio barrutik, bidezkoa da.

☞ Eraginkorra izan litekeela uste duzu?

☞ Izan liteke. Bertsoa zeure barrutik sortzen da, eta saiatzen zara beste baten barrura irits dadin. Azkenean, barrura heldu zaion bertso baten erantzuna eskaintzen du jendeak txaloaren berotasun horretan. Barrura iritsi zaion hari barruan buelta batzuk ematen dizkio, beharbada. Batzuei ahaztu egingo zaizkie; beste batzuei geratu egingo zaizkie gehiegi pentsatu gabe, eta beste batzuek pentsagai izango dituzte zuk kantatutako bertsoak. Hori da, nik uste, lor daitekeen txapelik ederrena: beste norbaiten barrura sartu, eta han kilimak, azkurak eta mintxoak eragitea.

☞ Aurreko finalaren ostean ez zine-la han egon idatzi zenuen. Han egon zinen?

☞ Bai, noski. Badut hanka bat finalean izan nuen irudipena, eta badut irudipena azken hilabeteotan etxean bertsoa landu nahian ibili naizen txoko hartan neukala beste hanka. Gainera, irudikatu egiten nuen nire lanerako mahai hartan sentitzen nuen hanka bat. Beharbada, horregatik atera zitzaidan horrelako saioa. Momentu oro, jakinaren gainean nengoen hanka bat falta zitzaidala finaletik, baina bi hankak izango banitu han, gehiegi eramango ninduen momentuko berotasun hark. Jendeak zirrara handia transmititzen dizu. Bi hankak

han banitu, izugarri galduko nuen lehen esandako galbahe horren tinkotasuna.

☞ Txapeldun aldakorren garai batean egon gintekeela iruditzen zaizu?

☞ Jendeak pentsa lezake galtzeko beldurra dudala, eta ez dut esango txapela galtzeko irrika daukadanik, noski, baina, inguruko kantulagunak ikusita, garai aldakor horren edertasuna sentitzen dut lehenago gentozen dinastia luze samar batetik. Maialenek dinastia hori tronutik kendu zuen duela lau urte, eta atzo bestela gertatu ziren gauzak. Garai aldakor hori ez da ez beldur, ez gerta ez dadin nahi nukkeen gauza

«Lehen hartzen nuen baino serioago hartzea posible baldin bada, saiatuko naiz»

«Txapelik ederrena da beste norbaiten barrura sartu, eta kilimak, azkurak eta mintxoak eragitea»

bat. Alderantziz, iruditzen zait garai polita dela, baina ni saiatuko naiz beste inork erraz izan ez dezan.

☞ Txapelak zein ondorio erreal ekar diezaike Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroari?

☞ Uste dut bi alde izan ditzakeela eraginaren aldetik: eragin diezaioke, neurri batean, Iparraldeari, eta eragin diezaioke, neurri batean, Hegoaldeari. Hemen, bertso eskolek badaramate lan bat; sekulako ahalegina egiten ari dira hizkuntza berreskuratzeko, eta baita transmisioaren kateak ez daitezen azkeneraino eten ere. Hemengo herrigintzak egunero martxa sufritu bat darama. Txapelak eragiten baldin badu hizkuntzaren arnasa pixka bat hauspotu dadin, eta, hizkuntzaren hauspotzen duen neurrian, bertso eskolan haurrak zabal daitezen beste ilusio batez eta kopuru handiagoan, niretzat zoragarria litzateke. Niretzat, oinarrizkoa da Iparraldeko bertso eskolatan egiten den lana; batez ere, euskararen ikuspegitik. Ikusten dut bertso eskolak direla etorkizuneko hizkuntzaren kontzientzia eta kalitatea lantzen diren baratzak. Txapelak lagun lezakeela baratza hori ongarritzen? Nire ongarriz guztia isuriko dut hor. Hegoaldeari begira, euskararen eta bertsoaren ikuspegitik, balio baldin badu agergerriago egiteko batzuetan ahantzirik gelditzen den gure herriko mapa honen alde hau, ongi etorria izan dadila.

nahi dituzu, eta baneuzkan esan nahi batzuk. Aldi berean, simpletasun bat bilatzen duzu bertsoan. Ariketa zaila da hori dena ariketa bakarrean egitea. Puntuz puntu txalotzen joan ziren, eta txalo horien gainean joan nintzen hitzak eransten.

☞ Geratu ere egin zinen...

☞ Ziega zuloetan entzuten egongo ziren horien aipamena egitean, txaloa ozendu egin zen, eta hori inportantea zen, baina hori bezain inportantea zen niretzat bertso eskolatar eta zehazki Iparraldeko bertso eskolatarako ikasleengana zuzentzea. Ez nuen nahi hori isil zezan aurrekoaren txalo bolumenak.

☞ Uste duzu aste honetan pasatuko dela txapela janztetik gutxien erakartzen zaituena?

☞ Bai, pentsatzen dut egun honekin eta biharkoekin pasatuz joango dela. Saioa joan zen bezala, jadanik ez nau hainbeste ikaritzen txapelaren figura huts horrek. Txapela neure bidean bete samartua ikusten dut. Une hartan, ikaratu egiten ninduen neure bideetan ibili gabe bestelako gailur baten bila ibiltzeak, eta hori zen erakartzen ez ninduen. Atzo eguna joan zen moduan, ikara hori erantzia dut, eta ahanztzia ere bai.

04 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala



Lujanbio, Mendiluze, Colina, Arzallus, Elortza, Sarriegi, Gaztelumendi eta Iturriaga, finalean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Aurrekoa, alderantziz

Berriz ere buruz burukoan elkartu ziren igandean, baina Arzallusek goizetik hartua zion neurria. Lujanbio txapeldun ohiari kosta egin zitzaion.

Beñat Zamalloa Barakaldo

Duela lau urte Maialen Lujanbio izan zen goizeko lehen ariketan Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalari neurria hartu ziona. Amets Arzallusek aurrerago hartu zuen abaila, eta gero goigoian bukatu. Igandean, oster, Arzallus izan zen zortziko handian saioari neurria hartuta finalari tonua hartu eta tonu egokiari eutsi ziona. Lujanbiok galbahe-

tik artez pasatzen zituen gaiak, baina ohiko fintasuna falta izan zuen goitik beherakoan. Buruz burukoan elkartu ziren biak berriz herenegungoan, Lujanbio txapeldun zela. Zortziko txikian euren bikotekideen ahotik txapeldunaz apustuan umoretsu jardun eta gero, ez zuten 2009an bezalako surik sortu *altzoa* hitzarekin. Lujanbiok Arzallusi aurrea har ziezaiokeela irudi zezakeen buruz burukoan hitzarekin eta kartzelakoaren hasierarekin. Irudipenak irudipen, ordu-

rako alde zabalegia zuen Arzallusek.

Goizeko kartzelakoan sumatu zen bere puntuan Lujanbio. Doinu berrian, 13.500 bertsozaleengan zirrara sortu zuen; saioko unerik berezietako bat izan zen. Orduan jo zuen finaleko gailurretako bat Arzallusek berak ere.

«Egoerak beste aldean jarri zaitu», aurkeztu zion kartzelako gaia Saroi Jauregik eguerdian. Euskal gatazkaren hiru aurpegi izan ziren kartzelako lanetan, eta Arzallusena izan zen horietako bat. «Ta azkenean, Donostiako / koartelera heldu nintzen / eta ordutik lana egin dut / Intxaurrondoak astintzen», kokatu zuen kontakizuna Arzallus *guardia zibil torturantzaleak*. «Galdetzen nien: 'Hik ez ote duk / hil guardia zibilik? / Eta hil baduk, zer sentitu duk / neure lankide bat hilik?' / Galdera hauei

erantzun arte / hor egongo haiz txintxilik / baina begiak zarratu eta / segitzen zuten ixilik», jarraituko zuen Arzallusek finalaurrekoetan plazaratutako doinuarekin. Orain bera zen epaitua, baina indultatzeko esperantzarekin bukatu zuen bertsoaldia. Hiru bertsoetan zehar garatu zuen gaia.

Lujanbiok lehen bertsoaren bukaeran zentratu zuen egoera puntu bakarrean: «Nik utzi izan det, baina / gaur, aldiz, naute». Hala bukatu zuen: «Eta esan gabe doa / ze eskubide daukazun / opa dizut zoriona / aski desio maitasun. / Nere lore gozo zena / nahiz bihurtu zaidan asun / ezin zaitut derrihortu / zuk ni maitatu nazazun».

Lujanbiok Igor Elortzarekin egindako arratsaldeko hamarreko txikiko ofizioan sortu zuen beste une berezietako bat. «Igor autobusean doala Maialen bere on-

dokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini dio Igo-rrek», aurkeztu zion gaia Zuriñe Iarrituk; informazio ugari gaia. Azken bertsoan harrapatu zituen ezustean Lujanbiok Elortzaren babesa jaso ondotik: «Telefonoz nembilen / eztarria idor / zuk entzutea behar / bainuen derrigor / telefonoz bestalde / ez zegoen inor».

Buruz burukoan kantatzetik urrun gabe sailkatu zen hirugarren postuan Elortza. Bakarka egindakoetan erakutsi zuen dotoretasuna eta fintasuna; batez ere, arratsaldekoan. Ez zitzaion bakarkakoetako gai ezohiko eta zehaztuetariko bat egokitu; irekietako bat baizik: «Lehen aldiz lokartu da zure besoetan». Gertuan

Iritziak



«Ez naiz oso bertsozalea, baina finala gauza handi bat iruditzen zait»

Fermin Etxegolen

Idazlea eta kazetaria

«Ez naiz inoiz oso bertsozalea izan, baina finala ikusten dut, eta arrazoi askorengatik iruditzen zait gauza handi bat dela. Arzallusi elkarrizketa egin zioten bukatu eta segituan, eta esaten zuen hizkuntzaren bizinahia dela finalean denok biltzen gaituena.»



«Sortzen den mugimendua ez da pose bat, benetakoa baizik»

Aizpea Goenaga

Etxepare Institutuko zuzendaria

«Jendetzaren energia nabarmenduko nuke. Bertsolaritzaren bueltan sortzen den mugimendua harrigarria da, eta ez da pose bat, benetakoa baizik. Zortzi bertsoarien maila, gainera, akatsik gabea izan zen. Semeak esan dit hurrengo finalera joan nahi duela!».



«Lujanbio hegan ikusi nuen, eta Arzallus, oso maisu baina oso topiko»

Lorea Agirre

Kazetaria

«Saioa oso-oso ona izan zen. Buruz burukoan bi eredu ikusi genituen. Lujanbio hegan: berritzen, sortzen, ematen. Arzallus, oso maisu, balna ñabardurarik gabe, oso topiko. Agian nabarmen aldeko zuen publikoak jarri zizkion kateak. Arzallus hori baino gehiago da.»



«Perfekzioaren izenean, beste bertsoakera batzuk alboratzen dira»

Hasler Etxeberria

Kazetaria

«Zortzi finalistek duten maila gimnastiko bikaina nabarmenduko nuke. Baina perfekzioaren izenean albo batera uzten dira beste abilezia eta bertsoakera batzuk. Gainera, ez dakit perfekzioaren bilaketa horrek ez ote dion kontakizunari berari kalte egiten.»



«Lujanbio errazkeria saihesten ahalegindu zen buruz burukoan»

Beñat Sarasola

Idazlea

«Lujanbioren buruz burukoa nabarmenduko nuke, epatazko joera eta errazkeria saihesteko eginahalean. Elortza eta Mendiluzeren puntutako aparta ere aipatu nahi nuke. I+G+B-ean beste diziplinekiko aurrerago dagoela frogatu zuen berriro bertsoaritzak.»


↓ Bertsolari Txapelketa Nagusia

1 Amets Arzallus 1.737,5	2 Maialen Lujanbio 1.686,5	3 Igor Elortza 1.164	4 Aitor Mendiluze 1.155
5 Aitor Sarriegi 1.106	6 Beñat Gaztelumendi 1.099	7 Unai Iturriaga 1.099	8 Sustrai Colina 1.082,5

Goizeko saioa	8H	8T	PE	6M	K	Guztira
Amets Arzallus	151	154	156,5	145,5	160	767
Maialen Lujanbio	143	147,5	143	142	157,5	733
Igor Elortza	135,5	143	144	141	148	711,5
Aitor Mendiluze	138,5	136,5	131,5	155,5	134	696
Aitor Sarriegi	134,5	125	146	131,5	144	681
Beñat Gaztelumendi	138,5	135	126,5	137,5	143	680,5
Unai Iturriaga	141	135,5	127,5	148	126	678
Sustrai Colina	139,5	129	135,5	134,5	134	672,5

Arratsaldeko saioa	10T	P	GE	Guztira	BB
Aitor Mendiluze	140,5	165	153,5	459	
Igor Elortza	143,5	156	153	452,5	
Maialen Lujanbio	145,5	141,5	151	438	515,5
Amets Arzallus	149,5	134,5	152	436	534,5
Aitor Sarriegi	135,5	136,5	153	425	
Unai Iturriaga	138,5	131	151,5	421	
Beñat Gaztelumendi	137	130	151,5	418,5	
Sustrai Colina	137	140	133	410	

8H: Zortziko handia / 8T: Zortziko txikia / PE: Puntua emanda / 6M: Sei puntuko motza / K: Kartzela / 10T: Hamarreko txikia / P: Puntutan / GE: Bakarka gaia emanda / BB: Buruz-buruzkoa



ITURRIA: BERTSOZALE ELKARTEA



Bertsolariek eta publikoak bat egin zuten txaloetan. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

topatu zuen bidea, aitasunaren ikuspuntutik. Donostian plazaratutako doinuak kantatu zuen. «Neu ere berriz jaio naiz / zure lehen segunduan / orain lotan zauz-kadala / zer daukadan akorduan / musukatzeko orduan: / beti ezin-go zaitudala / babestu gaurko moduan», kantatu zuen bigarrenen. «Nolanahi lehen une hau / denontzat ederra oso / zu, ama eta ni gozo / aulki deseroso hontan / neukegingo dut loeroso», borobilduko zuen.

Bertsolariek bakarkakoetan utzi zuten euren sinaduratik gehien, eta horrek saioan gai serio-dun lanek pisua hartzea eragin zuen. Umorezkoenen artean izan zen Elortza eta Mendiluzerena. Eginbeharrekorik bat-batekoenen lortu zuen Mendiluzek txapelketa guztiko puntuaketarik altuena. Ofizioetan nabarmendu zen Mendiluze, eta arratsaldeko saiora indartsu itzuli zen. «Olentzero eta Aita Noel dira: Aitor, Olentzero, eta Igor, Aita Noel. Tximiniatik sartu ezinik dabilta», egokitu zitzaizen gaia Elortza eta Mendiluzeri. Bera estatubatuarra zela harrokeriaz kantatzera iritsi zen

Elortza. «Kontuz nirekin daude CIA eta NASA», bota zion Elortzak une batean, eta era honetara erantzun zion Mendiluzek: «Hala ere, sartzeko / ez zara kapaza».

Bakarkakoak izan ziren Aitor Sarriegiren bereizgarrienak. Bosgarren, aurrekoengandik koska batera. Gatatza politikoaren alde bana izan zituen gai: goizean, berak hala hautaturik; eta arratsaldean, gaiak hala markaturik. Goizekoan, kartzelan, «Alargunari» eskua emandako unean «zerbait lehertu» eta geroko sentimendua azaldu zuen bertsoaldiaren erdian: «Ez da izan eroso / ez da izan atsegina / nik ere badakit zer den / sufrimendu ta ezina / baina egin beharran / besterik gabe muzina / orain nere sentitu det / eragin diodan mina». Arratsaldeko bakarkako gaian posizio honetan jarri zuen: «Alabarekin batera bikotekidea bisitatzera zoaz autoan. Alabak hala esan dizu berriz: 'Asko falta da iristeko'». Aldea bazen, Elortzan gaitik Sarriegirenera, adibiderako. Ideia distiratsuen lehen bertsoaren azkenean bota zuen: «Alaba asko falta den / galdetzen didazu neri / erantzunik

eman gabe / ezin det gidatzen segi: / 'Kilometrotan ez asko / eta denboran gehiegi'».

Gatazkaren beste aldeko egokitu zitzaion Iturriagari: «Zure aita atentatu batean hil zuten. Aurren, lehen aldiz, sentsibilitate politikoz guztietako ordezkariak izan dira aitaren omenaldian». «Utz ditzagun iraganak / diskurtsoak ta ostiak / biktimak, gora-gorakak / ta gerrako abestiak. / Aita gabe umezurtz naiz / dauzkat begiak bustiak / baina herri honek behar ditu / aita ta ama guztiak», bukatuko zuen bere azken finaleko azken betebeharrekoa. Bakarkako gai serio hori finena izan arren, freskotasuna izan zen ekarpena.

Estreinako finala zen Beñat Gaztelumendirentzat. Finalik orekatuenetakoa egin zuen. Adimen urritasuna duten gazteekin osatutako ballet arduradun gisa osatu zuen bere bertsoaldirik osoena, finalaren azkenean. Sustrai Colina zortzigarrenak gaiekin ez zuen zorte handirik izan. Kartzelako garapenean ere ez zuen asmatu. Ezin izan zuen txapelketan ordura arte erakutsitako mailarik erakutsi.

■ IGOR SUSAETA



«Parean ikusten nituen, eta uste nuen Lujanbiok irabaziko zuela»

Itziar Ituño

Aktorea

«Oso hunkigarria izan zen; batez ere arratsaldekoa. Buruzburukoa negar batean bukatu nuen. Txapelketak baino, beselako saioak nahiago ditut, baina finalean asko gozatu nuen. Pentsatzen nuen Lujanbiok irabaziko zuela... Parean ikusten nituen biak...».



«Bertsozale Elkarteak egindako lanaren isla da BECeko argazkia»

Mikel Astarloza

Txirindulari oha

«Azken urteotan Bertsozale Elkarteak egindako lan bikainenaren emaitza da BECen 13.500 lagun biltzea eta halako giroa sortzea. Gozamen hutsa izan zen finala; hasi lehen aletik eta azkeneko aleraino. Arzallusek merezimendu osoz jantzi zuen txapela.»




«Lujanbiorekin gozatu nuen, baina merezitako tokian dago txapela»

Onintza Enbeita

Bertsolaria eta politikaria

«Kristoren finala izan zela iruditzen zait; sentsazio hori daukat. Agian, orain ez ditugu baloratzeko, baina konturatuko gara Iturriagaren bakarkakoa eta Sarriegiren kartzelakoa bertso itzelak izan zirela. Lujanbiorekin gozatu nuen, baina merezitako tokian dago txapela.»



«Egungo bertsokera narratibistarekin ez da erraza umorea egitea»

Xabier Aierdi

Soziologoa eta irakaslea

«Finala, oro har, oso ona izan zen. Buruzburukoan Lujanbiok sakonago kantatu zuela esango nuke. Gaiak ikuspegi soziozentriko batetik aztertuz gero, oso arazotsuak izan ziren. Egungo bertsokera narratibista kontuan hartuta, igual ez da erraza umorea egitea.»



«Umore gutxi eduki zuela entzun dut; hor dago gogoetarako gaia»

Ainhoa Agirreazaldegia

Bertsolaria

«Maila oso oneko bertsoak aditu genituen. Arzallusen goizeko lana eta barrura iristen diren Lujanbioren ideia konplexuak nabarmenduko nituzke. Umore gutxiko finala izan zela entzun dut. Hor dago gogoetarako gaia. Hain saio luzean eskertzen dira umore dosiak.»